

# Zu hemen zaude.

# goiena



## ERROTAK ZABALIK

Erroten Eguna ospatuko dute domekan, horiek historian izan duten garrantziari balioa emateko; Debagoieneko lau herritan bisitatu ahal izango dira / 8

Antzuolako Akiñabei errotera bisita gidatua egin zuten atzo, Erroten Egunaren harira. Argazkian, Joxe Mari Iturbe, azalpenak ematen. EIDER MONCAYOLA



**Fernando Cobos**  
bergararra, munduko txapeldunorde txakur krosean 'Luko'-rekin / 38



Amerika elkarteak: hazia eroin, ureztatu, uzta batu

Txemi Etxebarria musikariari elkarrizketa

**Arrasateko erdiguneko bidegorri sarearen heren bat eginda dago, zazpi urteren ostean / 14**

**Euskararen Historia Soziala jasotzen ari dira Bergarako Udala eta Badihardugu elkarteak / 26**

**500.000 euro jarri ditu Oñatiko Udalak herritarren proposamenak gauzatzeko / 35**

### SINADURAK

	URTZI AMIANO SALTERAIN / 12		PERU ABARRATEGI / 19
	ANE SANCHEZ ZEZIAGA / 16		ONEKA ANDUAGA GARAI / 35
	ANE ZUAZUBISKAR / 48		

# 2 MÓ 229€

## PROGRESIBO

BAT EGUZKITAKOIA IZAN DAITEKE

ukipen-lenteak doan hilabete baterako

premium azterketa bisuala, erretinografia bane

Kontsultatu optikan konpainiaren ezaguerriak.



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

www.multiopticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

E.P.S. 9/1/20



# "Nekatu egiten nintzen, zorabiatu, ez nekien zer ari zitzaidan gertatzen"

2020ko abenduan harrapatu zuen koronabirusa Aitor Arana Aramaioko kirolari ezagunak. Orduetik, sintoma larriekin dago; COVID iraunkorra diagnostikatu diote



Arana, Aramaion, baserriaren atarian. MAIDER ARREGI

**Uxue Igarza Loiola** ARAMAIO  
Pandemiak ekarritako murrizketa ia guztiak arindu diren honetan, badago oraindik birusaren eraginak gaintetik kendu ezinda dabilzanak; COVID iraunkorra edo luzea diagnostikatu dutenak, alegia. Aitor Arana Aramaioko korrikalaria ezaguna da horietako bat.

2020ko abenduan harrapatu zuen koronabirusa Arana –beste 900 debagoiendarrek bezala–, eta sintomak "apurka-apurka" agertu zitzaizkiola azaldu du: "Muskuluetako mina hasi zitzaidan, eta pilula mordoa hartu arren inondik inora ere joaten ez zen buruko mina". Egoera "eramangaitza" zela dio, eta medikuek ez zutela lortzen erremediorik jartzea. "Eusteko esaten zidaten", dio.

## Urte luze eta gogorra

Errekuperatzen hasi zela pentsatu zuenean lanean hasi zen korrikalari debagoiendarra, eta baita kirola egiten ere, baina "gauza arraroak" sumatzen hasi zela gogoratzen du: "Nekatu egiten nintzen, zorabiatu, ez nuen inondik eta ez nuen ulertzen pasatzen ari zena". Laneko baja hartu zuen eta urtebete darama horrela.

Bestetik, kirola zutabe garrantzitsua izan da Aranaren bizitzan, baina orain, asko aldatu da haren errealitatea. "Bilaldirioak egiten ditut mendian, baina igartzen dut ez nagoela ondo. Etxera iristean, hanketako mina izaten dut; askotan, ezin izaten ditut hankak, orpoak, lurrean jarri ere", kontatzen du. Errekuperazioari dagokionez ere, "zailagoa" izaten ari dela dio korrikalariak: "Gauza gutxi eginda ere, ohera joan behar izaten dut. Neka-neka eginda egoten naiz, baina lo egin arren,

ez dut lortzen atseden hartzea. Bestetik, fisikoki eragiteaz gain, COVID iraunkorrak adimenari ere eragiten diola gehitu du: "Burua nahasita izaten dut, sarritan ez ditut gauzak oroitzen..."

## Ikerketa bat abian

Gaitza aztertzen duen ikerketa batean parte hartzen ari da Arana: "Disautonomia ikerketa bat da; hainbat proba egiten dizkigute". EITB Maratoiak duela bi urte batutako diruarekin abiatu da ikerketa, Biocrucesen, eta hiru urte iraungo du.

## Koronabirus kasuak, gora

Aste Santuko eta Pazko asteko bidetik, gora egin dute Debagoiengan hautemandako COVID-19 kasuak azken zazpi egunetan. Zehazki, 193 izan dira; duela bi aste baino 42 gehiago. Hala, intzidentzia-tasa 111 puntu hazi da.

Herrietan, aipatzekoa da Arrasaten, Oñatin eta Elgetan erregistratutako gorakada: hemezortzi, hamazazpi eta hamar kasu gehiago hauteman dira. Elgetan, aurreko 48 egunetan beste lagun kutsatu dira azken astean.

Probek ondorioztatu dute buruaren gaitasuna "murriztuta" duela Arana eta estimuluak ere eragiten diola gehitu du: "ez dituela behar den bezala" jasotzen. "Arazoen zergatia topatu ez dutenez, oraindik ez dago tratamendurik. Zain gaude. Azken finean, gaixotasun berria da", azaldu du.

## Borroka psikologikoa

Psikologikoki asko trebatu izan da Arana mendi korrikalaria izan den aldetik, eta prestaketa horrek borroka honi ekiteko ere lagundu diola uste du: "Pentsamendu txarrak burura etortzen zaizkidanean, gai naiz horiek ezabatzeko; nahiko ondo daramat. Halere, beti egoten dira momentu ahulagoak".

Etorkizunari buruz galdetuta, ez duela horren inguruan pentsatu nahi dio: "Gaurkoa aprobetxatu, ahal dena egin, eta ahalik eta zoriontsuen bizi. Horixe egiten dut (...) Honek ez du etorkizun garbirik. Ditudan mugak ezagutzen ditut eta horrekin egiten dut aurrera".

## Babesa, etxean eta sarean

Familiaren babesa du Arana, baina, horrez gain, haren egoeran dauden pertsona ere bai –pantailaren beste aldean bada ere–. "Sare sozialetan, Long COVID izeneko taldean, gure ezinegonak elkarbanatzen ditugu. Artikuluak irakurri, jendeak esaten duena entzun... Gainera, koen egoera ezagututa, lasaitu egiten da norbera", adierazi du.

**ULMA Servicios de Manutencion, S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA**

Eguna: 2022ko maiatzaren 12a  
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena  
Lekua: R.M. Zuazola Institutuko aretoa - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRISTIA HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
  - 4.1 2021eko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
  - 4.2 2021eko Urteko Kontu Baserriak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOKION INTERESEN SORTZAPINA
7. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETA ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOA, ALDATZEA
9. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMAIBIGARREN ATALA SARTZEA, ETA 65. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BIKONDATZEKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSEARA EGOZTEKO MUGA MALTZETZEARI DAGOKIENEZ
10. HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO JINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA, ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIEIARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE
11. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
  - 11.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua
  - 11.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
  - 11.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eraturako fondoerentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 11.4 ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jardura sozialaren ildora azalpena
12. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
13. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
14. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
16. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
17. AHALMENAK ESKUORDETZEA
18. GALDE-ESKEAK

**OHARRAK:** Bazkide gogoratzen diren Kooperatibaren egoeran eta interesen ekoizgarri diren eta urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak buru-bazkideen egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdian aurreko aktaren arabera azalduko dira.

Halaber, bazkide gogoratzen diren Kooperatibaren egoeran eta interesen ekoizgarri diren eta urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak buru-bazkideen egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdian aurreko aktaren arabera azalduko dira.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2022ko apirilaren 29a



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldia
•Automatizazioa eta Robotika Industriala	Maiatzak 7 11:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	
•Mekatronika Industriala	

[www.mondragon.edu/lanbideheziketa](http://www.mondragon.edu/lanbideheziketa) • [onarpena.lhm@mondragon.edu](mailto:onarpena.lhm@mondragon.edu)  
664 298 704 • 664 298 683



Iosu Madinabeitia (Arrasate)

Iosu Madinabeitia. Arrasatekoa da eta PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA ikasketak bukatzen ari da DUAL formatuan.

Mekanizatuko erdi mailako zikloa egin ondoren, goi mailako PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA egitea erabaki zuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP).

**Nola erabaki zenuen ziklo hau egitea? Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?** Familia bereko erdi mailako zikloa egin ondoren, goi mailakoarekin jarraitzea erabaki nuen, erdi mailako zikloan ikasitako kontzeptuak finkatzeko eta berriak ikasteko.

Ate irekietako bisitan ikusi nituen instalazioak, gelak, espazioak, erabiliko genuen metodologia azaldu ziguten... eta gustatu egin zitzaidan. Beste alde batetik, nire anaia ere beste goi mailako ziklo bat egiten ari zen, eta gustura zebilen; gauza horiengatik guztiengatik erabaki nauen MGEPn egitea.

**ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nola moldatu zarete?**

Lehenengo mailan eta bigarren mailan hainbat erronka izan ditugu teorian ikasitakoa aplikatzeko, eta gauza berriak ikasi ditugu adibide errealek egiten. Talde-lan dezente egin ditugu, informeak, aurkezpenak, bideoak eta abar. Gustura ibili naiz taldekideekin lanean ekintza hauetan.

Gure arteko giroa oso ona izan da. Talde txikia izan gara, jatorri eta edade askotariko ikasleak ditut; oso aberasgarria dela iruditzen zait. Harreman berriak egiteko aukera ematen du.

Beste alde batetik, MGEPn beste maila batzuetako ikasle asko daude, beste ziklo batzuk, gradua eta abar, eta ikasle-giro ona dago.

**DUALa egin duzue; zer-nolakoa izan da esperientzia?**

Nire DUALa Unibertsitateak duen Mekanizatuko laborategian egin dut. Lan desberdin asko egin ditut, ikertzaileek behar zituzten erremintak eta abar egiten ibili naiz, eta haiekin harremana ona izan da.

Laborategi honetan maila handiko ekipamendua dago; adibidez, Mikromenizatuko makina batekin ibili naiz; Estatu mailan horrelako makina bakar batzuk omen daude, eta nik erabiltzeko aukera izan dut. Oso gustura ibili naiz, asko ikasten da, eta DUALa egitea gomendatuko nuke, nahiz eta denbora libre pixka bat kentzen duen.

**Hemendik aurrera zein da zure asmoa?**

Ikasten jarritu nahiko nuke, orain egiten ari naizen jarraipen bat izatea nahiko nuke, oraindik ez daukat garbi zer. Momentuz, ziklo hau ondo bukatu, eta gero erabakiko dut. Dena dela, aukera on bat agertzen bada, lan mundura joatea ere ez dut baztertzen.

GEROA ↑ EREIN





# "Kooperatibismoaren aldaerek harritu naute"

**NICK ROMEO** 'THE NEW YORKER' ALDIZKARIKO KAZETARIA

Mondragon Korporazioa aztertzen ari da kazetari estatubatuarra. Bisita aprobetxatuz, behatutakoaz, haren jardunaz eta kazetaritzaz berba egin du GOIENAREKIN

**Jon Irizar Aranguren** ARRASATE  
Nick Romeo (Kalifornia, Ameriketako Estatu Batuak) kazetari, idazle eta kritikoa bailara ezagutzen izan da. Tartean, Goienara egin du bisita.

**Atenasen bizi den kaliforniarra Debagoiena ezagutzen.**

Antzinako mundua eta, bereziki, Greziako arkeologia ikertzen dihardu emazteak; horregatik darमतatzagu hainbat urte Atenasen. Kazetari naizen aldetik, Europan bizi izatearen aukerak aprobetxatzen nabil. Austria, Herbehereak, Portugal... eta baita Debagoiena ere.

**Zeren bila etorri zara?**

Oro har, ideia berriak eta ekonomia eredu interesgarriak aurkitzen, ikertzen eta jasotzen ahalegintzen naiz. Alegia, eredu batek espazio edo denbora batean nola funtzionatzen duen aztertzen dut, baita beste toki edo egoera batean aplikagarria izan litekeen edo ez. Mondragon Korporazioaz irakurri eta galdetu nuenean, mamia izan zezakeela iruditu zitzaidan.

**Eta bertara etorri zara.**

Beti da ezberdina gauzak nork bere begiekin ikustea, jendearekin aurrez aurre hitz egitea.

**Zer daramazu bueltan?**

Elkarriketa asko, ikerketa asko. Mondragon Korporazioaren ba-

rruan zein taldetik kanpo molde eta helburu askotako kooperatibak daude: eskolak, industriak, bankuak, komunikabideak... Harrigarria iruditu zait ereduaren aldaera eta malgutasuna. Ustekabekoa izan da; ez nuen hau espero.

**Eta nola bilduko duzu behatu eta jasotako guztia?**

*The New Yorker* aldizkarian artikulu bat argitaratuko dut gaiaz, eta hori izango da, hain zuzen, idazten nabilen liburuarren azken kapitulua. Aste edo hilabete batzuk beharko ditut lana osatzeko; kooperatibismoaren funtzionamendua azaltzeaz gain, hainbat adibide emateko.

**Zerbait aurreraterik bai?**

Zer esan nahi du kooperatibismoak? Eta zer pentsatzen du jendeak kooperatibismoaz? Badirudi galdera berberei erantzun desberdinak ematen zaizkiela. Kausa-ondorio dikotomian, aztertuko dut ea kooperatibismoaren kausa jendearen izaeran eta pentsamoldean dagoen, edo kooperatiben egitura, arau eta legeek eraikitzen duten herri-tarren nortasun hori.

**Ikerketan soilik aritzen zarete *The New Yorker*-en?**

Ez; kazetaritzaren esparruak lantzen ditugu. Ni, esaterako, kolaboratzaile arrunta naiz;

ikerketan aritzen naiz, baina baita kultura piezak, saiakerak eta iritzi artikuluak idazten ere.

**Espanian bolo-bolo zabaldu da apirilaren 18an zuen aldizkariak argitaratutako ikerketa bat: Pegasus programaren bidez Katalunian politikariei egindako espioitza kasua.**

Bai, jakitun naiz. Ez dut ezagutza zehatzik historia horren inguruan, ezta Ronan Farrow kazetariaren inguruan ere [Pulitzer Saria irabazi zuen 2018an]. Kontu orokor batzuk besterik ezin dut esan: *The New Yorker*-ek denbora asko ematen digu kazetariari istorio bat lantzeko, AEBetako beste aldizkari gehienek baino gehiago. Hainbat herrialde eta lekutara bidaiatuz, dozenaka pertsona elkarriketatzen ditugu; hilabeteetako edo urteetako lanketak izan litezke. Uste dut nahiko argi gelditzen dela aipatu duzun lan horretan.

**2017tik abiatzen da kontakizuna... Ikusgarria da. Gure aldizkaria salbuespena da, eta hau salbuespenaren barruko salbuespena. Torontoko Unibertsitateko Citizen Lab taldearekin egin du Farrowk ikerketa. Ohikoa al da kazetaritza eta unibertsitatea bide berean lerratzea?**

Oso ohikoa da, bai. Bizitza osoa gai jakin batean sakontzen ari-



Nick Romeo, Goienako bulegoetara egindako bisitan. HASIER LARREA

tu diren unibertsitateetako adituek istorioak ulertzen lagundu diezagukete. Agian, berezitasun nagusia izan liteke datuen analisisian haiekin elkarlanean aritzea edota hipotesi nagusia frogatzeko haien lana baliatzea.

**Denboraz kanpoko edukiak lantzen dituzue, beraz.**

Denboraz kanpokoak baino gehiago, edukiak denbora luzeagoz lantzeko abantaila dugula esango nuke. Bide horretan, eguneroko sortze eta kontsumo gurgiletik ihesi, edukiari ere balio iraukorragoa ematen diogula deritzot.

**Eta zure webguneko publikazioen arabera, hainbat gairen ingurukoak, gainera.**


Zelanbait, alergia diot beti gai konkretu baten inguruan idaz-

**"PRINTZIPIO ETA ARAU BATZUK DITUEN KAZETARITZA INDEPENDENTEAN INBERTITU BEHAR DA"**

teari. Kazetari izatearen plazerearen zati bat norbera dela uste dut; erupzio labur bat izan gabe, jakintzak barneratzearen ikasketa prozesu luze hori balioeste, alegia. Eta gai ezberdinek uste baino lotura eta elkarreragin handiagoa dutela ohartzen zara, azkenean.

**Egungo kazetaritzaz duzun irakurketak interesgarria behar du izan.**

Kritikoa naiz. Finantza-ereduek eta merkatuko indarrek editorialak baldintzatzen dituzte, eta kontsumoaren ziklo bizio-tsuaren murgilduta daude; izan ere, jendeak kontsumitu nahi dituen eduki horiek lantzer mugatzen dira hedabide asko. Demokrasiak osasuntsuak izan daitezten eta herritarrei munduaren konplexutasuna eta aberastasuna helarazteko, printzipio eta arau batzuk dituen kazetaritza independentean inbertitu behar da. Helburua ez da jendea axola zaiona ez argitaratzea, gure printzipioetatik irakurleen ikuspegia zabaltzen saiatzea baizik.



**LANBIDE HEZIKETA GARA!**

**22/23 Kurtsoa**

➤ Izen-ematea:  
Malatzaren 9tik 27ra

➤ Matrikula egitea:  
Uztailaren 15etik 19era

**www.eraiken.com**

Oto Hiribidea, 33  
01010 Gasteiz, Araba

**945 001 200**

**Teknikaria**


- Eraikuntza
- Barnealdeak, dekorazioa eta zaharberritzeak
- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Beroa sortzeko instalazioak
- Hozteko eta grotzeko instalazioak

**Goi mailako teknikaria**

- Eraikuntza obren antolaketa eta kontrola
- Eraikuntza proiektuak
- Obra zibileko proiektuak
- Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa
- Instalazio termikoen eta fluidodumen mantentze-lanak
- Lan arriskuen prebentzioa

**Espezializazioa**

- Eraiken informazioaren modelaketa (BIM) 600ordu




Formakuntza

Trebakuntza

Enplegua

EUROKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO





# "Debagoiendarren eskola da Gamarra"

**AITOR ETXEBARRIA** GAMARRA OSTALARITZA ESKOLAKO IRAKASLEA

Lanbide Heziketako Gamarrako ostalaritza eskolak hiru ziklo eskaintzen ditu ikasketa mailaren arabera eta euskaraz egin daitezke erdi eta goi mailako ikasketa guztiak

Ostalaritza ikasi nahi duten ikasle eta irakasle debagoiendar gehienek Gasteizko Gamarrako Ostalaritza Eskola aukeratzeko dutela dio Aitor Etxebarria (Bergara, 1971) irakasleak.

## Zer da Gamarrako eskola?

Lanbide Heziketako ikastetxe integratua eta publikoa. Oinarritzko Lanbide Heziketa, erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloez gain, langabeentzako eta langileentzako prestakuntza eskaintzen du. Ikasketa guztiak guztiz doakoak dira. Ikastetxean 40 irakasle eta 300 bat ikasle gara eta administratzailea, atezainak eta garbitzaileak ere badaude.

## Ze ziklo eskainiko duzue?

Hilaren 9tik 27 bitartean irekita egongo da aurrematrikulazio epea. Garrantzitsua da azpimarratzea ezinbestekoa dela aipatutako epean aurrematrikula egitea, aurrerago matrikula egin ahal izateko. Izen-ematea online egitea oso erraza da. Hezkuntza-ren webgunearen bitartez edo gure ikastetxean bertan egin daiteke. Bestalde, maiatzaren 9an, 18an eta 23an ate irekiak egingo dira, 16:30ean. Eskolako webgunean izena eman daiteke. Honako hau da eskaintza: erdi mailan, Sukaldaritza eta Gastronomía zikloan bi talde egongo



Aitor Etxebarria, ezkerrean, eskolako irakasle eta ikasle debagoiendarrekin. GOIENA

dira, bata A erduan eta bestea D erduan; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza, eta Jatetxe Arloko Zerbitzu zikloetan, berriz, talde bana, B+ erduan. Bestalde, goi mailan, Sukalde Zuzendaritza zikloan bi talde izango dira, A eta D erduetan.

**"GURE ESKOLAN ERDI ETA GOI MAILETAKO ZIKLO GUZTIETAN DAUKA PRESENTZIA EUSKARAK"**

## Euskaraz ziklo guztietan?

Bai. Gure ikastetxea lan handia egiten ari da alor honetan; erdi eta goi mailako ziklo guztietan izango du presentzia euskarak.

**Nork eman dezake izena eskolan?** Erdi mailako zikloak egiteko, gutxienez, DBH edo Oinarritzko Lanbide Heziketa gainditzea beharrezkoa da. Goi mailakoa egiteko, berriz, batxilergoa edo erdi mailako zikloren bat.

**Nolako ikastetxea da Gamarrakoa?** Alde batetik, maila handiko profesionalak daude. Egunean jarrita eta eskarmentu handikoak

metodologia berrietan. Bestetik, benetako praktika bidezko ikasketak egiten ditugu gure jate-txean, dendan eta hainbat eskaintza gastronomikotan. Bestalde, ikastetxeak aurrera eramaten ditu honako hezkuntza-proiektu berritzaile hauek: E'THAZI, etekin handiko zikloen metodologia, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza; ERASMUS+, ikasleek ziklo amaierako lan-praktikak Europako enpresaren batean egiteko aukera eta Europako hainbat ikastetxerekin ikasle-trukeak egiteko aukera; txandakako erregimeneko LH Duala, zeini esker ikasleek partekatu ahal izango duten ikastetxeko prestakuntza eta enpresaren batean lan eginez trebatzea lan kontratu edo beka baten bitartez; eta berrikuntza proiektuak, eskola-baratzea ekonomia zirkularra garatzeko baratzetik mahaira, zero kilometro-, berdintasun proiektuak, Agenda 2030 eta beste batzuk.

Ikastetxea guztiz berrituta dago. Sukaldeak, gozotegia, okindegia, jangela, kafetegia... orain dela gutxi berritu dira eta ikasgela asko orain dela bi urte berritu ziren, errendimendu handiko metodologiak ikaskuntza prozesuan aplikatu ahal izateko.

## Zein lanpostutan egingo dute lan ikasketak amaitu ondoren?

Zikloaren arabera. Sukaldaritza eta Gastronomía zikloa eginda, sukaldariak edo gozogileak izango dira jatetxeetan, hoteletan, administrazioan -ospitaleetan, zahar-egoitzetan, eskoletan...-; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza eginda, okinak, gozogileak edo gozoginak izango dira elikagai industria alorreko enpresetan, eta gozogileak ostalaritza

enpresetan. Azkenik, Jatetxe Arloko Zerbitzuak eginda, zerbitzariak, tabernariak, maitreak, sommelierak, jangelako arduradunak edo jatetxe arduradunak izan daitezke. Goi mailako Sukalde Zuzendaritza zikloa eginda, sukaldaria, sukaldeburua, sukalde zuzendaria, catering eragiketaren burua, janari eta edari zuzendaria... Administrazioa hainbat arlotan lan egiteko baliagarria den ikasketa da.

Kontuan izan behar dugu, gainera, ostalaritza oso arlo egokia dela esperientzia izan eta gero nor bere enpresa sortu ahal izateko. Gure ikastetxeko zenbait ikasleek bide hori hartu dute eta pozik daude enpresari lanetan; horretarako, Urratsbat programaren laguntza eskaintzen dugu. **Ikasketak amaitzen dituzten ikasleek erraz topatzen dute lana?** Ostalaritza eta elikagai-industria sektoreek pisu handia dute gure ekonomian. Gure zikloen batez besteko lan-txertatze maila %85 ingurukoa da.

## Zein harreman duzue ikasketak amaitu dituzten ikasleekin?

Oso hurbila. Ikastetxeak 30 urtetik gora daramatza eta promozioen ospakizunak ere egiten dira. Ez dira gutaz ahazten, eta hori seinale ona da. Bestalde, eskolak lan-poltsa bat kudeatzen du. Eskaintzen dizkiguten lan aukerak ikasle ohie helarazten dizkiegu, eta, lana aldatu nahi izanez gero ere, eurek deitzen digute eskolara, ea zer izan dezakegun eskaintzeko.

**"ZIKLOEN BATEZ BESTEKO LAN-TXERTATZE MAILA %85 INGURUKOA DA GURE ESKOLAN"**



**ETORKIZUNA ZURE ESKURA**

FORMAKUNTZA:  
TABERNA-KAFETEGIA  
SUKALDARITZA  
GOZOGINTZA  
SUKALDE-ZUZENDARITZA  
OKINGINTZA  
JATETXEA



**ESKOLA PUBLIKOA  
ETA DOAKOA**

Eman izena  
maiatzaren 9tik 27ra

**gamarra**  
ostalaritza eskola • escuela de hostelería

Informazio gehiago

Tlf. 945 25 80 25  
gamarra@gamarraeskola.com  
[www.gamarra.eus](http://www.gamarra.eus)





## Elikagai bilketa egingo dute zenbait supermerkatutan

Eroskin, BMn eta Super Amaran egongo da laguntzeko aukera, baita bonu bidez ere, gaur eta bihar artean

J.I. ARRASATE

Gipuzkoako Elikagaien Bankutik adierazi dutenez, %7 igo da aurtengo elikagaien eskaria. Dione prezioen igoera dela horretarako arrazoietako bat, eta baita Ukrainako gerratik ihesi errefuxiatuak heldu izana ere: "Gipuzkoa osora etorri dira ukrainarrak, eta igartzen da haiei ere eman egin behar zaiela, egoera oso txarrean datoz eta", dio Elikagaien Bankuko Bergarako biltegiko boluntario Gonzalo Arrondok. Udaberriko kanpaina barruko premiazko bilketa izan-

go da gaur eta bihar aurrera eramango dena.

Udazkenean egiten duten elikagaien bilketa handia ez bezala, udaberriko kanpaina kudeatu bai baina antolatu ez du elikagaien bankuak antolatzen, supermerkatuek eurek baizik. Eroski, BM eta Super Amara supermerkatuetan batuko dituzte elikagaiak. Eta pandemia garaian bonuekin bakarrik lan egin ostean, oraingoan, bonuez gain, elikagaiak ere jasoko dituzte berriro. Herritarren erantzun ona espero dute.



Asier Guridi, ospitaleratutako egunean. A.G.

## Eten egin du gose greba Asier Guridi oñatiarrak

Martxoaren 29tik ari zen protestan, nortasun egoera erregularizatzeko aukera emango dion agiri eske. Gose greba utzita, lasaiago bai, baina erabat lasai ez daudela dio Guridiren bikotekide Maria Diazek, haren osasun egoera txarragatik

**Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI**  
Eguaztenean utzi zion Asier Guridik duela hilabete baino gehiagotik egiten ari zen gose grebari. Hala eman zuen aditzera sare sozialetan: "Caracasgo Perez de Leon ospitalean artatua izaten, une honetan; etengabeko goragale eta gorakoan aurrean". Gose greba eten bai, baina borrokarri uzteko asmorik ez zuela adierazi zuen: "Ez diot borrokarri utziko; semeagatik, nigatik, gugatik! Injustizia ankerra delako!".

Guridi 2005ean iritsi zen Venezuelara, Espainiatik ihesi, eta 2013an atxilotu egin zuten. Ordutik, ez du nortasun juridikorik, eta behin eta berriz salatu du 2008an jaiotako semeari euskaldun herritar eskubideak transmititu ezina. Venezuelako Komisio Nazionalak errefuxiatu izaera onartu zion abenduan, eta hori aitortuko duen zedula edo agiria eskatzen du; tramitaziorako, baina, indarrean dagoen pasaportea eskatzen diote,

eta horrek du blokeatuta prozesua, Espainiak ez baitio pasaportetik ematen.

### Egoera larrian

"Nahikoa egoera kritikoa dago", adierazi du Asier Guridiren bikotekide Maria Diazek, GOIENAK haren egoerari buruz galdezka deitutakoan, ospitaleratzearen biharamunean. "Ez zuen itxura onik haren osasunak: nahikoa txartuta zegoen, ezin zuen hitzik egin, odola botatzen zuen gernuan, goragale handia zuen..."; eta gehitzen zuen: "Semea, ni eta familia lasaiago gaude, ospitalean dagoelako; baina ez dago arriskutik kanpo". Horrela, egoera kezka handiz bizi izaten ari direla zioen Dia-

zek, eta semeari asko eragin ziotela hilabetetik gorako gose grebaren ondorioak agerian uzten zituzten aitaren irudiek. "Semeak asko sufritzen du", zioen.

Bikotekidearen borrokaren gordintasuna ere nabarmendu du: "Politikarekin zerikusirik ez duten zenbait pertsonaren laguntza izan du, elkartasunagatik laguntza eskaini dioten pertsonena; baina, bestela, bakarrik egon da, kalean, Caracas moduko hiri batean, kalean. Egun batean jo egin zuten saketakoa kentzeko; hidratatzeko zuen ura kendu zioten... Eta hori dena gertatu da Espainiako Kontsulatuaren oinetan". Venezuelako Gobernuaren babes falta ere deitoratu du.

Diazek salatu du politikariei ez zaiela "jendearen bizitza inporta, botoa eman behar dutenean salbu", eta, horrekin batera, itxaropena agertu du Guridi ospitaletik irten eta gose grebak eragindako ondorioak ez daitezela "oso larriak" izan.

**GURIDIREN OSASUNAK "ITXURA ONIK" EZ ZUELA DIO, KEZKATUTA, MARIA DIAZ BIKOTEKIDEAK**

**COPRECI COPRECI, KOOP. E**

**2022ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkarfearen Ohiko Batzar Orokorra deitu da. Batzara **Aretxabaletan**, egingo da 2022ko maiatzaren 13an: 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrena 16:00etan, egun eta toki berean, eguneko gai-zerrenda honen arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Akta(k) onartzeari buruzko informea eta akordioa
2. Memoria irakurtzea eta onartzea
  - 2.1. 2021eko gestioari buruzko akordioa
  - 2.2. 2022ko Gestio Plana onartzea
3. 2021eko Memoria ez finantzarioa
4. 2021eko Urteko Kontuen azterketa
5. 2021eko Emaitzen banaketa
6. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak
7. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko Erregimen Ekonomikoa ataleko 35., 37. eta 43. artikuluen aldaketa
8. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko Laneko Donbora ataleko 50., 52. eta 55. artikuluen aldaketa
9. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko Eszedentziak ataleko 81., 82., 83., 84. (eta 71), 85., 86. eta 87. artikuluen aldaketa
10. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko Segurtasuna eta Higiena ataleko 90. eta 91. artikuluen aldaketa
11. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko Laneko Diziplina-Erregimena ataleko 93., 94. eta 95. artikuluen aldaketa
12. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamendua hizkuntza inklusibora aldatu eta bestelako terminoen aldaketak. Horiek l. eranskineko dokumentuan proposatutako idazkera izango dute.
13. Osagaien Dibisioa eta Fagor Taldeari buruzko txostenak
14. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak
15. Kanpoko auditoreak izendatzea
16. Zaintza Batzordea berritzea
17. Fagorreko Batzarrerako ordezkariak hautatzea
18. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Aretxabaletan, 2022ko apirilaren 28an

(\*) 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euzkadiako Kooperatibismo bere 35.7. artikuluan espeziki aurrekustutako da deialdiaren inagariaren adieraziko dela bazkide guztiek eskubideak dutela gai-zerrendari lotutako dokumentu guztiak ezarritako erabakiz onartzen, baita, izatekotan, ezarritako erabakien inagariaren ere.





San Felipe Beilatokiko harrera-gela, goian eta ezkerrean pantailak ageri direla. GOIENA

# Pertsonak eta teknologia, azken agurrak leuntzeko

Apirilaren 7an ireki zuten San Felipe beilatokia, debagoiendar guztiei zerbitzua eskaintzeko. Arrasateko erdigunean dago, eta garai berrietara egokitutako espazio eta baliabideak ditu eskura. Ojanguren hileta-enpresak darama kudeaketa

San Felipe Elkarlaguntzak –edo garai bateko Cofradia de Socorros Mutuos San Felipe Apostol elkartea– 124 urte bete ditu aurten. Urte garrantzitsua izan da 2022 hau elkartearantz; izan ere, bazkideen %72 baino gehiagoren asmoa errealitate bihurtu da. Javier Bengoa presidentek azaldu duenez, Musakolako beilatokia aldatzeko beharra sumatu zuten San Felipe Elkarlaguntzako bazkideek: "Musakolako Beilatokia zahartuta zegoen; normala, Gipuzkoako lehenengoetako bat izan zela kontuan hartuta. Bazkideak gogoz zeuden

bailarako herritar guztientzat beilatoki berri eta ireki bat egiteko".

Hala, proiektuaren asmoa merkatura zabaldu, eta hainbat hornitzaile aurkeztu ziren beilatokian zerbitzua emateko. Prezioa eta kalitatea aintzat hartuta, Ojanguren Hileta Zerbitzuak enpresa aukeratu zuen San Felipe Elkarguneak. "1965. urtetik egon izan dira gurekin. Prestakuntza eta eskarmentu handia duen taldea da, eta Debagoienean Kalitatearen Ziurtagiria duen hileta-enpresa bakarra", dio Bengoak.

**Sinesmen eta erritu guztientzat** Aurreratu bezala, San Felipe Beilatokiak eskualdean bizi diren pertsona guztiei eskaintzen die zerbitzua. "Pertsona bakoitzaren gurtza, sinesmena eta hileta-erritua edozein izanda ere, beilatokiak aukera ugari ematen ditu azken igarobidean dauden pertsonen agurra emateko", dio Bengoak.

Bide horretatik, Ojanguren hileta-enpresako Aitziber Ojanguren arduradunak azaldu du hileta zibilak egiteko –edo beste era bateko agurrak– harre-ra-gela handia dutela sarreran:

"Espazio multifuntzionalak aukera ematen du agurrak modu berezian egiteko. Gainera, bertan jarri ditugun kamera eta pantailak esker, bertaratu ezin direnek *streaming* bidez jarraitu ditzakete ekitaldiak".

Teknologia berrien erabilera beste zenbait zerbitzutarako ere baliatzen dute San Felipe Beilatokian. Adibidez, Ojanguren azaldu du zendu diren pertsonen bizitzak oroitzeko modu berezia eskaintzen dutela sinadura-liburu gisa jokatzen duten pantailak: "Familiari Interneteko lotura bat ematen zaio eta senideekin eta lagunekin elkarbanatzeko aukera dute. Lotura horretan argazkiak eta mezuak sar ditzakete guztiek, pertsona hori oroitzeko eta gertukoie doluminak emateko".

## Espazio atsegina eta hurbila

Espazio argiak eta zuriak aukeratu dituzte beilatokiaren barrualdea diseinatzeko, eta materialari dagokionez, egurra izan da hautatu dutena. "Goxoa da, argitsua, modernoa, eta horrek ematen dio bereizgarritasuna. Ez genituen nahi beste leku batzuetan dauden panteoiak eta espazio goibelak", dio Aitziber Ojanguren arduradunak.

Beilatzeko hiru gela ditu, harrerera-gela handia, bulegoa eta komunak. Bestetik, nabarmendu dute lan guztiak bertako langileek egin dituztela.

Emaitzarekin pozik agertu da Bengoa ere: "Uste dut lortu dugula beilatoki atsegin egitea. Espazioak berak eta bertan dauden xehetasunek –Iñigo Arregiren artelanek, adibidez– laguntzen dute".

Kokapenari dagokionez, San Felipeko bazkideen nahia bete dela azaldu du presidentek:

"Herriaren erdigunean dago; elizak ere erdigunean daude, eta baita aparkalekuak eta autobus geltokia ere...".

## Kalitatearen erakusle

Aurreratu bezala, Kalitatearen Ziurtagiriak ditu Ojanguren Hileta Zerbitzuak; ziurtagiriak dituen Debagoieneko hileta-enpresa bakarra da. "Urtero audiotoretza batzuk egin behar ditugu, zigiluak berritzeko. Guk ematen dugun zerbitzuaren kalitatea adierazten dute".


Hilabete egin du San Felipe Beilatokiak arreta eskaintzen, eta, momentura arte egin duten balorazioaren arabera, bertatik igaro diren familiak "pozik" geratu dira. "Espazioa eta zerbitzua gustatu zaie. Espero dugu dena ondo joatea hemendik aurrera ere", dio Ojangurenek.

## "USTE DUT LORTU DUGULA BEILATOKI ATSEGINA EGITEA; MODERNOA ETA GOXOA DA"



JAVIER  
BEGOA  
SAN FELIPE  
ELKARLAGUNTZA

## "HARRERAKO ESPAZIO MULTIFUNTZIONALAK AUKERA EMATEN DU AGURRAK MODU BEREZIAN EGITEKO"



AITZIBER  
OJANGUREN  
OJANGUREN HILETA  
ZERBITZUAK

**SAN FELIPE**  
BEILATOKIA

BERRIA EROSOA MODERNOA

943 79 16 82

Ignacio Zuloaga 2. • Arrasate

Debagoiendar  
guztiondako zerbitzua

1898ko  
DEBAGOIENKO  
EKARLAGUNTZA

**SAN FELIPE**  
ELKARLAGUNTZA

**Ojanbouren**  
funeraria - ehorztebrea







Bergarako Elortzabolua baserriko Amaia Zabaleta, asteon, errotaren ondoan. XABI URZELAI



Bergarako Narbaizabolua baserriko Mari Karmen Unamuno eta haren seme Jesus Agirre. XABI URZELAI

# Bizimodu agortu baten lekukoak

Lehen aldiz antolatu duten Gipuzkoako Erroten Eguren barruan, bisita gidatuak izango dira Bergaran, Antzuolan, Oñatin eta Eskoriatzan; errota edo bolu haien "garrantzi historikoari, teknologikoari, antropologikoari eta etnografikoari" balioa eman nahi diote

## Jokin Bereziartua BERGARA

Ihurrita Errota elkartearen ekimenez eta Gipuzkoako hainbat elkarteren, erakunderen eta eragileren laguntzarekin, Errota Eguna ospatuko da domekan. Errotek lurraldearen historian izan zuten garrantziari balioa ematea du helburu ekimenak. Izan ere, errotek bertako ondare historikoaren, teknologikoaren, antropologikoaren eta etnografikoaren parte dira, eta mende askotan zehar garrantzi handia izan dute Gipuzkoako eta Debagoieneko garapen sozialean, ekonomikoan eta industrialean.

## Antzuolakoa martxan, atzo

Lurraldearen orografiari eta klima euritsuari esker, errotaren industria garatu zen, mendeetan zehar energia hidraulikoa baliatzen zuten-eta komunitateari zerbitzua ematen zion hainbat zereal mota ehotzeko. Zerrategi moduan ere erabili ziren asko, eta argindarra ere eraman zen lehen aldiz leku askotara errota horiei esker. Debagoienean, Ber-

gara, Oñati, Eskoriatza eta Antzuola batu dira Erroten Eguna; domekakoa izango da egun indartsuena ekitaldiei dagokienez, baina aste osoan izan dira ekitaldiak lau herri horietan. Atzo, adibidez, herritar talde batendako bisita gidatua egin zuten Antzuolako Akiñabei errotara –bihar eta etzi ere egongo da bisitatzeko aukera; azalpenak eman ostean, errota martxan jarri zuten Joxe Mari Iturbek, bertaratu zirenen gozamenerako.

## Bergara, errota gehien zituena

Iraganaren parte dira errotek. Esan gabe doa gaur egungo panoramak ez duela zerikusirik duela mende batzuetako egoerarekin, ezta Antxon Agirre Sorondok 1988an kaleratutako

## "UR MAILA JAITSI ZELAKO GELDITU ZEN ERROTA; 12 EDO 13 URTE IZANGO NITUEN"

JESUS AGIRRE, NARBAIZABOLUA ERROTA

*Tratado de molinología* liburuan bildutako 600 errota baino gehiagorekin ere. Hain zuzen, 2000ko urtarrilaren 21ean argitaratutako *Berrigara* aldizkariak kaleratutako gehigarri berezi batean zehazten denez, 661 errota izan ziren Gipuzkoan, eta 41 Bergaran. Iraganeko garrantzi ekonomikoa galduta, errotek ondare balio berria hartu dute, eta, Debagoienara etorrira, Bergara izan zen errota gehien izan zituen herria; Bergaran errotei *bolu* esaten zaie –herriko auzo populatuena den Bolua auzoak errota zuen izen bereko baserri batetik hartu zuen izena–. *Bergarako errotek* izeneko liburua prestatzen diharduen eta martitzenean hitzaldi interesgarria egin zuten Patxi Larrañagaren arabera, 40 errota edo bolu izan ziren Bergaran garai batean. 41 edo 40 izan, Larrañagak hitzaldian azpimarratu zuen ideietako bat honako hau izan zen: "Askotariko erabilerak zituzten errotek, baina imajinatu zenbat garo eta arto egongo zen Berga-

ran eta inguruetan 40 errotari jaten emateko...".

## Erroten bueltako istorioak

Gaur egun martxan ez dauden arren, Bergarako errota ikusgarrienen artean dauden Narbaizabolua eta Elortzabolua errote-tara bisita gidatuak egingo dituzte bihar, 11:00etan eta 12:00etan. Txanda bakoitzeko hamar lagun onartu dituzte eta bi txandak beteta daude dagoeneko, interesa piztu duen seinale.

Narbaizaboluko Jesus Agirrek gogoan du umetan errota martxan ikusi izan zuela: "12-13 urte nituenean gelditu zen errotaren aktibitatea, baina oso oroitzapen onak ditut; kaletik gure baserriara etortzen ziren lehengusuak harrituta geratzen ziren errotarekin, eta gogoan dut irin-askan aritzen ginela jolasten. Errotek funtzionatzeari utzi zion, Bergarako ur depositurako atzemate edo kaptazio bat egin zenean ur maila asko jaitsi zelako; kontatu didatenez, ordaindu zizkiguten kalte-ordainak, baina ordutik ez dago ur nahikorik errota martxan jartzeko".

Elortzabolua baserriko errota ere aspaldi ez da martxan jarri, Amaia Zabaletaren arabera. "Laga zen moduan dugu errota. Halako ondare bat errespetuz kontserbatu behar dela transmititu ziguten gure aurrekoek... Zenbat istorio entzun ditugun

## "LAGA ZEN MODUAN DUGU; KONTSERBATU BEHARREKO ONDAREA DA ETXeko ERROTA"

AMAIA ZABALETA, ELORTZABOLUA ERROTA

errotez, esaterako, gerraosteko goseterako ze garrantziak izan ziren argitzen dutenak". Anekdotak horietako bat kontatu dio Zabaletak GOIENARI: "Gerraosteko errazionamendu garaian, gosetea gordina zenean, baserriar batzuek ez zituzten Estatuaren aurrean zaku batzuk deklaratzeko –ez zutelako besterik– eta gordeta izaten zituzten errotara eroan bitartean. Halako batean, Estatuako buruzagi bat etorri zen errotek ikuskatzera, bezperan ofizialki kontabilizatzen ez ziren zaku asko ekarri zituztela; kontatu didatenez, legez kanpoko zakuren bat edo beste topatu zuten, baina ez zen isunik izan; hori bai, halakoetan sekulako beldurra pasatzen zuten".

Begarako egitaraua ez da biharko bisita gidatuekin bukatuko; izan ere, domekan ibilaldi zirkular bat egingo dute Angiozarren, Angiozar errekarren bueltan dauden errotek bisitatu dituzte eta.

## Oñati eta Eskoriatza ere, barruan

Oñati eta Eskoriatza ere batu dira Erroten Eguneko ekitaldietara. Oñatin, esaterako, Turismo Bulegotik sustatuta, San Migel errotara egingo dute bisita gidatua etzi (11:00); lekuri balago [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus) helbide elektronikora idatzi beharra dago, edo 943 78 34 53 telefono zenbakira deitu. Eskoriatzan umeen-dako tailerrak izango dituzte, Elorretako errotaren kanpoaldean, etzi, 12:00etatik 14:00etara. Gero, errota bera ezagutzeko bisita ere egongo da, helduendako, 12:30ean –euskaraz– eta 13:00etan –gaztelaraz–.



## EKINTZAILAZA GARAIA



Pertsonen Berrikuntza Hilabetea da maiatza PTGaraian. GARAIA

## Garaia Parkean, Berrikuntza Pertsonen Kudeaketan

Maiatzean, asteartero, PTGaraiak enpresei eta gizarteari proposamen desberdin bat eskaintzen die

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE  
Randstad-en azken txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak %7ko absentismo tasa izan zuen 2021ean, Espainiako batez bestekoa baino puntu eta erdi gehiago. 2022ko martxoaren 10ean, Europako Parlamentuak Europar Batasunaren esparru estrategiko berri bati buruzko txostena onartu zuen, 2020tik aurrerako laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan. Bertan, dei berezia egiten zaio lantokietako arrisku psikosozialen tratamenduari. Era berean, frogatu da ziurgabetasun-maila handiekin bizitzea estresaren ondorio fisiologiko eta psikologiko negatiboen agertzearen probabilitate handiagoarekin eta antsietate, depresio eta bizi-kalitate txikiagoarekin lotzen dela (Arce, 2012; Stuckler eta Basu, 2013).

Gizarteak eta pertsonok behar berriak ditugu? Arazo desberdinak jasaten ditugu? Eta enpresek arazo eta behar berriak al dituzte azken urte hauetan? Pertsonak kudeatzeko eran prozedura berriak diseinatu eta aplikatu behar al dira?

**Kultura bortitza erakundeetan**

Aste honetan *Kultura bortitza eta oldarkortasuna erakundeetan* gaiarekin hasi dugu Berrikuntza Pertsonen Kudeaketan 2022ko hitzaldien zikloa, PTGaraian. Ordezkarri bezala In Group enpresatik Nieves Barahona izan dugu. Marshall Rosenberg psikologo estatubatuarren indarkeriarik gabeko komunikazioa

aurkeztu du tresna gisa, arazo hau kudeatzeko. Kultura bortitza aipatzen dugunean, seguruenik gurean ez dagoela pentsa genezake, baina badira mikroindarkeriak gure egunerokotasunean, batzuetan kontuan ez ditugunak edo normalizat eman ohi ditugunak.

Indarkeriako jokaerari dagokionez, nabariak izan ala ez, lau arlo ditugu lantzeko: juizioa, emozioak, beharrak eta eskakizunak. Eta kontuan izan beharreko hitza *ardura* litzateke. Batetik, gure ardurapean dagoelako jokaera horiek gudan ekiditea. Bestetik, norbaitek gurekiko harremanean era bortitzean tratatzen gaituenean, gure erantzunaren eta jarreraren ardura gudan dagoelako. Azkenik, jarrerara bortitz baten testigu garenean, horretan ere geure burua nola kokatu, zer egin edo zer ez egin, gure ardurapean dagoelako. Ahots askok diote indarkeria erabiltzen dutenek bakarrik dutela horretan zer esana, baina ardura gizarte osoarena da eta ondorioak ere gizarte osoak jasaten ditu. Era zuzenean edo zeharka. Aldaketak gero eta biziagoak dira eta aldaketa horietara egokitzekeo tresna berriak behar ditugu.

## "EZAGUTZA PARTEKATZEKO GUNE IREKIA ESKAITZEN DIE GARAIAK ENPRESEI"

## Maiatzaren Lehena, kalean

*Krisi kapitalista garaian sozialismoa eraikitzen* izenpean manifestazioa egin zuten Arrasaten, domekan, Langileen Nazioarteko Egunean, Kontseilu Sozialista Deba Bailararen deiarri erantzunez. Adierazi zuten langile klaseko kideak direla "krisialdiaren ondorioak" pairatzen ari direnak, eta azken hilabeteetako prezioen gorakada salatu zuten.



GOIENA



## Gure ikasleen ahotan



## "LEINN hautatu nuen, nota bat baino gehiago beste trebetasun batzuk baloratzen direlako"

**Ane Davila (22 urte, Eibar) Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza LEINN graduko laugarren maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, Oñatiko campusean.**

### Non egin dituzu ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Eibarren Iturburu ikastolan, Mogel Isasi BHI eta Eibar-Ermua Unibertsitatean ikasia naiz. Gimnasia erritmikoa, trikitia, futbola, irakurtzea, idaztea eta musika dira nire zaletasunak.

### Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Kuriositate mugitzen naiz eta sortzea asko gustatzen zait. Horregatik hautatu nuen LEINN, nota bat baino gehiago beste trebetasun batzuk baloratzen direlako. Gainera, bidaiatzeko, gauza berri mordo bat ikusi eta probatzeko balio izan dit, neure burutik hasita gauzak aldatzeko eta era honetan bizitzan zer eta zer ez nahi dudana jakiteko.

**Nola baloratuko zenuke ikasteko metodologia?**  
Talde-lanean aritzeko metodologiak norbere burua ezagutzeko aukera handia ematen du eta gehien gustatzen zaidana proba-erretetik ikasi ahal izatea da. Horrez gain, norbere prozesua taldearekin batera diseinatu ahal izatea asko eskertzen dut.

### Lehen egunetik enpresa bat sortu eta proiektuak garatu: nola lortzen da hori?

Hasieran, ez da erraza hutsetik proiektu berri bat hastea. Horregatik, garrantzitsua da inguruan sortzen duzun sarea.

### Zer proiektu mota garatu dituzue?

Bat BASH proiektua da; dibertsitate funtzionala duten gazteentzat sormen eta mugimendu

tailerrak garatzen ditut, nire taldekide Irene Aguriondorekin batera. Gipuzkoan hainbat kirol eta hezkuntza programa antolatu ditugu, ahalduz eta askatasuna lantzeko. Bestea Mujeres de la Luna komunitatea da, non Guatemalako emakume ekintzaileen proiektuak bultzatzen ditugun, burujabetza eta formakuntza jaso dezaten. Orain, No Voluntariado programa eskaintzen ari gara, hemengo gazte nahiz heldu inkonformistek uztailen Santa Cruz bisitatu dezaten. Nire asmoa nabilen proiektuak zaindu eta nire kontu lan egitea da, enpresa sozial erregeneratiboan modelo defendatu nahi dut, bidaiatu eta nire etorkizunaren jabe izan.





Xabier Barrutia arkitektoaren hitzaldia, Goienagusik antolatuta. TXOMIN MADINA

## Maiatzeko ekintza sorta abiarazi du Goienagusik elkarteak

Hilaren 30erako iragarri dute urteko batzar orokorra; Amaia antzokian egingo dute, 10:00etan

**Larraitx Zeberio Lekuona** ARRASATE Urri hasieran eman zioten hasiera ikasturteari eta ordutik makina bat hitzaldi, irteera eta tailer egin dute Arrasaten eta Bergaran. Maiatzeko ekitaldien berri eman dute, eta aurreko

egunotan, zainketa aringarriak, hizkuntza eta elebitasuna zahartzaroan eta euskal baleontziak izan dituzte hizpide. Maiatza bukatu aurretik, beste bost hitzaldi, irteera bat eta batzar nagusia izango dituzte.

Goienagusiko bazkide izan beharra dago jardueretan parte hartzeko. 55 urtetik gorakoendako elkarte da, izan debagoiendarra edo ez, eta orain, urteko edozein sasoiatan egin daiteke bazkide. Urteko kuota 80 euro da.

Hamar urteko ibilbidea bete du aurten elkarteak. Poliki-poliki, pandemia aurreko parte hartze kopuruetara itzuli dira, eta berreskuratu egin dituzte aisialdiarekin lotutako jarduerak ere; adibidez, irteerak.




**ULMA Agricola, S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA**

Eguna: 2022ko maiatzaren 13a  
 Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena  
 Lekua: ULMA Taldeko Auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRISTEA HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
  - 4.1 2021eko ekitaldiako Urteko Banakako Kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
  - 4.2 2021eko ekitaldiako Urteko Kontu Bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2021EKO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETA ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOA, ALDATZEA
9. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARRIN ATALA SARTZEA, ETA 65.BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSERA EGOZTEKO MUGA MARGUTZEARI DAGOZKION
10. HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALI EI ISLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA. ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE
11. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
  - 11.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua
  - 11.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
  - 11.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eratuako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 11.4 ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jarduera sozialaren ildoan azalpena
12. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
13. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
15. AHALMENAK ESKUORDETZEA
16. GALDE-ESKEAK

**OHARRAK:** Bazkidei gogoratuza zire Kooperatibaren egoitza eta inbentarioa ekoizgarri dituzela urteko kontuak, emateko aplikatzeko proposamena eta kontuak kargu itzarkitza egindako postu txostena, Batzar Nagusiaren deialdian zehar sartu behar izan dituzten. Halaber, bazkide guztiak jakinarazten zire Kooperatibaren egoitza eta inbentarioa dituzela ekoizgarri Estatuaren, Kooperatibaren Barne Araudian eta POGU IIIan proposatutako aldiaren testu osoa eta aldiaketa horien justifikazio txostena, eta horiek denak dusa emaniko edo behar izan ez dezakela.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2022ko apirilaren 29a




**ULMA Hormigon Polimero, S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA**

Eguna: 2022ko maiatzaren 13a  
 Ordua: 08:30ean lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena  
 Lekua: R.M. Zuazola Institutuko aretoa - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRISTEA HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
  - 4.1 2021eko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
  - 4.2 2021eko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2021EKO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETA ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOA, ALDATZEA
9. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARRIN ATALA SARTZEA, ETA 65.BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSERA EGOZTEKO MUGA MARGUTZEARI DAGOZKION
10. HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALI EI ISLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA. ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE
11. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
  - 11.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua
  - 11.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
  - 11.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eratuako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 11.4 ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jarduera sozialaren ildoan azalpena
12. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
13. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
14. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
16. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
17. AHALMENAK ESKUORDETZEA
18. GALDE-ESKEAK

**OHARRAK:** Bazkidei gogoratuza zire Kooperatibaren egoitza ekoizgarri dituzela urteko kontuak, emateko aplikatzeko proposamena eta kontuak kargu itzarkitza egindako postu txostena, Batzar Nagusiaren deialdian zehar sartu behar izan dituzten. Halaber, bazkide guztiak jakinarazten zire Kooperatibaren egoitza eta inbentarioa dituzela ekoizgarri Estatuaren, Kooperatibaren Barne Araudian eta POGU IIIan proposatutako aldiaren testu osoa eta aldiaketa horien justifikazio txostena, eta horiek denak dusa emaniko edo behar izan ez dezakela.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2022ko apirilaren 29a

## Egitaraua

### Maiatzak 9, astelehena

- **10:00** *El boom latinoamericano (I)*. Jose Domingo, Filosofian eta Psikologian lizentziatua. Kulturaten.

### Maiatzak 11, eguaztena

- **10:00** *Arantzazulab. Egungo gizarte erronkei erantzuna emateko ikuspegiak: lankidetzako gobernantza eredu berriak*. Naiara Goia, Arantzazulab-eko zuzendari nagusia. Kulturaten.

### Maiatzak 16, astelehena

- **10:00** *Sukaldaritza, etxetik atzeriraino. Zer aurkitu eta ikasi dugu bidean?* Dani Lasa, Mugaritz jatetxeiko I+D eta sorkuntzako zuzendari ohia. Kulturaten.

### Maiatzak 18, eguaztena

- **10:00** Irteera Baionara.

### Maiatzak 23, astelehena

- **10:00** *El boom latinoamericano (II)*. Jose Domingo. Kulturaten.

### Maiatzak 25, eguaztena

- **10:00** *Larruaren kodea*. Miren Agur Meabe. Kulturaten.

### Maiatzak 30, astelehena

- **10:00** Batzar nagusia. Amaia antzokian.



## D2030: ELKARRIZKETA

**Miren Arregi** ARRASATE

60 urtetik gorako esperientziarekin, LagunAro EPSV bazkide kooperatibistentzat sortutako gizarte babeserako sistema bat da. Gizarte eraldaketari erabat loturik, une honetan, etorkizuneko erronkei erantzuteko norabidea argi du erakundeak: euskara, berdintasuna eta jasangarritasun ekologikoa. **Eraldaketa soziala LagunAroren DNA dagoen kontzeptua da, baina zergatik kooperatibistei babes soziala eskaintzera bideratutako erakunde bat eraldaketa sozialari lotu?**

LagunAroren xedea mutualistek, pentsiodunek eta kooperatibek dituzten beharretara egokitzea den heinean, ezinbestekoa ikusten dugu eskaintzen ditugun prestazio edota zerbitzu guztiak eraldaketa sozialaren oinarriekin lotzea, bilatu nahi dugun ongizate maila lortzera lagunduz.

**Zein izan da gizarteari eginiko ekarpen horretan bilakaera?**

LagunAroren historia gizartearen izan diren aldaketei guztiz lotuta egon da beti. Izan ere, LagunAro 1959an sortu zen, garai hartako kooperatibista sistema publikoaren inolako babes sozialik gabe geratu zirelako. Handik aurrera, sistema bera egokitzea behartu duten zenbait gertaera historiko esanguratsu bizi izan ditugu; adibidez, 1983an gertatu zen Talde Kooperatiboaren lehen enplegu krisia. Egoera hartatik, Enplegurako Laguntzaren prestazioa ezarri zen, ordutik hona hainbeste egoeratan lagundu izan diguna.

**Une honetako eta hasierako beharrak desberdinak dira?**

Funtsean berberak izaten jarraitzen dutela esango nuke, baina, aro berri honen aurrean, orain arte erabilitako ereduak berrasmatzeko garaia heldu dela uste dut.

**Zer ematen dio eraldaketa sozialak zuen erakundeari?**

Nire ustez, eraldaketa sozialak norabidea markatzen digu, gizartearen erronkak ezagutzeko eta gure kolektiboaren ardurak entzunez.

# "Debagoienak badu erronkei elkarlanetik eta modu berritzailean erantzuteko kultura bat"

**MAIDER BITERI** LAGUNAROKO PERTSONEN SAILEKO ZUZENDARIA

Egiteko moduetan eta helburuetan –Garapen Jasangarriko Helburuak– lerrokaturik, Debagoiena 2030ek eta LagunArok elkarlanean aritzeko oinarriak finkatuak dituzte



Maider Biteri, Arrasateko LagunAroren egoitzan. LAGUN ARO

**Une honetan, Oreka 2030 plangintzarekin norabidea argi du estrategia horrek. Zein dira gako nagusiak?**

Oreka 2030 kooperatiba mailan martxan jarri dugun ekimena da, 2030

Agendarekin, Debagoiena 2030ekin eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin (ODS) lerrokatuta dagoena. Plangintza horren gakoak, momentuz, hiru dira: euskara, berdintasuna eta

jasangarritasun ekologikoa, hain zuzen ere.

**Besteak beste, Arrasateko eraikin jasangarriago bilakatzeko asmoa duzue. Zertan da hori?**

LagunAroren egoitza deskarbonizatze proiektua martxan jarri genuen iaz. Izan ere, Estatu mailan atmosferara botatzen den karbono dioxidoaren herena baino gehiago eraikinak bizigarri egiteko beharretik datorrela kontuan izan behar dugu. Hori dela eta, eraikinak eraginkorrago eta ekologikoago bihurtzea ezinbestekoa da deskarbonizatze dugun helburua bete dezagun. Gure kasuan, eraikina berritzeko kontuan izan ditugunak hauek izan dira: fatxaden eta estalkien isolamendua, energia berriztagarrien erabilpena –Laboral Kutxako biomasa galdarara gehituz eta eguzki-panelak instalatuz–, beira bikoitzeko leiho zabalak, zigilatutako markoekin eta zubi termikoaren hausturarekin, ibilgailuak kargatzeko eta aparkatzeko guneak, barneko ingurumen-kalitatea eta eraikinaren irisgarritasuna, besteak beste. **Gizarte eta gizartearekiko konpromisoa ulertzeko modua partekatzen duzue D2030ekin. Nola baloratzen duzu ekimenaren sorrera eta lana?**

Ezinbestekotzat baloratzen dut. Debagoiena moduko lurralde baten iraunkortasun trantsizioa bertako eragile

publiko, ekonomiko eta sozialak elkarlanean jarriz eta elkarren artean konektatuz egitea, planteamendu guztiz ausarta eta berritzaile iruditzen zait.

**Elkarlanean aritzeko oinarriak ere finkatu dituzue bi erakundeek.****Nola elikatu dezakezue elkar?**

Kooperatiba mailan egin ditzakegunetatik haratago, LagunAro EPSV lotura zuzena du Debagoiena 2030ek ezarritako eremu batekin, alegia, lanaren etorkizunarekin.

Digitalizazioak, egungo negozioen balio erantsia handitzeko beharrak eta trantsizio berdeak, erronka potoloak ekarriko dizkigu. Hortaz, kalitatezko enpleguan oinarritutako lanaren bitartez gizarte eraldatzen jarraitu ahal izateko, enplegarritasuna eta birkualifikazioa lantzea oinarritzeko ikusten dugu.

**Zelan ikusten duzu Debagoieneko jendartea, erakundeak, kooperatibak... aurrean ditugun erronkei erantzuteko gaitasunari dagokionez?**

Aurretik aipatu dudan moduan, datozen urteetan izango ditugun erronka handietara egokitzea D2030 ekimenak planteatzen duen eredu ausarta eta berritzaile da. Ez da edonon planteatzeko modukoa. Debagoienak, haren komunitateak, badu tradizio bat, kultura bat, gizarteak dituen behar eta erronkei elkarlanetik, eredu berritzaileen bidez, erantzuteko. Beraz, zalantzarik gabe, toki ezin aproposagoa da D2030 ekimena aurrera ateratzeko.

**"ERAIKINAK ERAGINKORRAGO ETA EKOLOGIKOAGO BIHURTZEA EZINBESTEKOA DA"**

**"KALITATEZKO LANAREKIN GIZARTEA ERALDATZEN JARRAITU BEHAR DUGU"**





ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

## Baratze bat nahi deizüt egin

Aitak behin esan zidan: "Urtzi, bizitzan eukiko dittuan lagun eta pertsona danak ortu baten tankerakuek die, zinddu". Nire gaztetasunean, egia esan, momentu hartan ez nuen oso ondo ulertu. Baratzeri, joan ere, gutxitan joaten bainintzen.

Kontua da nerabegaroko garaia zela eta lagun arteko ohiko liskar txikiren bat izan genuela; hortik, aitaren esaldia. Nahiz eta buruarekin baiezkoa eman, ez zitzaidan oso argi geratu. Baina urteek esaldi hori ulertu eta garatzeko aukera eman didate.

Denok daukagu ortu edo baratze bat, pertsona orok. Tokian tokiko bizitzak bat emango dizu. Nire kasuan, baratzean lanean hasi aurretik, bi zuhaitz mardul eta beste txikitxo bat nituen jada bertan, babesa emateko –aita, ama eta anaia–.

### OSO GOGOKO EZ NITUENAK ERE BAZEUDEN, BAINA HAIK ERE ZAITZEN SAIAITZEN NINTZEN

Hasieran, Lore, Barazki eta zuhaixka pilo bat izan nituen, ez nekizkien ia izenak ere, batzuk politikak, beste batzuk handiak, koloretsuak... Denetarik neukan. Denbora aurrera joan ahala, baratzea geroz eta handiago bihurtu zen.

Gauza batzuk desagertu eta berriz agertzen ziren. Oso gogoko ez nituenak ere bazeuden, baina haiek ere zaitzen saiatzen nintzen, akaso, egunen baten beraien beharra ere izango nuelako.

Urteak aurrera joan ahala, beste hiru zuhaitz landatu nituen, garrantzitsuenak, betirako nahi nituelako.

Orain, harro nago daukadan ortuarekin, ahalik eta gehien zaitzen saiatzen naiz, badakidalako baratze aberats eta zaindu bat ez badaukadala nireak egin duela eta nire pertsonalitatearen zati garrantzitsu bat dela.

Baina kontuz baratze handi eta ikaragarriekin; ortuan denbora larregi pasatuz gero, norbera ahaztu eta estresak jota bukatu zenezake, besteei denbora gehiegi eskaintzearen.

Pier Paul Berzaizen kanta: *Baratze bat*. Niretzat, ahal den eta baratze gehienetan egon eta zurean lan asko egin!

Oh.: ene lagun Javi eta Oilasko, *afai pasadie* noizko?

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Dekolonizatu gaitezen!

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

1. *Gutun zuria* literatura jaialdiko solasaldi bat moderatu dut. Gonbidatuak Elvira Dyangane Osa – MACBA museoko zuzendaria – eta Tania Safura Adam –Radio Africa Magazine hedabidearen sustatzailea– ziren; arte komisario gisa eskarmentu handia dute biek. Elkarrizketaren ildo nagusiak bidali nizekin alde aurretik: tartean, apropiazio kulturala, interseksionalitatea, afrofeminismoa. Haien erantzuna: "Saihestu ditzagun, arren, betiko gramatikak. Abiatu gaitezen gure biografia

eta ibilbide zehatzetatik". Ulertu dut edozein plazandre beltzi egingo niokeen galdetegi prestatu dudala.

2. *Emakumeak eta hedabideak* jardunaldia Euskal Herriko Unibertsitatean. Irakasle batek ikerketa aurkeztu du: adineko emakumeak kazetaritzan eta publizitatean. Powerpointean agertu diren pertsona guztiak zuriak dira. Hizlariak ez du ezaugarri horri buruzko iruzkinik egin; aitzitik, galderen txandan, Hego Amerikako hazpegiak dituen neska batek galdetu dio badagoen adineko emakume arrazializatuak buruzko ikerketarik. Ez dituela ezagutzen erantzun du

irakasleak. Ikasleen artean egon badago pantailan ageri ez den aniztasuna.

3. Jardunaldi horretan, *El país* egunkariko genero-korrespondentzari galdetu diot indarkeria matxistari buruz berri ematerakoan erasotzailearen zein erasotzailearen nazionalitatea aipatzeari buruz. Esan du zenbait albistetan nazionalitateak informazio esanguratsua eman dezakeela, herrialde txirotuenetan eskubide urraketa handiagoak gertatzen direlako eta, hortaz, matxismoa krudelagoa delako. Agian, ez daki guraso etorkinak dituzten umeez haien nazionalitatea hartzen dutela, Espainian... (...)

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martineze de Arenaza,  
Edure Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI

# "Komunikazio Campusean oso ondo pasa zuten iaz"

UNAI PORTILLA MU-KO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO IRAKASLEA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE Komunikazio Campusa antolatu dute, bigarrenenez, Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak. Uztaileko lehen bi asteetan egingo da, Aretxabaletan. Izen-ematea zabalik da. Xehetasunak eman ditu udalekuetako koordinatzaile eta MUKo irakasle Unai Portillak. **Bigarrenenez egingo duzue Komunikazio Campusa aurtengo udan.**

Iaz egin genuen lehenekoz eta oso emaitza ona lortu genuen. Parte hartu zuten gazte guztiek nabarmendu zuten oso campus dinamiko, parte hartzaile eta dibertigarria izan zela. Oso ondo pasatu zutela. MUK eta Goienak elkarrekin, bien arteko sinergiak aprobetxatuz, eskaintza erakargarria aurkez dezakegula uste dugu. **Nori zuzenduta dago?** DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteei; 15, 16 eta 17 urtekoei.



Unai Portilla, MUKo Aretxabaletako campusean. IMANOL BELOKI

## Zer egin ahalko da Komunikazio Campusean?

Komunikatzaile izateko beharrezkoak izan daitezkeen gaitasunak lantzeko aukera izango dute gazteek. Kamera aurrean aritzeko gako batzuk

ikas; eskuko telefonoarekin egin daitezkeen irudien grabaketa eta edizio lanak egin; argazki bidezko kazetari lanetan aritu; podcastak grabatu... Hori guztia, modu dibertigarrian, ezin baitugu

ahaztu udalekuak direla eta ondo pasatzera datozela gazteak. **Komunikazioan adituak direnek hartuko dute parte. Nortzuek?** Ainhoa Vitoria Gazteako esataria, Alex Padilla sare sozialetan aditua eta Xabier Urzelai Goienako kazetaria izango ditugu, bakoitza egun banatan. Horretaz gain, Mondragon Unibertsitateko eta Goienako profesional bana ariko dira begirale eta koordinazio lanetan.

## Bi txanda antolatu dituzue, ezta?

Bai, uztaileko lehen bi asteetan, lehen eta bigarren asteetan: uztailaren 4tik 8ra eta uztailaren 11tik 15era. Astelehenetik ostiralera, goiz partean: 09:00-13:30. Tartean, atsedenerako unea hartuta, hamaiketako ere bertan, MUKo Aretxabaletako campusean, eskainiko zaie parte hartzaileei. Gehienez ere, hamabost laguneko txandak antolatu nahiko genituzke.

## Izena emateko ze egin behar da?

*Goiena.eus*-en bada gune bat **Komunikazio Udalekuak** izenekoa eta hor dago informazio guztia eta baita izena emateko formularioa ere. Zalantzak argitzeko edo informazio gehiagorako, 600 02 27 20 zembakira deitu edo idatz daiteke -Whatsapp eta

Telegram-, eta helbide honetara ere idatz daiteke: *komunikaziocampusa@mondragon.edu*.

## Noiz arte eman daiteke izena?

Ekainaren 17ra arte, eta prezioa 125 euro da. **Euskal Herri osora zabaldu duzue campusa...**

Mondragon Unibertsitatearen Ikus-entzunezko Campusa erreferentzia da komunikazioan Euskal Herrian, eta, era berean, Goiena Komunikazio Taldea, tokiko hedabideen artean. Debagoienean bagaude ere, edozein euskal herritar euskaldunendako izan daitezke erakargarriak udaleku hauek.

## Baliabideak zuek jarriko dituzue?

Bai. Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako Campusean zein Goienaren egoitzan, Arrasaten, badugu komunikatzaile lanetan aritzeko material profesionala: bideo-ediziorako ekipoak, kamerak, telebistako platoak, irrati estudioak... Udalekuak Aretxabaletako MUKo Ikus-entzunezko Campusean egingo dira, baina Goienara bisita ere egingo dugu. Aukera izango dugu erredakzioa edota telebistako platoa bertatik bertara ikusteko.

## ITURRI ONETIK

### Jose Maria Arizmendiarieta, argazkitan

Jose Maria Arizmendiarietaren 38 argazkiz osatutako erakusketa egongo da Arrasateko Etxaluze Gizarte Zentroan, maiatzaren 21etik ekainaren 6ra arte. Jose Maria Ormaetxeak egindako iruzkin originalak ere izango dituzte. Erakusketarekin batera, bi hitzaldi antolatuko dituzte: haren pentsamendu eta bizi-bideari buruzkoa, Jose Mari Larramendik emana; eta Copreciren sorrerari buruzkoa, Pedro Mendietaren eta Josemari Ortubairen eskutik.

## ALBISTE IZAN ZEN

2005-05-01

### Aloñako Igoera ikusgarria, lehen urtean ere bai

Aloñako Igoeraren XVII. edizioa jokatu zen domekan. Malen Osa oñatiarra - bigarren aldiz txapela- eta Walter Becerra sestaarra - seigarren garaipena- izan ziren azkarrenak Oñatiko Foruen plazako helmugan. 2005ean jokatu zen lehen edizioa; hura ere, ikusgarria. Ionut Zinca eta Alicia Olazabal izan ziren garaile. 270 antxintxikalarik hartu zuten parte; 59 debagoiendarrek -Joxe Mendiola izan zen azkarrena-



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### Pegasus eta espioitza aurrera eta atzera

Eskuko telefonoen bidez espioitzeko Pegasus sistema izan da hizpide asteon:

@MJauregiLasa: "Ze lotsa #Pegasus".

@criaturina: "Arre, Pegasus, arre!".

@ezetzpa: "Informazioa boterea da, beraz... Espioitza ez da mende honetan asmatu #Pegasus".

@GoizaldeL: "Espioitza kontuak adar luzeak ditu #Pegasus".

@anamilan: "Pegasus, hau irakurtzen ari bazara, ekariezadazu ogia" (itzulita).


@unaiapaolaza: "PSOE zuritzen jarraitzeak ez du inongo zentzurik".



## Bidegorri sarearen mapa

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

	EGINDAKO OINARRIZKO FORU SAREA
	PLANIFIKATUTAKO OINARRIZKO FORU SAREA
	EGINDAKO OINARRIZKO UDAL SAREA
	PLANIFIKATUTAKO OINARRIZKO UDAL SAREA
	PLANIFIKATUTAKO OINARRIZKO UDAL SAREA
	BIZIKLETENTZAKO BERARIAZKO BIDEA
	BIZIKLETEK ETA OINEZKOEK PARTEKATUTAKO BIDE MUGATUA
	BIZIKLETEK ETA OINEZKOEK PARTEKATUTAKO BIDE MUGATUA
	AUTOEK ETA OINEZKOEK PARTEKATUTAKO BIDEA
	OINEZKOENDAKO BIZIKIDETZA KALEA
	EGITEN ARI DIREN BIDEGORRI ZATIA



# Arrasateko erdiguneko bidegorri sarearen %30 dago eginda orain arte

Lehendik Gernika ibilbidea eta beste bide batzuk ere bazeuden arren, 2015ean hasi ziren bidegorri sarea osatzen, Ibon Arrupe Arrasateko Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzordeburuak azaldu duenez; zazpi urteren ostean, %70 falta da

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Gernika ibilbidea, Musakolatik Erguenera Monterrondik barrena doana, duela 30 bat urte hasi ziren egiten, baina, definizioz, ez da bidegorria, Arrupek adierazi duenez, bizikletek eta oinezkoek partekatzen duten bidea baizik. "Hori hala izanik, modu eskusiboan bizikletei zuzendutako bidegorria 2015ean hasi ginen egiten", gaineratu du. Arrasate pasealekuan, Arimazubi ondoan, ekin zioten sare hori osatzeari.

Duela zazpi urte, bide horri ekin ziotenean, Udal Gobernuak garbi zeukan bizikletentzat bakarrik izango zen sarea osatu gura zuela, bidea motordun ibilgailuekin partekatu barik. "Oñatin, Durangon eta Zarautzen, esaterako, bidegorria errepide-tik doa, autoekin bide bera partekatuz, baina aukera hori baztertu egin genuen hasieratik. Batetik, juridikoki ez dagoelako argi guztiz legezkoa den errepidean marrazte eta, bestetik, udaltzainak ere horren

aurka daudelako guztiz", azaldu du Arrupek.

Genero ikuspegitik begiratuta, azpimarratu du frogatuta dagoela bidegorri segregatu eta seguruak "askoz gehiago" erabiltzen dituztela emakumeek. "Mugikortasunean, oso aztertuta dago genero ikuspegia. Garraio publikoan, adibidez, askoz ere emakume gehiago ibiltzen da gizonen baina eta bizikletan, bidea ez bada segurua, emakume gutxiago ibiltzen da. Hori da beste arrazoietako bat bide-

gorri segregatuaren aldeko apustua egiteko".

Halere, puntu bat da salbuespena: Araba etorbidetik Zerrajera kalera sartzeko zubia. Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzordeburuaren esanetan, irizpideetako bat da, bidegorria egiteko, motordun ibilgailuentzako bideei kentzea espazioa, eta ez oinezkoentzako bideei. "Zubi hori, ordea, estua da eta ez zegoen beste aukerarik. Beraz, orain, errepidearekin partekatutako eremua da eta bidegorri segregatuarekin lotzen da aurrerago, ospitalerantz".

### Bi ardatz ditu bidegorri sareak

Arrasateko bidegorri sarean, gune batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapekoak dira eta besteak, Arrasateko Udalaren ardurapekoak. Elorregitik datorrena, eta orain egiten ari diren Kataideko zatia, Aldundiaren ardurapekoak dira eta Aretxabaletara bidean, Arrasate irteeratik aurrerakoa ere bai. Garagartzako zatia ere, Arabako mugaraino, Aldundiarena da. Erdiguneko gainontzeko zatiak Udalarri dagozkio.

Bi ardatz nagusi ditu Arrasateko bidegorriak: Eskoria-tza-Elorregi adarra, garai bateko Vasco-Navarro trenaren bidetik pasatzen dena, eta Musakola-Garagartzeta adarra.

### %70 falta da sarea osatzeko

Udalari dagokion eremuan, erdiguneko sare osoaren %30 egin dute azkenengo zazpi urteetan, Arrupek adierazi duenez, eta helburua da sare hori osatzen joatea, pixkanaka-pixkanaka, urbanizazioak berritzen joan ahala. "Plangintza handia eskatzen duten proiektuak dira, eta osotasun baten baitan aztertu behar dira, ezin ditugu besterik gabe bidegorriak egin". Izan ere, "kalitatezko bidegorri sare, seguru eta duina" eraikitzea da Udal Gobernuaren helburua.

Egiteko dauden zatiei begira, hainbat puntutan banatu ditu: batetik, Gipuzkoa etorbidetik Musakolako kiroldegirainoko zatia, Lapurdi kaletik barrena, Legarra plaza ondotik, Antso Abarka kaletik aurrera. "Hori landuta dago. Teknikariaren aldetik adostasun zabala dago eta Gipuzkoa etorbidean, muralak dauden paretaren aldeko espaloia kendu egin beharko dugu. Irabazitako espazio horrekin, bidegorri segregatua egingo dugu eta mantendu egingo ditugu motordun ibilgailuentzako bi noranzkoak".

Era berean, egiteko dagoen beste zati bat da Zalduspetik, fabrika zaharrak botata eta parke txiki bat eginda, erreka ondotik, AGA eta JMA lantegieta-tik, Musakolako San Isidro elizaraino doan zatia.

Bi zati horiek datozten lauzpabost urteetan gitea aurreikus-tzen du Udal Gobernuak, datorren agintaldian. "Ikusi egin beharko da nor dagoen Gobernuan, baina bidegorriaren gaian adostasun zabala dago", nabarmendu du Arrupek.

Bestalde, Etxe Txikien urbanizazioa aprobetxatuz, Gipuzkoa etorbidea eta Nafarroa etorbidea lotzeko bidegorri zatia ere txertatuko dute datozten hilabeteetan. (Ikus eskuineko zatidura)

**LAPURDI KALETIK KIROLDEGIRAINOKO ZATIA DATORREN AGINTALDIAN EGITEA AURREIKUSTEN DUTE**



### Uribarrin beste zati bat

Gautxori esparruaren baitan, dagoeneko hasi dira biribilgune berria egiten Uribarri auzoan, Garaia Parke Teknologikoaren sarreran, eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak beste bidegorri zati bat egingo du biribilgune horretaraino, gero Markuleterantz jarraitzeko. Horrez gain, Alecop aurretik doan bidegorri zatia-rekin ere lotuko da sarea.

### Zatirik zailena, erdigunekoak

Egiteke dagoen beste zati bat da Udala plazatik, Zarugalde kalean barrena, Ignazio Zuloagatik eta Otorala Lizentziaduna kaletik, Maalako biribilgunera doan tartea. "Aurreko agintaldian, saiakera egin genuen Muzibartik, Otorala Lizentziaduna kaletik, Goienako egoitzaren partetik pasatzeko bidegorria. Baina, espaloiak zabalera kontuan izanda, oso konplikatuak zen, eta, azkenean, Zarugalde kaletik joatea erabaki zen", azaldu du Arrupek. Horretarako, baina, kale hori oinezkoentzat bilakatu beharko litzatekeela dio. "Hala ere, ezinegon handia sortu zen auzotarrengan eta ideia lehiaketa bat egin zen. Kondekua parkean lur azpiko aparkaleku bat egitea izan zen ideietako bat, baina ez zuenurrera egin orduko hartan". Orain, gelditi dago gaia. "Zarugalde eta Ignazio Zuloaga kaleak oso estuak dira, aparkaleku asko eta espaloi estuak daude, eta hor bidegorria txertatu gura bada, zerbait aldatu behar da. Beraz, alternatiben gainean adostasunik ez dagoen bitartean, zaila izango da proiektu bat lantzea". Hala, zati hori luzatu egingo dela onartu du zinegotziak.

### 100 aparkaleku desagertu dira

Bidegorri sarea egiteak beste egitasmo batzuk martxan jarri beharra eragin diela adierazi du Arrupek; esaterako, TAO sistema. "Ibilgailuei espazioa kentzean, aparkalekuak kentzen dituzu, edota bi noranzkoko kaleak bakarreko bilakatzen, eta alternatibak eskaini behar dira. Orain arte egindako bidegorriak 100 bat aparkaleku kendu ditu, eta alternatiba TAO sistema izan da. Bidegorri sarea zabaltzea bermatuko duen tresna bat da TAO, izan ere, aparkaleku falta konpentsatzea lortu du, hein handi batean".

## "Ez da lan egiten sare osoa lortzeko"

Oposizioan dagoen EH Bilduren ustez, bidegorri sarea mugikortasun iraunkorraren "funtsezko" piezetako bat da. "Gero eta gehiago murrizten ari gara autoarekin mugitzea, mugitzeko beste era batzuk bultzatuz. Horretarako, ezinbestekoa da bidegorri segurua, berezia eta praktikoa izatea". Halere, bide horretan, Arrasateren erritmoa "oso motela" dela diote. "Debagoieneko herrien atzean kokatuta gaude, eta gainerakoentzat erreferente izan beharko genuke". Hala, apustu "askoz irmoagoa" egin behar dela uste dute. "Ez da sare globala eraikitzeko lan egiten, zati txikiak egiten dira, egin behar diren beste obra batzuk aprobetxatuz".

Jakitun dira "sare global, seguru eta berezia" osatzerakoan zailtasunak egon daitezkeela. "Kasu horietan, behin-behineko neurriak hartu behar dira, behin betiko konponbideak eman arte. Horri gizalegea esaten zaio".

"Berehala" osatu beharko litzateke sarea: "Anbizio handiko plan bat garatu beharko genuke, epe zehatzekin, egungo egoera iraultzeko".

## Leintzibarko eta Kataideko zatiak, bidean



Foruen plazan, lanean. E.A.

### Irailerako prest

Apirilean hasi zituzten Araba etorbidea eta Gipuzkoako Foruen plaza lotuko dituen bidegorri tartea egiteko lanak. 160 metroko zatia da eta, ondo bidean, irailerako bukatuta edukiko dute Leintzibar kaletik doan tartea.



Kataideko bidegorria. E.A.

### "Laster" bukatuko dute

Kataideko 690 metroko bidegorri zatia egiteko lanak atzerapenarekin hasi zituzten, eta hasi ostean ere hainbat arazo izan dituzte materialekin, epea are gehiago atzeratuz. Aldundiak azaldu du "laster" bukatuko dutela.



Aitor Zubiaga EH Bilduko zinegotzia eta Maria Ubarretxena alkatea. GOIENA

## Mendurrenara, eraberrituta

2024an ehun urte beteko dira Arrasateko Etxe Txikiak eraiki zituztela. Halere, orain arte ez dute hiri antolamendurako planik izan, eta, horren ondorioz, bizilagunek, legez, behintzat, ezin zituzten etxeak konpondu edo azpiegitararik sartu. Azken lau urteetan bizilagunekin batera egindako lanketaren fruitua den Etxe Txikiak Esparruaren Hiri Antolamenduaren Plan Bereziari esker, baina, egoera aldatu egin da. Etxeetan moldaketak egiteko aukera dute orain jabeek, eta Udalak urbanizazio lanak egingo ditu laster. "Hiru kale egiteaz gain, azpiegitura guztiak egingo ditugu eremuan, gaur egun ez daudenak; esaterako, saneamendua, elektrizitatea, zuntz optikoa eta gutxieneko konforta lortzeko beharrezkoak diren azpiegitura guztiak", azaldu du Maria Ubarretxena alkatea.

Bestetik, Aramaio ibaiaren alboko eustorma ezegonkortu izanaren ondorioz egonkortasuna edo sendotasuna galdu duten etxebizitzetara epe luzerako sostengua emango diete, horma berreraikiz eta ibaiaren metatutako materialak bertatik kenduz.

Aldi berean, EH Bilduren proposamena onartu du Udala Gobernuak, eta, esku-hartzea baliatuz, bidegorri zati bat egingo dute. "Aurreproiektua iritsi zitzaigunean, ez zegoen aurreikusita Nafarroa eta Gipuzkoa etorbideak lotzeko bidegorriarik, eta proposamena egin genuen. Ez da inongo arazorik egon onartzeko", adierazi du Aitor Zubiaga Udaleko Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzordeko EH Bilduren ordezkariak.

### 1.364.467 euroko aurrekontua

Obra uda ostean hastea da aurreikuspena, zortzi hilabetean bukatu ahal izateko. Hasierako aurrekontua 1.364.467,87 eurokoa da, BEza barne. Bizilagunek 341.115,60 euro ordainduko dituzte, "bakoitzaren eraikigarritasun ahalbideen arabera".

**GALLAS**  
Leiho eta pertsiana konponketak

PVC eta aluminioa  
Ardatz aldagarriko leihoak  
Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02  
gallasleiho@gmail.com

**TANATORIOA**  
BEILATOKI BERRIA  
ARRASATEN  
Guztion zerbitzura  
24 orduz  
ARRASATE HILETA  
BERRIA  
Deitu eta informa zaitez!!  
943 79 22 19  
Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com



# Ekiola hasi da, apurka, herritarrengana iristen

Asteon aurkeztu dute Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba, Amaia antzokian, eta 300 bat lagun bildu dira ekitaldian. Oraingoan, 100 herritar inguruk egin dute aurretiazko izen-ematea, irailean abiatuko den bazkidetze kanpaina lehentasuna izan dezaten

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Leintz bailaran kontsumitzen den energiaren %95 baino gehiago kanpotik dator, eta jatorri ez berriztagarrietatik, gainera. Datu horrekin abiatu zuen Maria Ubarretxenak martitzeneko aurkezpen saioa. "Horregatik, bailarak trantsizio energetikoaren alde egiten du, eta bide horretan sortu dugu Ekiola. Kooperatiba sortuta dago jada, Arrasateko Udala bazkide laguntzailea da, beste eragile batzuekin batera, eta parke fotovoltaikoa kokatu den lursaila publikoa da, udal jabetzakoa. Bazkideak instalazio fotovoltaikoen jabe izatea da helburua, kanpoko energiekiko mendekotasuna murrizteko helburuarekin", nabarmendu zuen.

Ekiolak energia eredu berri bat sortu gura du. Hala, kooperatibaren bitartez, herritarrek eguzki-parke txikien bidez hornituko dira eta kooperatibaren parte hartuko dute, energia sortzeko eta kudeatzeko.

## 450 bazkiderentzako aukera

Energia herrian bertan sortuko da, parke fotovoltaiko baten bitartez, eta argindarra zuzenean sare nagusira joango da. Beraz, etxeko instalazioetan ez da aldatetarik egin behar.

Hasiera batean, behintzat, 450 bazkiderentzako lekua bakarrik egongo da Ekiolan. "Bermatu gura dugu parte hartzen duten guztien %100 asetzea. Horregatik jarri dugu muga", adierazi zuen Hodei Arzakek, Ekiola proiektuko zuzendariak. "Baina egitura oso bat osatzen joatea da asmoa, eta, lehenengo proiektu hau gauzatu ostean, instalazio berriak gehitzen joatea gus-tatuko litzaiguke, herritar gehiagok interesa erakusten badute, behinik behin", gaineratu zuen Aritz Otxandianok, Fagor Taldeko iraunkortasun arduradunak. Horretarako, beste erabilera baterako egokiak ez diren



300 bat lagun bildu ziren Amaia antzokian egindako aurkezpenean. XABIER URTZELAI

## AURRETIKO IZEN-EMATEA IREKITA DAGO, 'EKIOLA.EUS/LEINTZ-BAILARA'-N ETA BAZ-EN

lursailak aprobetxatzen saiatuko litzateke kooperatiba, eta, Otxandianoren esanetan, bailaran badaude horretarako egokiak izan daitezkeen lursailak. "Parke hauek egiteko, beti saiatzen gara lur degradatuak bilatzen, baliorik ez dutenak".

Eredu asko daudela dio Arzakek, baina sektore horretan ez dela oso ohikoa herritarrei jabetza aktiboa irekitzea. "Hori da proiektu honek duen onura, herritarrek dutela jabetza, kontrola eta gobernantza".

### "Aukera interesgarria da"

Zuzendariak hainbat datu ekonomiko eman zituen eta bazkideek egin beharreko inbertsioak ere izan zituen berba. "Ideia bat egiteko, hiru pertsonako familia batek 2.400 kilowatt orduko kontsumitzen du eta horren inbertsioa, guztira, 2.248

eurokoa izango litzateke", azaldu zuen. "Laboral Kutxarekin lortutako akordioari esker, kuxak berak finantzatu du proiektuaren zati bat; gehienez, %28. Modu horretan, hasierako ekarpen hori merkeagoa izango da eta herritar gehiagok izango dute aukera proiektuaren parte izateko. Hiru pertsonako familiaren adibidearekin jarraituz, 1.681 eurokoa izango litzateke ekarpena. Zerga-kenkariekin, berriz, 1.429 eurokoa. Beraz, uste dugu esfortzu bat dela, bai, baina aukera interesgarria dela iruditzen zaigu".

### Izena eman daiteke jada

Orain, aurretiko izen-ematea ireki dute, gero bazkiderentzako lehentasuna eduki ahal izateko, eta, lehen aurkezpenaren ostean, 100 bat herritarrek eman dute izena. Horretarako, bi aukera daude: *ekiola.eus/leintz-bailara* webgunean eta BAZen. Gero, irailean irekiko dute behin betiko izen-ematea, eta ondoren, aurreikuspenaren arabera, azaroa baino lehen hasiko dute eraikuntza fasea. Azkenik, 2023ko otsailean jarriko dute funtzionamenduan.



NIRE USTEZ

ANE SANCHEZ ZEZIAGA

## Udalaitz, herriko "presidentea"

Milaka urtetan zehar, gizakiaren harrokeriari tinko eutsi dio Udalaitzek. Urtero familiak, lagun kuadrillak eta kirolari sutsuak jasotzen ditu, baina ezagutzen al ditugu bere maldetan ezkututzen diren sekretuak?

Hainbat kobazulo, bidezidor, pareta bertikal eta behin itsaso azpian bizi izan zirenen aztarnak gordetzen ditu. Bere bi gurutzeen artean *Sanct Asentio Ermita*-ren arrastoak daude. Haren zelai eta haitzen artean ibiltzen garenontzat, aztarna hauek hamaika istorio imajinatzaera eraman gaituzte.

Ermita honen inguruko lehen albistea 1528ko dokumentu batek jasotzen du. Ziur nago, horma horiek hitz eginez gero, egun bizi izan ditugun parrandetatik oso ezberdinak ez diren makina bat kontakizun ezagutu ahal izango genituzkeela. Ofizialki, 1769. urtean, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ermitaren itxiera ebatzi zuen, nahiz eta gerora ere arrasatearrok bertaratzen jarraitu izan dugun.

Arrasateko zaindaria da Udalaitz, eta behin nire aitona esan bezala, herriko "presidentea" ere bada.

## Euskaraldia antolatzen hasteko bilera martitzenean

"Euskararen aldeko hautua egin nahi duten guztiei" gonbidapena egin die Geikek maiatzaren 10ean 18:30ean Kulturaten egingo duten bilerara joateko; Arrasateko Euskaraldia antolatzen hasteko saiora, hain zuzen. "Ordu eta erdiko saio izango da, gehienez, guztiz praktikoa, zer egin nahi dugun eta nola antolatuko garen adosteko", azaldu dute.

## Miren Agur Meabe eta Eider Rodriguez idazleak Kulturaten

Emakume Txokoaren *Emakumeak protagonista* elkarrizketa saioaren baitan, Miren Agur Meabe Plaza idazlea elkarrizketatuko du beste idazle batek: Eider Rodriguez Martinek, hain zuzen. Kulturaten izango da saioa, 19:00etan, euskaraz. Aurtentzen euskaltzain oso izendatu duten idazleak sari eta aitortza ugari jaso izan ditu.

## OHARRAK

### Kale Natura ekimena abian da, bigarrenaz

Herri eta hirietako natura ezagutu eta izendatzeko helburua du. "Atera argazki bat animalia bati eta bidal egiguzo izendatzeko erabiltzen duzun izenarekin batera". 688 72 42 05 zenbakira edo *komunikazioa@txatxilipurdi.eus*-era bidali behar dira.

### 'Komunikazio ez bortitza' hitzaldia gaur

Nerea Mendizabal psikopedagogo eta haur-masajeko hezitzaileak egingo du, haur eta nerabeen gurasoei zuzenduta. 18:00etan izango da, Kulturateko areto nagusian. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak elkarlanean bultzatutako Treba Gurasoak programaren baitako saioa da.

### 'Eztandak dardara gaitzala' jaia bihar

Oñatin egingo duten topaketa feminista aurkeztuko dute bihar, zapatua, 19:30ean, Irati Topagunean. Gero, *karropotea* egingo dute gaztetxera eta han Yogurinha Borova eta Marta & Herbass ariko dira, 22:30ean hasita. Sarrera bost euro da.

### Gurasoentzako sexologia tailerrak, martxan

0-5, 6-11 eta 12-17 urte arteko seme-alabak dituztenentzako saioak dira, astelehenetan, 18:00etatik 19:30era, Kulturaten.





Muko jokalariai, Iturripen jokaturako azken partidaren bukaera, zaleei esker ona erakusten. ANGEL AYASTUY

# Lauko finala etxera ekartzeko bi pausotara

Mondragon Unibertsitateak liga erregularreko bi partidu erabakigarri ditu aurretik. Biak irabaziz gero, lehen maila nazionalera igotzeko lauko finala Iturripera ekartzeko saria lortuko luke; etzi, Maristas liderrari erakutsiko dizkiote hortzak etxean

**Hasier Larrea** ARRASATE

Ointxe! saskibalo klubei emakumezkoen senior taldea denboraldi hasieran esperotakoa baino helburu handiagoengatik ari da lehian. Iaz, kategoriaz igo zirenean, jakitun ziren jokalariai gazteak izanda gogotik sufritu beharko zutela bigarren maila nazionalera oilar beteranoren aurka, baina lehen itzuli bikaina egitea lortu ostean, txapel-dunak izan zitezkeela ulertu zuten. Lorian bidean, baina, San Inazio iruindarrak gurutzatu zitzaizkien. "Iturripen oso talde gogorra zela ikusi genuen, eta irabazi egin ziguten; hortaz, helburu apalagoa jarri genion geure buruari: liga bigarren amaitu, eta igoerako fasea etxean jokatzeko", adierazi du Mondragon Unibertsitateko prestatzaileetako bat den Unai Ibarra.

Hori baita ligako bigarren talde onenari dagokion balizko abantaila. Arrasateko saskibalo jokalarien esku dago denboraldiko txanparik zirrargarriena

zaleen berotasunaren babesean jokatzeko. Gaur-gaurkoz, hirugarrenak dira sailkapenean: bigarren dago San Inazio, eta Logroñoeko Maristak daude gailurrean.

Hain justu, errioxarren bisita izango dute domekan, 18:00etan hasita. Marea moreari bost puntu baino gehiagotatik komeni zaio neurketa irabaztea: "Modu horretan bakarrik gaintutuko genituzke sailkapenean, Logroñora joan ginenean bost puntugatik galdu genuelako. Gure asmoa beteko balitz, garaipen kopuru berarekin egingo genioke aurre azken jardunaldiari, baina, esan bezala, haien aurretik". San Inazio aurreratzeko, kale egin beharko lukete haiek.

**MARISTASI BOST PUNTU BAINO GEHIAGOTIK IRABAZTEA KOMENI ZAIO OINTXE!-RI**

**Defentsan dago gako**

Mondragon Unibertsitatearen partiduak jarraitzen dituenak partidu biziak eta puntu askoak ikusi ohi ditu, normalean. Bitxia dirudi, baina saskiratze gehien sartu eta jasotzen dutenak dira. Ez da zaila asmatzea, horrenbestez, zein aspektu landu duten azkenaldian entrenamenduetan: "Erasoan egiten dugun jokoan baino gehiago, aurkariaren baloi-jabetzetan presio handiagoa egitean zentratu gara".

Landutakoaren emaitza domekan, arratsaldeko seietan hasita, frogatuko dute zaleek Iturripeko kiroldegian. Partidu lehia izango dela aurreikusita, momentu kritikoetan publikoak "estutzea" espero du Ibarra.

Ligako azken jardunaldian Unamunori egingo dio bisita Ointxe!-k. Gertatzen dena gertatuta, maiatzaren 22ko eta 23ko lauko finalean egongo da taldea. Eszenatokia zein izango den jakitea falta da.

## Zigarrolako jaien bueltan, BTT irteera eta eskubaloiturneoa

Asteburu honetan ez, hurrengoan ospatuko dira sanisidroak, baina jaien bueltan antolatutako egitarauak etziko ere baditu ekintzak programatuta. Zehazki, mendiko bizikleta irteera egingo dute Zigarrola inguruko parajeetan zehar, 09:00etan Legarra plazatik hasita. Bi ibilbide egongo dira: 42 kilometrokoa bata eta 28koa

bestea. Proba hasi baino ordu-bete lehenago izena emateko aukera egongo da Legarrako Ziar-Ola elkartearen.

Eta hilaren 15ean, 10:00etatik 14:00etara, Zigarrolako herri eskolako aterpean jokatu dute lauko eskubaloiturneoa LH4, LH5 eta LH6-ko neska-mutilek, Arrasateko Eskubaloiturnearen ekimenez. Parte hartu nahi dutenek taldea eman beharko dute izena, [aeb@arrasateeskubaloiturneoa.eus](mailto:aeb@arrasateeskubaloiturneoa.eus) helbidera idatzita edo 619 67 26 96 telefonora deituta.

## Errebantxaren bila irtingo dira bihar goizean ARTkoak

Kanpanzar Arrasate errugbi taldea Euskal Ligako lehen mailako lauko finala jokatzeko ari da, lehia erregularrean laugarren geratu izanagatik. Sarako Izarra egokitu zitzaion finalerdietan, eta joaneko partiduan, aurreko asteburuan, galdu egin zuen kanpoan, 39-15. Beraz, Julen Barrutiaren mutilek 24 puntu baino gehiagoko aldearekin irabazi beharko diote bihar goizean, 12:00etan hasita, Iparraldeko, kanporaketako finalerako sailkatu nahi badute.

Neurketaren garrantziaz jabetuta, Mojategiko harmailak bero-bero egotea espero dute jokalariek, eta gogoz animatze-ko deia zabaldu diete zaleei.

## Mendi Film jaialdiko pieza onenak ikusgai martitzenean Amaian

Bilbon egiten den ikus-entzuzko jaialdian parte hartu duten lanak plaza plaza erakusten ari dira, Mendi Tour biraren baitan. Besaide Mendizale Elkartearen iniziatibaz, Arrasaten ere ikusi ahalko dira jaialdian arrastoa utzitako hiru pelikula. Aurtengoan, film labur onenaren saria jaso duen *Melting Landscapes Glaciares*, epaimahaiaren saria jaso duen *The Traverse* eta eskaladako film onena izendatu duen *Black Ice* ekarriko dituzte Amaia antzokira. E-maildia datorren martitzenean, hilak 10, izango da, 19:30ean hasita. Sarrerak bost euroko prezioan eskuratu daitezke, [arrasate.eus](http://arrasate.eus)-en edo leihatilan.



ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEA

## Golkoa bete urre

Arrasate Dragoi gimnastak taldea, hiruak, binak eta banak nagusitu ziren aurreko asteburuan Gasteiz Hiria torneon, aerobik modalitatean. Hilaren 13tik 15era Tarragonako Cunit herrian izango dira, Estatuko Opena jokatzeko; maiatzaren 27tik 29ra, berriz, onena ematen saiatuko dira Torrent-en (Valentzia), Espainiako Txapelketan.



# "Eskertzen da horrelako ekimenak antolatzea"

ALBERTO URRETZO TRONBOI-JOTZAILEA

XVIII. Udaberriko Musikaldia abian da, maiatzaren 22ra arte. Bihar, zapatua, Kulturateko areto nagusian arrasatearraren proiektua entzuteko aukera egongo da


**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE  
*Soinuaren bidaia* ekimeneko zuzendari eta koordinatzailea da Urretxo. Bihar egingo dute kontzertua, 19:30ean.

**Soinuaren bidaia. Ze talde ekarri duzu?**

Boskote formatuan egingo dugu emanaldia: hari laukotea tronboiarekin. Laura Delgadok eta Iñigo Grimalek biolina joko dute; Adriana Grigorask biolarekin izango da; Javier Martinez Campos txeloarekin; eta ni tronboiarekin. Grimal, Delgado, Grigorask eta ni neu Bilboko Orkestrako musikariak gara, eta Javier Martinez Campos gaur egun orkestra nazionalen dago. Musikaria izateaz gain, konpositorea ere bada; diskorako idatzi zuen *Camino simbiótico* obra ere joko dugu.

**Zer eskainiko duzue?**

*Confluencias* diskoko lanak joko ditugu. Gure proposamena izango da bigarren diskoan grabatu genituen eta hari laukotera eta tronboira egokitu genituen J. Mahlerren lanak eskaintzea. Azaltzen dugu nola hasten zaren zure bidea ezagutzen eta askatasuna bilatzen... Horrek markatzen du gure programa. Mahlerren abestiak joko ditugu eta baita hirugarren diskoko *Gudari* obra, Ricardo Mollarena. De-



Andra Mari abesbatza. GOIENA

## San Frantzisko elizan, abesbatza

Udaberriko Musikaldia egitarauaren barruan bi hitzordu izango dira aste bukaera honetan. Arrasateko musikariaren emanaldiaz gain, Andra Mari abesbatza entzuteko aukera egongo da San Frantzisko elizan. 19:30ean izango da emanaldia.

nek dakigu ze suposatzen duen, eta zela erabiltzen dugun, *gudari* hitzak: sozialki eta politikoki ze suposatzen duen eta nola erabiltzen dugun. *Camino simbiótico* obra ere joko dugu, eta joko dugu baita Gasteizko bandako zuzendari izan zen Hilario Extremianaren pieza bat. Gure helburua da Arrasaten hirugarren diskoa aurkeztea.

**Zuretzat, zer esan nahi du etxean jotzeak?**

Oso berezia da. Urte asko daromatzen kanpoan eta oso gustura joaten naiz Arrasatera. Lagun asko dauzkat, familia... Publikoa ikusteaz pozten naiz. Gainera, ni ere Arrasate Musikalen hasitakoa naiz eta horrek berezi egiten du emanaldia. Arrasatera etortzea beti da berezia; batez



Alberto Urretxo musikari profesionala. GOIENA

ere, nik bezalako lana duen batentzat, oso berezia da egiten duzuna herrian aurkeztea.

**XVIII. Musikaldia abian da. Jarraitzen duzu egiten dena?**

Bai, dagoeneko urte batzuk daramate ekimenarekin; gainera, hasierako ekitaldietan ere izandakoa naiz. Oso eskertzekoa da horrelako ekimenak antolatzea. Arrasaten beti egon da musikarekiko zaletasuna: banda, Goikobalu, Orkestra... Horrelako ekimenek kostu bat dute; Udalak apustua egitea eta eskaintzea herriari horrelako ziklo bat oso berezia da. Ez da leku guztietan egiten.

**Bi urteren ondoren, nabaritu duzue normaltasuna?**

Ganbera-musika orain hasi da mugitzen, baina profesionalak ez gara geldi egon; nolabait esatearren, diru publikoarekin bizi garenak, irakasleak, orkestrako kideak, egin duguna da lan gehiago jende gutxiagorendako. Normaltasun berrian, hasi dira gauzak programatzen, eta ikusten dugu entzuleak agertzen

direla; baina ez pentsa, lehen ikusten zen publikoa oraindik ez da ikusten. Ez daukagu lehen geneukan publikoa.

**Soinuaren bidaia proiektua nola abiatu zen eta egun ze puntutan dago?**

Proiektua 2015ean finkatu genuen, gure lehenengo diskoarekin, baina proiektua aurretik dator. Adriana Grigorasek eta biok pertsonalki eta profesionalki garatzeko proiektu bat egin nahi genuen. Oso berezia da tronboia hari instrumentuekin eta abesbatzarekin entzutea; normalena da banda batean edo txarangan ikustea... Hori da abiapuntua. Gainera, Euskal Herrian ditugun musikariak eta konpositoreak ezagutzera ematea ere bada gure nahia.

**"NIK BEZALAKO LANA DUEN BATENTZAT BEREZIA DA EGITEN DUZUNA HERRIAN ERAKUSTEA"**

## 2 eta 4 urte arteko umeendako ipuin kontaketa bibliotekan

Maiatzaren 12an, eguena, 2 eta 4 urte arteko umeei zuzendutako ipuin kontaketa egingo dute Arrasateko bibliotekan.

Iñaki Carretero ipuin kontalaria etorriko da, eta *Atximurka: kontuak eta kantak* saioa egingo du. Carretero ipuin kontalariak urteetako esperientzia dauka kontalari; gainera, haur askoren bidelagun izan

da liburuekin gozatzeko ibilbidean. Oraingoan, kontuak eta kantuak uztartuko ditu.

Saioa Kulturaten izango da, 18:00etatik 19:00etara. Aurrez izena ematea ezinbestekoa izango da parte hartzeko eta ume bakoitzak arduradun batekin joan beharko du.

Udal atarian eman behar da saioan parte hartzeko izena, eta dagoeneko taldea beteta dagoela jakinarazi dute; dena den, itzarote-zerrendan izena emateko aukera dago.

## Arrasateko argazki zaharren erakusketa zabalduko dute etzi

XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako argazkiekin osatutako erakusketa zabalduko dute Etxaluzen domekan. Argazkien testuinguru historikoa ezagutzeko aukera egongo da.

Domekan zabalduko dute erakusketa eta maiatzaren 20ra arte egongo da zabalik. Orduetgia izango da: martitzenetan, eguenetan eta egubakoitzetan

17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Erakusketa 46 argazkiz osatuta dago.

Arrasate Zientzia Elkarteak utzitako argazkiak dira, eta Foru Aldundiak sustatutako *Gipuzkoa belaunaldi arteko* proiektuarekin lotuta dago, *Etorkizuna eraikiz* ekimenaren testuinguruan. Helburua da ezagutza transmititzea eta komunitatearen garapenerako belaunaldien arteko lotura sustatzea.

## Antzerki udalekuak egingo ditu uztailean Doke taldeak

Uztailaren 4tik 15era egingo ditu Doke antzerki taldeak antzerkiarekin gozatzeko udalekuak. Adinaren arabera bi txandatan banatuta egingo dituzte saioak: hain zuzen, lehenengoa uztailaren 4tik 8ra izango da, 8 eta 11 urte bitartekoendako; eta bigarrena, 12 eta 15 urte bitarteko gazteendako. Interesatuak 665 11 85 72 zenbakira dei dezakete.



# Elkartu, gozatu eta hausnartzeko eguna

2019koaren eta iazkoaren ondoren, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladiek antolatuta, hirugarrenez egingo dute Gazte Eguna. Hitzaldia, bazkaria, pilota partiduak eta musika kontzertuak antolatu dituzte. Eskola inguruan izango dira ekitaldiak

## Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Bihar, zapatua, hirugarrenez egingo dute Aramaioko Gazte Eguna. Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladiek antolatuta, herriko gazteak elkartzea izango du helburu egunak; baina, horrez gain, kutsu politikoa izango duen etapa baten abiapuntu izan gura du Gazte Eguna, egungo gizarteak bizi duen egoeraren azterketa egiteko. Hain zuzen, gazteak eta sare sozialak ardatz hartuta hitzaldia egingo dute. 11:30ean izango da, eguraldi ona bada parkean eta txarra bada gazte lokalean. "Jendearen kontzientzia mugitu nahi dugu, jai giroa eta elkartzeko eguna izateaz gain, kutsu politikoa ere ezarri", azaldu du gazte asanbladako kide Unai Etxenausiak.

## Bazkaria: paella

14:30ean, bazkaria egingo dute eskolako patioan. 10 eurotan saldu dituzte txartelak –atzo zen txartelak erosteko azken eguna–: "Egunean zehar ere egongo dira txartel gutxi batzuk, azken momentuan bazkarira etortzea erabakitzen dutenendako". Eskolako patioan izango da bazkaria, eta jana prestatzen gazte asanbladako kideak ibiliko dira: "Paella beganoa egingo dugu, kantitate handian, eta postrea eta kafea ere eskainiko dugu". Barra libreka egongo dela gaineratu du Etxenausiak.

Arratsaldean pilota partiduak izango dituzte. Eguraldi ona egiten badu frontoi kanpoan izango dira eta txarra bada, barruan. "Nesken eta mutilen pilota partiduak izango dira: neska pilotariak Oñatitik etorriko dira, adibidez", dio Etxenausiak.

## Musika kontzertuak

Egunari amaiera borobila emateko, musika kontzertuak izango dituzte. Eskola kanpoko kantxan izango dira kontzertuak.



2019ko Gazte Egunean, Aretxabaletako Wood Strings taldea. IMANOL SORIANO

## BIDELAPURRAK ETA DIRTY OLD GASTEIZ TALDEEK EGINGO DUTE KONTZERTUA, 22:00ETAN HASITA

### Etapla berria

Gaur egun, hamaika lagunek parte hartzen dute gazte asanbladan.

"Azkeneko bi urteak gogorak izan dira, orokorrean", dio Unai Etxenausiak. Gazte Eguna gain, Eguzkierripa Rock jaialdia antolatzen ere badihardute, eta beste zenbait asmo dituzte: "Datorren urtera begira bestelako ekintza batzuk aurkezten saiatuko gara. Herriko problematikari erantzuna eman eta mundu mailako arazoek kontzientzia piztu nahi dugu".

Bi talde gasteiztar izango dira oholtza gainean: Bidelapurra eta Dirty Old Gasteiz. 2014an Gasteizen sortutako folk-rock taldea da Bidelapurra. Zazpi lagunek osatzen dute taldea; tartean, musikari debagoiendarrak. Bi lan argitaratu dituzte orain arte: *Zenbat negar bazterretan* eta *Gorriak eta bi*.

Dirty Old Gasteiz oi! estiloa jorratzen duen Gasteizko taldea da. Erritmo bizia ezarriko dute eskolako kantxan, oi! musika gustuko dutenendako gozagarri.

### Dja eta txosnak

Patioko kontzertuak amaitzen direnean, musikak Añai tabernan jarraituko du. "Arrasateko DJ bat izango da Añain. Modu horretan, jendeak izango du aukera txosnetatik Añai tabernara mugitzeko", azaldu du Etxenausiak.

Txosna ere zabalik izango dute kontzertuetan eta ondoren: "Patioan jarriko dugu, barra bat izango da. Dagoeneko zabaldu dugu barrako txandak egiteko zerrenda. Uste dugu asanbladako jendearekin eta ingurukoekin beteko ditugula txandak, ez dira hainbeste ordu eta".

## Elektrizitate faktura ulertzeko gakoak emango dituzte

Lorabari Astearren barruan izango da hitzaldia, martitzenean, 18:30ean, Sastiña ermitan

### A.E.G. ARAMAIO

Eguaztenean hasi zen Lorabari Astea, Adrian Almazanen hitzaldiarekin. Kontsumo ohiturak eta ereduak hausnartzea oinarri dituen astearren barruan, datorren martitzenean, sistema elektrikoaren oinarriak aztertuko dituzte. Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen teknikari Jon Toñak eta Aramaioko Argindar Banatzaileko ordezkari Iraia Jauregik egingo dute hitzaldia: *Sistema elektrikoaren oinarriak eta gure etxeko faktura. Nola ulertu? zer egin dezakegu?* Hi-

tzaldia Sastiña ermitan egingo dute, 18:30ean.

Bihar eta etzi ere izango dira ekitaldiak. Bihar, esaterako, familia osoari zuzendutako ekintza egingo dute: auzolana egingo dute Andramariko eskailera txukuntzeko, 11:00etan. 20:00etan, aldiz, turismo ohiturak aztertuko dituzte, Aimar Uribesalgoren *Peregrino modernoan oporrak* dokumentalaren aurkezpenarekin. Domekan, basalandare jangarriak ezagutu, bildu eta ondoren dastatu egingo dituzte, 10:30ean, Azkoagan.

## OHARRAK

### Odola ematea

Autobusa martitzenean etorriko da, 16:45ean, kultura etxearen parera.

### Irakurle klub feminista

Astelehenean elkartzeko dira, 18:00etan, kultura etxean.

### Autodefentsa ikastaroa

Bihar, 10:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

### Eskolarteko bertsolari txapelketa

Gaur, barikua, 18:00etan osoko bilkuren aretoan izango da bertso saioa.



NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI

## Denbora

Kontu zaila da ulertzen denborarena. Printzipioz guztiontzat berdintsu igaro beharko lukeen arren, barraskilo bihurtzen da batzuetan; hurrena, berriz, gazela bat balitz bezala azaltzeko gaitasuna du. Azkenaldian, sarritan hitz egin dugu honi buruz lagunartean; arrazoia, betiko bera: batzuen egunek 48 ordukoak dirudite, denbora gehiegi gauza onerako; ondokoak, berriz, hortzak garbitu gabe atera behar etxetik presaka. Lanarekin lotzen dugu gehienetan; askok esaten didate fabrikari makinari begira luzeegiak egiten zaizkiela orduak. Niretzat, berriz, ikasgelan sartu eta egitea gustatuko litzaidakeen guztia ikasleei azaltzen didan orduko, txirrinaren hotsa entzun eta zain daukat hurrengo irakaslea atean. Ondorio garbi bakarra atera dugu elkarrizketa askoren ostean: aste barruan lan egiten dugunontzat, behintzat, asteburua iritsi bezain pronto denborak abiadura handiko tren hartzen duela. Lagun batek kontatu zidan ostiralean lanetik irten eta erlojua lehen aldiz begiratu zuenean bost minutu geratzen zitzaizkiola asteleheneko alarmari irrintzika hasteko.



# Berdegunean zer egin erabakitzen hastear dira

Kiroldegi aurrean dagoen 3.000 metro koadroko zelaiaren etorkizuna herritarrekin batera erabaki gura du Udalak. Maiatzaren 12an egingo duten saio irekian hiru proposamen hautatuko dituzte, eta aurrerago, botoa emateko epea zabalduko dute

## Mirari Altube ARETXABALETA

Parte-hartze prozesu bat jarriko du abian Udalak, Ibarra kiroldegi aurreko berdegunean zer egin erabakitzeko. Datorren egunean, hilaren 12an, bilera irekia egingo dute eta interesatu guztiak gonbidatu dituzte hara; Arkupeko bigarren solairuan izango da, 18:30ean.

## Herritarren eskaera

Zelaiaren etorkizuneko diseinua zehazteko prozesuaren berri eman zuten Unai Elkoro alkatea, Koldo Zubillaga Kirol zinegotziak eta Ibai Larrabe Udaleko arkitektoak, martitzenean. Alkatea adierazi zuen 2022ko aurrekontuetako inbertsioetan jasota dutela 3.000 metro koadro dituen lursail horretan kokatuko den proiektua: "Iaz hasi gura genuen, baina atzeratu egin da. Orain, Plan Orokorren garapen prozesuarekin ere bagabilza eta hor jaso dugu herritarren alde-tik ingurune horretan zerbaitegiteko gogoia. Hortaz, aretxabaletarrek erabaki dezatela zer egin hor". Zubillagak berretsi egin zuen Elkorok esandakoa: "Kirol ekipamenduekin betetzea zen hasierako asmoa, baina aisialdiarekin zerikusia duten proposamenak ere jaso ditugu". Eta zehaztu zuen bi urtetik hiru

urtera bitarteko egutegi bat ezarriko dela: "Hainbat ekitaldi ekonomikotan gauzatzen joateko".

## Hiru proiektu bozkatzeko

Maiatzaren 12an egingo duten bileran abiapuntuzat hartuko dituzte Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko egindako saioetan herritarrek egindako proposamenak. "Hiru lan-mahai osatu eta hiru ideia landuko dira: bat izango da gune berdea mantentzea; beste bat, kirol ekipamenduz betetzea; eta hirugarren mahaiaren aurreko bi ideiak nahastuko dira",

azaldu zuen Larrabe arkitektoak. Eta adibide batzuk eman zituzten: ur-jokoak, padel pista, kirol askotariko kantxa eta jolasgune naturala.

Egueneko bileran hiru proposamen hautatuko dituzte, lan-mahai bakoitzeko bat, eta ondoren, botoa emateko epea zabalduko dute. Hiru proiektuak Arkupen jarriko dira ikusgai eta maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean bozkatu ahal izango dute herritarrek, aurrez aurre zein telematikoki, udal webgunearen bitartez.



Zubillaga zinegotzia, Elkorok alkatea eta Larrabe, Udaleko arkitektoa. TXOMIN MADINA



Basotxoko hainbat kide bizikletetan eserita, ibilbideari ekiteko gertu. JULEN IRIONDO

## Basotxoko kideak oso gustura ibili dira bizikleta gainean

'Bizikletaz adinik ez' ekimenarekin bat egin dute erretiratuek eta Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikasleek

## M.A. ARETXABALETA

Donostian bizikletaren bueltan ziharduten zenbait pertsonaren artean sortu eta Real Sociedad Fundazioa kolaboratzaile duen *Bizikletaz adinik ez* ekimena Aretxabaletan eta Arrasaten izan da asteen. Basotxo elkar-teko erretiratuek, Garaguneko kideek eta Arrasateko Nagusien Kontseilukoek osteratxoa egin zuten horietan.

## Oso eroso

Aretxabaleta Lanbide Eskolara iritsi ziren eguazten goizean bizikletak, hiru, hain zuzen ere, eta ikasleek proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izan zutela adierazi zuen Lourdes Mendia irakasleak: "Automozio zikloa daukagunez ikastetxean, bizikleten egitura ezagutzea interesgarria irudituzte; zelan dauden eginda, zein erabilera duten... Bestetik, men-

pekotasun egoeran dauden pertsonen arreta zikloa ere badugu, eta ildo horretatik, aztertu dugu mugikortasun arazoak dituztenei zelan lagundu horien bitartez".

Behin eskolako lanak bukatuta, Basotxo erretiratuen elkar-teko hainbat kide jaso zituzten eta herrian paseotxo bat ematera eramane. Izan ere, adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea da ekimenaren helburua, parte-hartzea eta harremanak bultzatuz, belaunaldien arteko lankidetzaren eta hiri-mugikortasunaren bitartez. Erretiratuek adierazi zuten esperientzia aberasgarria izan zela. "Sekula ibili barik nengoen halako trizikloan eta oso gustura joan naiz, eroso da. Halako ekimen gehiago egin beharko lirake", zioen Anjel Loidik. Bakardadeari aurre egiteko Udalak duen programaren baitako ekintza izan da.



**Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba**

**Eguzkia berdea da**

## Zatoz aurkezpen-hitzaldira

**Eman izena bazkideztan lehentasuna izateko**

**Zure energia, sortu, kontsumitu eta kudeatzeko aukera**

● Eguzki energia kontsumitu ● Kooperatibako bazkide izan ● Erosoa, obrarik egin gabe

---

**Herritarrei zuzendutako hitzaldi informatiboa**

### ARETXABALETA

Maiatzaren 10ean, 18:30ean, Arkupe kultur etxean

ITZULPEN-ZERBITZUA EGONGO DA.



www.ekiola.eus



# Hamazazpi urte beteta, ospakizuna eta agurra?

Aretxabaleta kirol elkartearen parte den areto futboleko taldeak hamazazpigarren denboraldia bukatuko du asteburuan; 2005ean sortua lagun talde batek, nahikoa arrazoi dela hori ospatzeko iritzi eta egun osoko jaialdia egingo dute maiatzaren 14an

## Mirari Altube ARETXABALETA

Areto futbola gustuko zuten hainbat lagun elkartu eta kirol federatuen ekiteko asmoarekin areto futboleko taldea sortu zuten 2005eko irailean, UDAREN babespean. Sortzaileen artean dago Martin Antxia Abasolo, eta oraindik ere taldearen bueltan dihardu lanean: "Ondo pasatzea genuen helburuen artean, eta kirolean jardutea partiduak aitzakia hartuta". Ordutik hona, ibilbide luzea egin du taldeak, eta Euskal Ligan dabil gaur egun, sortu zenean baino bost kategorია gorago; zapatuan, Basaurin jokatu du denboraldiko azken partidua. Eta ikusi egin behar hamazazpi urteotako azkena den.



Hainbat taldekide jaialdiaren berri ematen. MIRARI ALTUBE

## Indarrak ahitzen

Areto futboleko jokatzeko duen UDAREN talde bakarra da; ez du harrobirik, ezta kudeatze-egiturarik ere. Antxiak argi du taldea oraindik bizirik egotearen arrazoia jendea dela: "Beti taldekide berberen energiarekin elikatu gara; izan ere, entrenatzaile lanetan eta ardura postuetan antzekoak egon gara. Bizirauteko berme bat izan da hori, baina, aldi berean, zirkulu itxi bat".

Taldea bere lekua egiten joan da urteotan: "Hasieran, zarata gutxi ateratzen genuen eta ez ziguten garrantzi handirik eman. Mailaz igotzen joan ahala, oihartzun handiagoa izan dugu". Almen ikastetxeko kiroldegian hasi zuten ibilbidea, eta jendea erakartzeko ogitartekoak eta edariak debalde eskaintzen zizutela du gogoan Antxiak.

Denboraldia zapatuan agurtuko dute, Basauriko Soloarte taldearen aurka jokatu. "Indartsu ekin genion denboraldiari irailean, baina Gabonen ostean beheralditxo izan genuen: lesioak, lan kontuak... Beti gertatzen zaigu. Sailkapenaren erdialdean bukatuko dugu, lasai".

Etorkizunari begira jarrita, baina, hodei beltzak ikusten ditu: "Pertsona berberak ari gara azken urteetan esfortzua egiten taldeak biziraun dezan, eta gure indarrak ahitzen dabilta". Eta argi du aurrera

egitekotan odol berriarekin izan behar duela: "Horregatik animatzen dugu jendea taldera edo UDARA gerturatzerara".

## Jaia maiatzaren 14an

UDAREN 75. urteurrenaren baitan, areto futbola ere izango du lekua. "Zer antolatu pentsatzen jarri, eta sekula ez dugula ospakizunik egin konturatu ginen; halaxe, egun osoko egitarau dotorea gertatu dugu", azaldu du Antxiak. Datorren egunean ekingo diete ekitaldiei, *Segundu bat bizitza da!* ikus-entzunezkoarekin: "Taldeen sorrera eta eboluzioa jaso ditugu hor, bizipen eta anekdota askorekin osatuta; hamazazpi urte 45 minutuan laburtuta".

Maiatzaren 14an, oster, egun osoko jaia egingo dute. Goiz partean kirola izango da protagonista –hiruko txapelketa eta penaltiak– eta arratsaldean, musika: "Gurekin jardundako jokalariek askok musika taldeetan dihardute, eta horiek batu gura izan ditugu". Erne, Iluminatiz eta Berandu Baina Lehen taldeak, Biri eta Cryne rap kantariak eta AZ Gaubelak izango dira Kurtzebarri eskolako pista eta pilotalekua girotzen.

## Egitaraua

### Maiatzak 12

- **18:45 eta 20:00**  
Dokumentala: *Segundu bat bizitza da!* (Arkupe)

### Maiatzak 14

- **09:00** Lehiaketa 3x3 (Kurtzebarriko pista).
- **10:30-12:00** Sagardoa eta txistorra.
- **14:30** Bazkaria taldekideek.
- **18:00-22:00** Kontzertuak: Erne, Iluminatiz, Berandu Baina Lehen, Biri eta Cryne.
- **19:45-20:00** Sari banaketak.
- **22:00-01:00** AZ Gaubelak (frontoia).

## Batzokia inauguratuko dute domekan, eraberritu ostean

Joseba Egibarrek gidatuko du ekitaldi politikoa, eta ondoren, herritarrei zabalduko dizkiete ateak

### M.A. ARETXABALETA

Durana kalean kokatutako batzokia eraberritu egin dute azken hilabeteotan, eta maiatzaren 8an inauguratuko dute. Ospakizuna eguerdian izango da, eta Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar gonbidatu dute bertara; hark egingo du ekitaldi politikoa (12:00). Ondoren, herritarrendako zabalduko dituzte ateak (12:30), eta mokadutxo eskainiko dute. Eguna borobiltzeko, bazkaltzeko elkartuko dira alderdikideak.

### Uztailaren 7an, 45 urte

Historian atzera egin dute gaur egungo jeltzaleek eta batzokiaren gaineko datu batzuk eman dituzte. Hala, jakinarazi dute Aretxabaletako lehenengo batzokia – Durana kaleko 7. zenbakiko azken solairuan– inauguratu zenetik 45 urte beteko direla da-

torren uztailaren 7an. Kiroldegian egindako bilera erdi-klanesti-noetan hasi ziren asmo hori lantzen urtebete lehenago, eta orduan eratu zuten ofizialki Uri Buru Batzarra. EAJK bazuen udal batzar bat 1930a ezker, baina 1977ra arte jeltzaleek ez zuten ireki lehen egoitza soziala.

Kale bereko 19. zenbakira aldatu zuten batzokia 1985ean; taberna zen hura eta afiliatuek egiten zuten lan. 1986ko irailean, baina, itxi egin zen, Eusko Alkartasunaren sorrerak EAJren zatiketa ekarri zuenean.

Oraingo 1996an zabaldu zuten, bi funtzio betez: egoitza eta elkarte. 1997ko urriaren 25ean, eraso egin zioten molotov koktel batekin, baina hiru hilabete geroago ateak irekitzeko gertu zuten; Xabier Arzallus, EAJKo orduko presidentea, izan zen inaugurazio hartan.

## Ekiola kooperatibaren gaineko hitzaldia dago martitzenean

Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba ezagutzeko hitzaldi-informatiboa egingo dute martitzenean, hilaren 10ean, Arkupen (18:30), eta herritar guztiak gonbidatu dituzte. Ekiolaren bitartez aretxabaletarrak eguzki-parke txikien bidez hornituko dira eta kooperatiban parte hartzeko aukera izango dute energia sortzeko eta kudeatzeko.

## Zabalik dago Ojala Zelaiko lasterketan izena emateko epea

Maiatzaren 15ean jokatu du Joseba Mardo-ren oroimenezko Ojala Zelaiko 42. herri krosea izena emateko epea zabaldu dute; Ibarra kiroldegira jo daiteke, edo Herrikrosaren webgunearen bitartez egin –*herrikrosa.eus*–.

Helduen krosa 11:00etan hasiko da eta 8.140 metro egingo dituzte lasterkariak; aurretik, umeen lasterketak izango dira.

## Urkuluri bira ematera gonbidatu dituzte herritarrek biharko

Aretxabaletako Sarek 1.000 kilometro egin gura ditu bihar, maiatzak 7, Urkuluri bira emanda. Herritarrek taldeetan banatuta emango diote buelta –oinez, bizikletan...–. Izena alde aurretik ematea hobetsi dute –*aretxabaletakosare@gmail.com*–, baina egunean bertan ere ager daiteke; Goroetako hegaztien begiratoritza abiatuko dira, 10:30ean.

**M**obiliario  
**ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# Adimen urritasuna oztopo ez dela erakutsiko dute

Genuine ligako lagunarteko partiduak jokatu dituzte domekan, Ibarra futbol zelaian, Realak, Athleticen, Alavesek eta Eibarrek. Adimen urritasuna duten pertsonengan futbola normalizatzea helburu, 11:00etan hasiko dira zortziko futboleko partiduak

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Domekan, Genuine ligako lagunarteko txapelketa jokatu da Ibarra futbol zelaian. Liga honetan, adimen urritasuna duten pertsonen jokatzeko dute, eta 115 parte-hartzaile arituko dira, guztira, UDaren 75. urteurrenaren egitarauaren barruan antolatutako egitasmoan. Hain zuzen, Realaren, Athleticen, Eibarren eta Alavesen arteko partiduak izango dira, 11:00etan hasita.

UDAK kirola ulertzeko duen moduari jarraipena emanaz antolatutako ekintza da; hau da: "Kirola ez da goi mailakoa bakarrik, kirola guztien eskura jarri behar da eta kirola gizartean ahalik eta gehien zabaltzeko lan egin behar dugu". Ideia horrekin antolatu dute futbol txapelketa.

**Futbolaren beste kontzeptu bat**

"Uste dugu garrantzitsua dela Genuine liga bistaratzeko eta aukera hori eskaintzea bertan



Genuine ligako Athleticen jokalariek partidu batean. ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA

ari diren taldeei. Batetik, gaur egun murrizak direlako bistaratzeko dituzten aukerak; eta, bestetik, oso interesgarria delako talde hauetan egiten den balio transmisioa. Jokalariek beste futbol kontzeptu bat dute

buruan eta hori erakusten dute jokatzeko dutenean", adierazi dute UDAtik.

Zortziko futbola izango da Ibarra futbol zelaian. Zelai handia erditik banatuko da eta bi taldek alde batean jokatu

## "Genuine ligako futbol partiduetan egiten den guztia ospatzen da"

**IGOR ARENAZA** ATHLETICEKO GENUINE TALDEKO HEZITZAILEA

UDAn egin zituen lehen urratsak Igor Arenazak. Futbol profesionaleko zenbait taldeetan aritu zen, eta jokalaria moduan ibilbidea ere Aretxabalean bukatu zuen. Duela zenbait urtetik hona, Athletic Fundazioan ari da, eta proiektu ezberdinetan ari da arlo sozialean lanean. Horietako bat da Athleticen duen Genuine taldea.

**Zein ezberdintasun dago Genuine ligako partidu baten eta bestelako liga bateko partidu baten artean?**

Genuine ligako partidu batean dena ospakizuna da. Kirol emaitzak ez du garrantzirik eta edozein gauza txiki, lorpen... ospatu egiten da. Emozionalki oso potentia da. Adibide bat jartzearren: guk irakasten diegu aurkariek gol bat sartzen



ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA

digutenean haiekin ospatu behar dela, eurak ere gola sartzeko saiatu egin direlako... Hori horrela, lehiakortasuna alde batera uzten dugu, eta beste balio batzuk transmititu. **Domekan zer izango da ikusgai Aretxabalean?** Festa bat izango da, eta baita aukera bat aldarrikapen batekin hasteko. Gizartean integratu beharra sustatzen dugu, eta herri txikietan ere sustatu behar da; alegia, ikusarazi eta normalizatu egin behar dugu.

dute eta beste bik beste erdian. Partiduak 24 minutura jokatu dituzte, eta partidu baten eta bestearen artean 10-15 minutuko atsedena izango da.

UDaren 75. urteurrenaren egitaraua prestatzean, etxekoa den

Igor Arenazarekin harremanetan jarri ziren kirol elkartetik; Athleticen Genuine taldearen arduraduna du gaur egun. "Igorrek asko lagundu gaitu eta ekimen honen antolakuntzan lan handia egin du".

## Mugimendu librea eginez, "ecstasia"-ren bila

'Ecstatic dance' saioa izango da maiatzaren 13an, Ibarra kiroldegian, Oskar Estanga DJak gidatuta

**I.B.** ARETXABALETA

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 13an, *Ecstatic dance* saioa egingo dute, Jaiki elkarteak antolatuta eta Oskar Estanga DJak gidatuta, Aretxabaleako Ibarra kiroldegian, 18:00etatik 21:00etara bitartean.

**Dantza librea**

Dantzaldi librea izango da saioan eskainiko dena, Oskar Estangak jarritako musikarekin lagundutakoa: "Dantzaldi libre bat, hitzik, zapatarik eta substantziarik gabe. Zeure buruarekin, taldea-

rekin. Musika izango da lehen-gai, aitzakia, arrazoi. Jaio, garratu, erotu, loratu eta bukatuko den saioa, behar duzun bezala mugitzeko, epaitu gabe. On egiten digunak erakutsiko digu zerk egiten digun on, eta, agian, mugimendua izatearen *ecstasia* ager daiteke", adierazi dute Jaiki elkarteak.

Hori horrela, *Ecstatic dance* saioa gonbidatu nahi dituzte herritarrak; esan moduan, nahi duten moduan mugitzera eta dantzatzera. Saiora joateko interesdunek 688 81 96 65 telefono

zenbakira deitu edo idatzi dezakete, eta hamabost euro ordaindu beharko dituzte langileak badira; eta hamabi euro, berriz, langabezia dauzaten pertsonen.

**Ikastaro irekiak**

Ekintza berezi honez gain, Jaiki elkarteak kideek asteroko ikastaroekin jarraitzen dute Aretxabaleako kuartel zaharrean. Astelehenean, lindy hop edo swing ikastaroa egiten dute; bi talde ari dira dantza saio horietan: hastapeneko taldea eta eskarmentuduna. Martitzenetan, berriz, bat-bateko konposizio dantza ikastaroa egiten dute. Hala, ikastaroren batean parte hartzeko interesa duen edozein herritarrek ateak irekita izango dituela azpimarratu dute, eta talde guztiak irekiak direla nabarmendu dute.

## Udaleku irekietan izena emateko epea zabaldu dute

Maiatzaren 18a aurretik eman beharko da izena, online, udal webguneko formularioa beteta

**I.B.** ARETXABALETA

Aurtengo udaleku irekiak uztailaren 4tik 22ra izango dira. 2010 eta 2018 urteen artean jaio-tako haurrei zuzenduta daude, eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dago; online egin beharko da. Maiatzaren 18a bitartean, udal webguneko formularioa bete beharko da izena eman nahi den ume bakoitzeko. Guztira, 320 plaza eskainiko dira, eta 4 eta 12 urte bitarteko haurrek oporretan euskaraz eta aisialdiaz ekintzen bitartez gozatzeko asmoz antolatu dira

aurtengo udalekuak. Hori horrela, Aretxabaleako Udalak antolatutako udako eskaintza hau aurrera eramateko 72.320 euroko partida bideratu da, eta Loramendi Euskara Elkarte arduratuko da programa kudeatzeaz.

Udalekuetan parte hartzeko, ume bakoitzeko 85 euro ordaindu beharko dira, eta udalekuen ordutegiari dagokionez, soilik goizez eskainiko dira, 09:00etatik 13:00etara, nahiz eta 2018an jaio-takoentzat ordutegia 10:00etatik 13:00etara bitartekoa izango den.



# Kulturaren alde, programazio bete

Zapatuan ospatuko da Eskoriatzako Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna. Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute, askotariko ekintzekin, adin guztientzat zuzendutakoak, eta, orain arteko ildo beretik jarraituz, musika ardatz dutenak

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Atxorrotx Kultura Elkarteak, urtero moduan, elkartearen eguna ospatuko du zapatu honetan. Programazio bete eta adin guztiei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte egun osorako; betiere, kultura ardatz izanda.

Txistularien kalejirak emango dio hasiera jaiari, eta, herritarrek esnatu ostean, Fernando Eskoriatza plazan puzgarriak izango dira txikienez. Horrekin batera, talo goxoak prestatuko dituzte, eta horretan Eskoriatzako Talogileen taldeko kideen laguntza izango dute. Horrekin batera, ez du hutsik egingo urteroko ziza-errifen salmentak.

## Paella-janean jendetza

Herri bazkaria ere egingo dute, eta menua paella izango da, postrearekin, edariarekin eta kafearekin. Hala, haurrek hamar euro ordaindu beharko dute eta, helduek, berriz, hamabost euro.

Txartelak Inkernu tabernan daude salgai, eta horiek erosteko azken eguna gaur, egubakoitzea, izango da. "100 lagunetik gora batuko gara bazkaltzeko, eta, azken unean animatzen direnak ere beti izaten direnez,

130 lagunetara iritsi gaitzkeelakoan gaude. Guretzat kopuru ona da; izan ere, pandemia aurretik gutxiago batzen ginen, eta honek erakusten du jendea parte hartzeko gogoz dagoela", adierazi du Edorta Barandiaranek, Atxorrotx Kultura Elkartearen lehendakariak.

## Egitaraua

### Maiatzak 7, zapatua

- **11:30** Txistulariekin kalejira.
- **12:00** Puzgarriak, Eskoriatzako Talogileek prestatutako taloak eta ziza-errifen salmenta.
- **14:30** Paella-jana. Txartelak Inkernu tabernan daude salgai.
- **18:00** Buruhandiak.
- **19:30** Motxila 21 taldearen kontzertua.
- **22:30** DJ Elvis Kaino, Inkernu tabernan.

### Rockak ez du mugarik

Musikak ere ez du hutsik egingo zapatuan; izan ere, Motxila 21 taldekoak izango dira oholta gainean kontzertua eskaintzen. 2017an ere izan ziren Eskoriatzan, eta orduko arrakasta bera izateko asmoz etorriko dira berriz ere. "Motxila 21 taldearen helburu bakarra ez da soilik musika egitea. Integratzeko modu bat da, jendearekin harremanak izateko, eta gurean izan zirenean oso ondo konpondu ginen haiekin; berriz etortzeko eskaintza egin genienean, beste eskaintza bat zutela esan ziguten, baina gure aldeko apustua egin dute.



2019an, Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna ospatu zen azkenengo edizioan. GOIENA

Hori horrela, behar duten moduan erantzun nahi diegu guk ere...", adierazi du Edorta Barandiaranek.

Motxila 21 Down Sindromea Elkartearen hamabost gaztek osatutako musika taldea da, beste hainbat kolaboratzaileekin batera, eta rock estiloa lantzen dute. Musikaz gozatzea eta zailtasunei aurre egitea mahaiaren helburua, eta 19:30ean eskainiko dute emanaldia eskoriatzarren aurrean. Gauean, berriz, eguneko programa amaitzeko, 22:30ean, DJ Elvis Caino izango da musika jartzen Inkernu tabernan.

### Elkartea, osasuntsu

Bi urte gelditu samar egon ostean, elkartea indartzeko pausoak

eman nahi dituzte aurten, eta horretarako, urteroko ekintzak egiten jarraitzeaz batera, herrian antolatzen ari diren beste hainbat elkarte eta hitzordurekin kolaboratzen jarraituko dutela esan du Barandiaranek. "Bazkide kopuru bera mantentzen dugu; guztira, 90 pertsona inguru daude Atxorrotx Kultura Elkartearen. Zazpi elizateen martxan, Gabez Takarraranen ere izango gara laguntzen, eta, biharko egunak lan asko ematen digun arren, gure ekintza handiena prestatzen ere ari gara: Errekan Gora. Uztailean antolatzen iraileko asteburu bakarrera mugatu genuen, proba gisa, eta aurten ere hala egingo dugu".

## Udaberriko kontzertua, herriari zuzendutako obrek

Eskoriatzako bandaren emanaldia gaur, egubakoitzea, izango da, 20:00etan, Zaldibar antzokian

### I.B. ESKORIATZA

Gaur, egubakoitzea, 20:00etan eskainiko dute Beheko Errota Musika Eskolako bandako kideek udaberriko kontzertua, Zaldibar antzokian. Sarrera doakoa izango da, antzokiko edukiera bete arte, eta bandako musikariek herritarrek animatu nahi dituzte emanaldiaz gozatzea. Izan ere, bandatik adierazi dutenez, "herriarentzako piezak dira; eskoriatzarrei zuzendutakoak".

Eskoriatzako musika bandako kideek hiru pieza eskainiko dituzte herritarren aurrean,



Jesus Urrutia banda zuzentzen. GOIENA

Jesus Urrutia Eskoriatzako bandako zuzendariaren gidaritzapean; horietako bat, lehen aldiz. *Mario*, *Aitzorrotz* eta *Esko Aurrera* piezak dira jendaurrean jotzeko prestatu dituzten kantak. *Mario* izeneko pieza Mario Padilla Eskoriatzako euskaltzalea eta txistularia omentzeko kantua da; *Aitzorrotz* pieza, berriz, lehenengoz entzungo dute Zaldibar antzokira joaten direnek. Jesus Urrutia zuzendariak sortutako pieza da hori, eta, hiru zatitan, Atxorrotzeko historia kontatu nahi da. *Esko Aurrera* pieza, azkenik, Imanol Andetxaga bandako musikariak sortutako pieza musikala da, eta San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaietan, San Pedro Txikietan, estreinatu arren, berriro entzuteko aukera izango dute herritarrek.



ARANTXA UNZUETA

## Atxorrotzeko egunean jendetza

Maiatzaren 1ean, hileko lehenengo domekan, Atxorrotzeko eguna ospatu zen. Herritar ugari batu zen Eskoriatzako mendia ermitako kanpaiak jotzeko, karpan zerbait jan eta edateko eta goiz-pasa ederra lagunartean edo familian egiteko. Arratsaldean, berriz, Gauargi erromeria taldearekin gozatzeko aukera izan zen, herriguneari.





Eskoriatzako udaleku irekietan, Txirikila Aisialdi Elkarteko hezitzailea haurrei argibideak ematen. IMANOL BELOKI

## Udaleku irekiak goizez bakarrik izango dira

Uztailaren 5etik 22ra bitartean egingo dira 2010-2018 urte artean, biak barne, jaiotako haurrei zuzendutako udaleku irekiak. Izen-ematea zabalik, udal webguneko dokumentazioa bete beharko da, eta ordainketa agiria bidali 'txirikila@gmail.com'-era

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Azken bi urte hauetan, COVID-19aren pandemiagatik Eskoriatzako udaleku irekiak goizez bakarrik eskaini dira. Ordutegi aldaketaren inguruan gurasoen partetik balorazio onak jasota, uztailean egiten diren udalekuak soilik goizez eskaintzea erabaki dute antolatzaileek.

"Gurasoen artean udalekuen ordutegiaren inguruko kontsulta bat egitea erabaki zen. Apirilaren 1ean hasi eta apirilaren 13ra arte egin zen kontsulta, eta kontsulta horretan bi aukera eman ziren: astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00ak arte eta eguenetan 09:00etatik 17:00etara eskaintzea udalekuak edo astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara eskaintzea. Familia bakoitzari boto bat emateko aukera eman zitzaion. Guztira, 81 boto jaso ziren: 60, lehen aukeraren alde; eta 21, bigarrenaren alde. Hori horre-

la, hemendik aurrera udalekuak goizez izango dira", adierazi dute Eskoriatzako Udaleko Gazteria Saitetik.

### Izen-ematea zabalik dago

Azken bi urteetan bezala, aurten ere udaleku irekieratako izen ematea online bideratuko da. Dena den, modu horretan egiteko arazoak dituztenek modu presentzialean ere egin ahal izango dute, Tortolis ludotekan bertan, astelehenetik egubakoitzera, 16:45etik 19:15era.

Uztailaren 5etik 22ra bitartean izango dira 2010 eta 2018 urte artean, biak barne, jaiotako haurrei zuzendutako udalekuak, eta prezioak honako hauek dira: 70 euro haur bat, 135 euro bi

**MAIATZAREN 13RA ARTEKO EPEA DAGO ESKORIATZAKO UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO**

haur eta 204 euro hiru haur. Hori horrela, maiatzaren 13ra arte dago epea izena emateko. Horretarako, izena emateko dokumentazioa bete beharko da, Eskoriatzako Udal webgunean dagoen formularioa beteta, eta ordainketa agiria [txirikila@gmail.com](mailto:txirikila@gmail.com) helbidera bidalita. Ordainagirian haurren izen-abizenak eta jaiotza-urtea jarri behar direla azpimarratu dute antolatzaileek.

### Begiraleak behar dira

Udaleku irekietan hezitzaile gisa aritzeko, Eskoriatzako Txirikila aisialdi elkarte dagoeneko hasi da begirale bila. Curriculumak maiatzaren 9ra arte jasoko dira Tortolis ludotekan (17:00-19:00) eta [txirikila@gmail.com](mailto:txirikila@gmail.com) helbidean. Eskoriatzarrek lehenetsuna izan arren, ezinbestekoa izango da euskaraz ondo hitz egitea, lan formakuntzetara joatea eta curriculumekin batera tituluak atxikituta bidaltzea.



Haizea eta Oihana Arana ahizpak Arkupe aretoan egindako ikuskizunean. I.B.

## Era sinplean adierazi arren, gai sakonak lantzen dituen saioa

Domekan izango da 'Erre, aldarri bat bertsoz' ikuskizuna, 19:00etan, Zaldibar antzokian

### I.B. ESKORIATZA

Bertsoak eta askotariko arte-diplinak batuta sortutako eta hamar piezarekin osatutako *Erre: aldarri bat bertsoz* ikuskizuna eskainiko dute Haizea eta Oihana Arana ahizpa eskoriatzarrek, Leire Vargasek eta Aner Peritzek.

Otsailaren 5ean Durangon estreinatu zuten obra, eta, dagoeneko zenbait saio egin ostean, etxean arituko dira arantarrak, Vargas eta Peritz alboan dituztela. Balorazioa egiteko goizegi den arren, orain arte izan duten harrerarekin gustura agertu dira antzezleak. "Momentuz, pozik

gaude ikuskizuna izaten ari den harrerarekin. Jende dezente ari da aretoetara etortzen, eta haien partetik jaso dugun feedbacka ona da", adierazi du Oihana Arana eskoriatzarrek.

### Errepikatzeko modukoa

"Gai sakonak lantzen ditugu, modu azalekoan, simple eta umoretik jorratuta, baina, hala ere, ez da hutsala geratzen, eta ikus-entzuleei errazago iristen zaizkie mezuak. Hala ere, batek baino gehiagok esan digu behin baino gehiagotan ikusi beharreko saioa dela".



ARIZMENDI-ALMEN

## Autorik gabeko eguna aldarri

Almeneko iraunkortasun batzordeak autorik gabeko eguna antolatu zuen eguaztenerako, eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikasleak oinez, bizikletaz eta patinetaz joan ziren ikastolara, herriguneetatik, ikasleen segurtasuna bermatu, ohitura osasuntsuak eta bizitza aktiboa sustatu, CO2 isurketak murriztu eta gunean autoen erabilera gutxitzea helburu izanda.



# Herriko txokoak asmatzeko lehiaketa

Tortolis ludotekan asmakizun lehiaketako bigarren edizioa jarri dute martxan; guztira, lau asmakizun izango dira, astero bat. Erantzun guztiak batzean, gehien asmatu dituztenen artean saria zozketatuko dute, maiatzaren 31n, ludotekako itxiera-jaietan.

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA**  
Iaz data hauetan egin zuen bezala, aurten ere Tortolis ludotekak datozen lau asteetarako asmakizun lehiaketa jarri du martxan. Bigarren edizio honetan, aldiz, asmatu beharrekoa Eskoriatzan dagoen leku bat izango da. Parte hartzaileek leku horretara joan beharko dute eta bertan familia-argazkia atera beharko dute.

## Lehenengo asmakizuna

Tortolis ludotekako hezitzaileek lehenengo asmakizunaren bideoa grabatu zuten ludoteka aurrean, parte hartu nahi dutenei zuzenduta, eta apirilaren 29an zabaldu zuten erabiltzaileen artean. Honako hau da: *Harrizkua naz, oso aspaldikua. Alberja onduen nau eta egarrixaz bazauz neuk asetuko zaut. Eragin buruari, eta esan nor naizen.*

## Erantzuna argazkietan

Asmakizun bakoitzak Eskoriatzako txoko bat adieraziko du; txokoa zein den asmatutakoan, bertaratu eta familia-argazkia atera beharko da. Argazki hori izango da asmakizunaren erantzuna, eta argazkia bera Whatsappez bidali beharko da zenbaki honetara: 688 60 13 74. Argazkiarekin batera, haurraren



Lehenengo asmakizunerako grabatutako bideoaren une bat. TORTOLIS LUDOTEKA

izen-abizenak eta adina ere adierazi beharko dira mezuan. Lehenengo asmakizuna jendaurrean, bigarren asmakizunaren azalpen-bideoa gaur argitaratuko dutela adierazi dute.

Egitasmoa HHko eta LHko haurrei eta gurasoei zuzenduta dago, etxean elkarrekin jolas daitezten. Maiatzeko lau asteetan, astero asmakizun bat argitaratuko dute, eta sare sozialen bidez eta Whatsappez zabaldu. Asmatzaileen artean eta erantzun gehien asmatzen dituztenen artean saria zozketatuko dute

maiatzaren 31n ludotekan egingo duten itxiera-jaietan.

## Asmakizunen datak

Bigarren asmakizuna gaur, egubakoitza, kaleratuko dute, eta hilaren 13rako bidali beharko da erantzuna. Hirugarren asmakizuna, berriz, maiatzaren 13an argitaratuko dute eta erantzuteko azken eguna maiatzaren 20a izango da. Laugarren asmakizuna, eta azkena, aldiz, maiatzaren 20an argitaratuko dute eta erantzuteko azken eguna maiatzaren 27a izango da.



Unidad Alavesa, Oñatiko Ikatz tabernan emandako kontzertuan. JOKIN BEREZIARTUA

## Unidad Alavesaren folk-rockak girotuko du Makilakorta jaia

Makilakorta jaialdiaren bigarren edizioa ospatuko da bihar, zapatua, Gatzaga City Krew gazte taldeak antolatuta

## Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Makilakorta Fest jaialdirako dena gertu dute Gatzagan, eta herriko ateak guztientzat irekita dituztela adierazi nahi izan dute. Izan ere, egitarau xumea antolatu dute, baina bertaraten diren guztiek ongi pasatzeko modukoa. Izan ere, goizean herri pilota txapelketa izango da; gero, *catering* enpresa batek prestatutako herri bazkaria – paella-; ondoren, pilota txapelketako finalak jokatuko dira; eta iluntzean, Arrasateko Kontrolde eta Ataungo Unidad Alavesa musika taldeen kontzertuak izango dira.

## Aurreikuspenak gaindituta

Gatzaga City Krew gazte taldeko kideak aritu dira egitaraua antolatzen, eta "pozik" agertu dira, aurreikusi baino parte-hartze handiagoa izango delako pilota txapelketan eta herri bazkarian.

"Ahalik eta jende gehien erakaritzea zen hasiera batean ezarri genuen helburua, eta lortuko dugu. Izan ere, 16 urtetik gorakoentzat ireki genuen pilota txapelketarako izen-ematea, eta arrakasta handia izan du, eta bertan arituko diren gazte gehienak herri bazkarian ere izango dira. Hala, hamazortzi bikote animatu dira pilota txapelketa jokatzeko, eta bazkaltzeko ia 100 lagun batuko gara", adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak.

Pilota txapelketa ez da kategoriara banatuko eta "pike sanoa" izango delakoan daude antolatzailerak. "Irabazleentzat ez dugu adierazi saririk egongo denik, baina jasoko dute zerbait. Beraz, egon dadila lehia. Horrekin batera, sekulako kontzertuak ditugu, doan izango dira; beraz, gozatu dezala jendeak", adierazi du Agirreurretak.



**Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba**

Eguzkia berdea da

## Zatoz aurkezpen-hitzaldira

**Eman izena bazkietzan lehentasuna izateko**

Zure energia, sortu, kontsumitu eta kudeatzeko aukera

● Eguzki energia kontsumitu ● Kooperatibako bazkide izan ● Erosoa, obrarik egin gabe

---

**Herritarrei zuzendutako hitzaldi informatiboa**

**ESKORIATZA**

Maiatzaren 12an, 18:30ean,  
Zaldibar Antzokian

**GATZAGA**

Maiatzaren 16an, 18:30ean,  
Kultur etxean

ITZULPEN-ZERBITZUA EGONGO DA.




www.ekiola.eus



**Uxue Igarza Loiola** BERGARA

Urtebete da *Bergara izan, bizi, ekin* plana abiatu zuela Bergarako Udalak, eta plan horren baitan kokatzen da Euskararen Historia Soziala jasotzeko nahia. Sustatzaileek azaldu dutenez, gerra ostetik trantsiziora arteko historia ezagutzea, memoria berreskuratzea eta protagonistei aitortza egitea da asmoa.

Zeregin horri ekiteko, lan-mahaia osatu zuten euskalgintzaren alorreko eta Bergarako Udaleko zenbait kideak, eta baita norbanakoek ere: euskararen gainean ezagutza handia duten Juan Martin Elexpuruk, Anaje Narbaizak, Jerardo Elortzak eta Jaione Isazelaiak, besteak beste.

Azterlanaren muina elkarrizketak dira; hots, protagonisten testigantzak jasotzea. Ekaitz Aranberri Herriarren batzordeko lehendakariak azaldu duenez, "liburuetan agertzen ez dena jakitea" lortzen ari dira horrela: "Protagonisten ahotik jaso nahi dugu gertatutakoa, horrek aberasten baitu historia. Une honetan horretarako aukera dugula aprobetxatu behar dugu".

Elkarrizketa horiek egiteko Badihardugu elkarteak izan da bidelagun. "Bergarako Udalak eta Badiharduguk 2003a ezkerreko egiten dute elkarrekin lan, herriko ahozko ondarea jasotzen. Egitasmo honekin lankidetzara horri jarraipena eman nahi izan zaio garrantzi berezia duen gai baten inguruan", zehaztu du Ekaitz Aranberri.

#### 26 testigantza jaso dituzte

Idoia Etxeberria Badihardugu elkarteko kideak kontatu duenez, 2020an hasi ziren euskalgintzaren alorrean egondako mugimendua jasotzen: "Elkarrizkatzeko pertsona proposak



Lan-mahaiko kideak, orain arteko lana aurkezteko agerraldian. UXUE IGARZA

## Herriarrek, funtsezkoak historia soziala osatzeko

Euskararen Historia Soziala jasotzeko egiten ari diren lana aurkeztu dute Bergarako Udalak eta Badihardugu elkarteak. Aurten, dibulgazioan jarri nahi dute indarra, eta horretarako, erakusketa bat eta ikus-entzunezkoak prestatzen ari dira, besteak beste

zeintzuk izango ziren pentsatu genuen lan-mahaian, eta ondoren, haiengana joan eta elkarrizketak egin genizkien".

Hamalau elkarrizketa egin zituzten iaz eta hamabi aurten; Laboratorium museoa gehienak. Elkarrizketatuetakoz batzuk dira Jose Luis Gorrotxategi, Koldo Alberdi *Egileor II.a*, Maite Barrera, Jabier Mendizabal *Surra*, Rosa Narbaiza, Gotzon Bikuña, Eneko Oregi, Arantzazu Narbaiza, Blanca Narbaiza, Mikel Lazpiur eta Arantxa Ibarzabal. Euskalgintzako hainbat alorretan euskara sustatzeko egin duten lana da elkarrizketetan jaso dena: hezkuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, kultur arloan –antzerkia, bertsolaritza, kantagintza, dantza– eta abar. "Elkarrizketa horiek pa-

sartez pasarte entzun eta landu ditugu, eta guztiak daude *ahotsak.eus* webgunean", gehitu du Idoia Etxeberriak.

#### Ahotsaz gain, materiala

Elkarrizketak egiteaz gain, azken hilabeteetan garaiko materiala ere jaso dute azterlana elikatzeke: kartelak, esku-orriak, argazkiak, diskoak... Arantzazu Oregi Bergarako Udal Artxiboko arduradunak lan horretan jarraituko dutela azaldu du eta horretarako herriarren laguntza beharko dutela: "Testigantzak izan dira ardatza Euskararen Historia Soziala jasotzeko, eta Bergarako Udal Artxibotik ere saiatu gara ekarpena egiten, baina garai hartan administrazioak lan gutxi egiten zuen gaiaren inguruan; ez dago horren

inguruko udal dokumenturik. Horregatik interesatzen zaigu jendeak etxean garaiko euskalgintzari lotutako materialik badu, gurekin harremanetan jartzea".

Hala, gerra ostetik 1980ra bitartean euskara bultzatzeko egindako lanarekin lotutako materialak batu nahi ditu artxiboak. Materialaren kopia digitalizatuak egin nahi dira, eta ondoren jabeen itzuliko zaizkie. Harremanetan jartzeko, [artxiboa@bergara.eus](mailto:artxiboa@bergara.eus) helbidera idatzi, 943 77 91 32 zenbakira deitu edo bertara gerturatu daitezke herriarrek.

#### Aurrera begirako urratsak

Estepan Plazaola Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuruak azaldu du zeintzuk izango diren aurrerantzean egingo dituzten

urratsak: "Alde batetik, gure asmoa orain arte egindako lana osatzea da. Elkarrizketa mordoak egin dira –eta ikuspegi orokorra jaso dugula uste dugu–, baina elkarrizketa gehiago egiteko aukera dugu. Bestetik, dibulgazioan jarriko dugu indarra".

Dibulgazio eta zabalkunderako, hainbat ekimen abiatuko dira. Horietako bat izango da abenduaren 11tik 25era Aroztegin zabalduko duten erakusketa. "Herriarregandik elkarrizketetan jaso dugun informazioa aurkeztuko dugu paneletan, eta bildutako materiala ere bertan erakutsiko dugu (...) Erakusketaren asmoa da garai hartan euskararen egoera zein zen eta nolako lanketak egiten ziren erakustea", argitu du Plazaolak".

Horrez gain, orain arte egindako elkarrizketa guztiak ikus-entzunezko bakarrean jasoko dituzte, eta urria eta azaroko bitartean hitzaldiak ere egingo dituztela aurreratu du Plazaolak. "Era berean, ikastetxeen begira, unitate didaktikoak egin nahi ditugu, zabalkundearen eta transmisioaren laguntzeko", gehitu du. Bukatzeko, protagonista izan direnei aitortza egin nahi zaie la ere adierazi dute lan-mahaiko kideek, eta horretarako ekitaldi bat egitea aurreikusten dute. Aurrekontuari dagokionez, orain arteko lanek 12.000 euroko kostua izan dute, eta, estimazioen arabera, hemendik aurrerako asmoak egiteko 15.000 euro behar dituzte.

### HERRITARREN EKARPENETAN OINARRITUTAKO ERAKUSKETA EGINGO DUTE ABENDUAN

## Zientzia eta kultura uzartzen dituen lehiaketa abian da

1.000 euroko lau sari banatuko dira zientzia herrira gerturatzea helburu duen 'Jot Down' lehiaketan

**U.I.L.** BERGARA

Iaz hasi zen Laboratorium Museoa zientzia gizartera hurbiltzea helburu duen *Jot Down* lehiaketa babesten. Rosa Errazkin arduradunaren esanetan, ekimena aukera ona da zientzia eta

kultura uzartu eta herrira zabaltzeko: "Ondo informatutako herria herri askeagoa da; horri gehitu behar zaio zientzian gehien inbertitzen duten nazioek epe ertainean konpentsazio argia lortzen dutela".

Lau modalitate hartu daitezke parte lehiaketan (argazkigintza, ilustrazioa, saiakera eta narratiba), eta gaia berdina da guztientzat: *ikusezina*. 1.000 euroko lau sari emango dira; bata, zientzia-dibulgazioko saiakuntzaren kategoriarako; bestea, zientzia-fikziozko narratibaren kategoriarako; hirugarrena, zientzia-ilustrazioaren kategoriarako; eta laugarrena, zientzia-argazkigintzarako. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 15eko 14:00etan amaituko da.



Zientzia, irudi baten. JOT DOWN

## Herriarregana joko du Udalak adikzioen tokiko plan berrirako

Bergarako Udalak Adikzioen V. Tokiko Plana egiteko prozesua abiatu du. Horren baitan herriarrei kontsulta egiteko bi esku-hartze egingo ditu hilabete honetan. Alde batetik, herriar guztiei bideratutako galdetegia zabalduko dute, eta, bestetik, aurreratu dute maiatzeko azken astean, "partaidetza foroak" egingo dituztela.



# ASPAC Eren erakusketa Agorrosinera iritsi da

SPACE Gipuzkoa 50. urteurrena ari da ospatzen. Horren harira, 24 panelek osatzen duten '50 urte inklusioa bermatzen' izeneko erakusketa ibiltaria izango da ikusgai, maiatzaren 17ra bitartean, Agorrosin kiroldegiko lehen solairuan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
SPACE Gipuzkoak 50 urte bete ditu, eta hori ospatzeko, *50 urte inklusioa bermatzen* izeneko erakusketa ibiltaria sortu dute, Orona Fundazioaren babesarekin. Erakusketak zentroak dauken Gipuzkoako herriak bisitatu dituzte datozen hilabeteetan, eta aste honetan, Bergarako Agorrosinen egin du geldialdia. Maiatzaren 17ra bitartean izango da ikusgai, kiroldegiko lehen solairuan. Garun paralisia duten pertsonen errealitatea, haien ingurune pertsonal eta familiarra eta elkarteak balioesten dituen balioak azaltzen ditu 24 panelek osatutako erakusketak, modu didaktikoan eta pedagogikoan. Halaber, paneletako bat Bergarako Oxirondo eta Ibaiondo egoitzei zuzendutakoa da.

Astelehenean, maiatzaren 2an, egin zuten aurkezpen ekitaldia, kiroldegian, eta bertan hartu zuten parte SPACE Gipuzkoako Elisa Carmona presidentek eta Rosa Iglesias idazkariak, Eneko Ziarsolo bailarako ASPACEko guraso elkarteko ordezkariak, Aritz Bikuña Oxirondo zentroko erabiltzaileak eta Gorka Artola alkateak. Herriko bi zentroetako erabiltzaileek, gurasoek eta profesionalak ere ez zuten hitzordua galdu



Aurkezpen-ekitaldian parte hartu zuten hizlariak. I.A.

nahi izan. Gorka Artola alkateak ASPACEk herrian eginiko lana eskertzeaz gain, erakundeak Bergarari asko ematen diola aitortu zuen, eta "bide horretan Udala ere bidelagun" izango duela. "Edozelan ere, inklusioaren asko egin da, baina asko geratzen da eta denoi dagokigu gure aldetik jartzea".

## Zerbitzu eskaintza zabala

SPACE Gipuzkoa 1971n sortu zen, eta Bergarako izan zen zabaldu zuten hirugarren zentroa, 1976an. Orduetik, zerbitzuen es-

kaintza handitu egin da. 1989tik 2008ra bitartean, eguneko zentroa egon zen kokatuta Ibaiondo zentroan, eta 2008a ezkerreko hezkuntza berezia eskaintzen du. Oxirondo, berriz, 2004an ireki zen eta eguneko jardueren zerbitzua eskaintzen du. Arrasateko eskaintza osoagoa da, eta, Bergaran eskaintzen denaz gain, erabiltzaileen txerataz azaldu du, eta, "zoritarrez, inklusioan aurrera egiteko beharra" dagoela nabarmendu du.

ralisia duten gazteak eta ikaste-teko neska-mutikoak.

Elkartea garun paralisia dutenen beharrak asetzen saiatzen da, eta herriko familiek diote egoitzak ordutegi malguak dituela eta oportunitateak ematen jarraitzen duela. Gainera, asteburuetan arnas zerbitzua eskaintzen du.

## Gela egonkorren beharra

"Pixkanaka, gela egonkorrek zabaltzen ari dira Gipuzkoa osoan zehar, baina lana daukagu oraindik", adierazi du Koldo Mujikak, Ibaiondo zentroko profesionalak. Honako hau dio: "Helburua, hein handi batean, gure ikasleak eskolen barruan egotea da, gizarteak gu hobeto ezagutzeko eta normaltasun batekin ibiltzeko. Nik uste dut 50. urteurren honek lagunduko digula ezagutarazten eta gure ideiak harago zabaltzen".

Une honetan, Bergaran ez dago gela egonkorrik, baina Ibaiondo zentroko hezkuntza berezia eskaintzen du. Eneko Ziarsolo erabiltzaile baten aita da, eta, Ibaiondoen lana nabarmendu arren, "bakarrik" dagoela eta ez dagoela eskolaren batean txeratatuta azaldu du, eta, "zoritarrez, inklusioan aurrera egiteko beharra" dagoela nabarmendu du.

## Ereindako haziaren fruituak

Arrasaten eta Eskoriatzan badaude gela egonkorrek, eta Ziarsolok argi dauka ikasleek asko ikasten dutela halako getetan; baina, batzuetan, egoera desegokiak bizitzea egokitzen zaie, zoritarrez. Duela gutxi semearekin batera bizitako pasarte bat azaldu zuen aurkezpenean. Mutiko batzuek burla egin zioten Ziarsoloren semeari, eta *Tximeleta* gelako ikaskideek defendatu egin zuten, bi aldiz,

"mutil berezia da eta ez iezaiozue errespeturik falta" esanez. "Halakoetan ikusten da gela egonkorretan dabilzan ikasleek balioak ikasten dituztela, gure seme-alabak ezagutzen dituzte, eta badakite eurekin jolasten eta ibiltzen. Defendatu egiten dituzte".

## 50 urte inklusioaren alde

SPACEk Gipuzkoan 492 lagun artatzen ditu, eta 361 profesional egiten dute lan. Boluntario taldea, berriz, 126 lagunek osatzen dute. Elkarteak lurraldeko hamaika udalerritan dituen zentroen banaketak aukera ematen die arreta-familiei etxetik gertuen dagoen zentro batean artatzeko.

Erakusketa-ibiltariarekin ospatu nahi izan du urteurrena elkarteak. 50 urte hauetan eraldaketa handia bizi izan du, garun paralisia duten pertsona eta euren familiak eguneroko jardueren erdigunean mantenduz.

24 paneletan ASPACE Gipuzkoak egiten duen lana ezagutu ahal izango du bisitariak. Horretaz gain, zer den, erabiltzaileek, familiek, profesionalak eta boluntarioek duten garrantzia, elkarteak lurraldean duen eragina, eskaintzen dituen zerbitzuak eta historia ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Maiatzaren 17a izango da bisitatzeko azken eguna. Bergararen ostean, Arrasate eta Eskoriatza bisitatu dituzte erakusketa ibiltariak.

## "GELA EGONKORRETAO IKASLEEK BALIOAK IKASTEN DITUZTELA IKUSTEN DA"

## Dokumentala, txapelketa eta hitzaldiak Pol-Polen mendian

Zapatuan, boulder txapelketa izango da; mendizale taldeak egitasmoaren balorazio positiboa egin du

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Pandemiaren ostean, aurreneko mendi astea ospatzen ari da Pol-Pol mendizale taldea aste honetan. *Arrastoan* dokumentalaren emanaldiarekin ekin zieten joan den astelehenean

jardunaldiei. Laponiara egindako bidaiaren baldintzatan egin zuten erakutsi zuten.

Martitzenean, berriz, Jokin Lizeagaren txanda izan zen. Mendi lasterketek dituzten sufrimenduz eta poztasunez hitz

egin zuten; baita Asturiasen izan zuten istripuz ere.

Donnayan eskalatazaleek hitzaldia egin zuten atzo, eguna. Boulder txapelketak emango dio amaiera mendian asteari, zapatuan, Labegarrietan, arratsaldeko bostetan.

Aitor Erañak, Pol-Pol mendizale taldeko diruzainak, mendian astearren balorazio positiboa egin du: "Pozik gaude, aberasgarriak izan dira hitzaldiak. Jendearen erantzuna ona izan da; aretoa ere guztiz bete da".



Jokin Lizeagak hitzaldia egin zuen martitzenean. J.B.





EAJko zinegotzi Lander Arregi, Maite Agirre eta Joseba Elosua Mizpildi kalearen hasieran, eguaztenean. JOKIN BEREZIARTUA

## "Agintaldi osoa daroagu mugikortasun planaren zain"

EAJk salatu du EH Bildu agintaldi hasieran lantzen hasi zen mugikortasun plana "berandu" datorrela eta zirriborroko datuak ez direla gaur egungoak; parking berri baten beharra dagoela berretsi dute jeltzaleek, eta herri galdeketa proposatu dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

EAJk dio EH Bildu "berandu" dabilela mugikortasun planarekin, eta bertan azaltzen diren datuak ez datozela bat gaur egungoekin. Udal Gobernuak duela aste batzuk iragarri zuen mugikortasun azterketa aintzat hartuta, eguazten arratsaldean batzokian egindako prentsaurrekoan jeltzaleek salatu zuten 2019a ezker mugikortasun planaren zain daudela: "Hiru urte daroatza EH Bilduk Gobernuan eta oraindik ez du garatu bere osotasunean mugikortasun plana. 2019a ezker mugikortasun planaren zain; orduan, 2020ko aurrekontuen lanketan, aparkalekuen beharra mahai gaineratu genuen, baina zain egoteko eskatu zituguten, planak emango zituen emaitzen arabera zehaztuko zela aparkaleku beharra. Bi urte geroago eta agintaldia amaitzear dagoela, planaren zirriborroarekin gaude, inongo irizpide zein ekintza zehatzik

gabe. Gainera, nahi politikoei erantzun dien plan bat da. Agintaldi oso bat galdu dugu".

### Herri galdeketa nahi dute

Aurreko agintaldian, EAJ Udal Gobernuan zegoenean, Seminario azpiko parkinga izan zen lantzen hasi ziren proiektu esanguratsuena. Proiektua eten zenean herri galdeketa bat ere eskatu zuten jeltzaleek: "Urteak daroatza lur azpiko aparkalekuaren beharra azpimarratzen eta argi dugu herritarrek arlo honetan ere zeresana dutela. 2022ko aurrekontuetarako herri galdeketa egitea proposatu genion Gobernuari aparkalekuaren beharra dagoen jakiteko, partaidetza prozesu demokratikoaren bidez.

### ALKATEARI GALDETU DIOTE EA ORDAINPEKO TAO JARRIKO DUTEN APARKALEKUEN ARAZOA DELA ETA

Baina EH Bilduk ezezkoa eman zigun, planaren aitzakia hartuta". Alkateari zuzendutako galdera batzuk ere egin zituen Agirrek eguazteneko agerraldian: "Planetik ekintzetara pasatzeko ordua da. Zer egingo du alkateak aparkalekuen gaia konpontzeko? Ordainpeko TAO ezarri? Agintaldia amaitzear dago eta planak besterik ez dugu esku artean; ez dago erabakirik ezta ekintzarik definituta, ez gai honetan, ezta gainontzekoetan ere".

### Parking beharra dagoela diote

Mugikortasun planaren zirriborroak 17.908 euroko aurrekontua izan duela gogora ekartzeaz gain, EAJren irakurketa da parking beharra egon badagoela: "Ikerketaren arabera, 2017tik 2019ra bitartean aparkaleku libreak %10 izatetik %3 izatera pasatu ziren eta auto kopurua ez da jaisten; beraz, ez dago aparkaleku nahikorik eta, ondorioz, autoak herrian bueltaka dabilta aparkaleku bila".



Egunean 8.000 menu prestatzen dituen Qualita & Servizi enpresara bisita. GURE PLATERA

## Eskolako jangela eredu berriez ikasten bertatik bertara, Italian

San Martin eskolako jantokia hobetzeko esperientziak ezagutzen ari dira Ereindajan eta Biolurreko ordezkari bana

**J.B. BERGARA**

Eskolako jangela eredu "osasuntsuago, hurbilago, bidezkoago eta hezitzaileago" baten aldeko Gure Platera Gure Aukera ekimenaren barruan, Ereindajane-ko Ainhoa Narbaiza eta Biolurreko Ane Gorosabel Italian daude, elikadura burujabetzaren bueltako askotariko esperientziak ezagutzen. Bergarako San Martin eskolako jantokia eredu aldatzeko nahitik abiatuta egin dute bidaia Italiara; hilaren 3an abiatu ziren eta etzi, domeka, itzuliko dira. "Gure Platera Gure Aukera ekimenaren aterkipean

joan gara, tokiko elikadura politikak eta eskola jangelen eraldaketa nola martxan jarri eza gutu eta ikasteko", azaldu du Narbaizak. Bisitatik azpimarratu duten lekuetako bat da Qualita & Servizi enpresa publikoa: "Sei udalerritako eskola jangele-letarako menuak prestatzen dituzte, egunean 8.000 menu inguru. Ekoizle txikiekin egiten dute lan zuzenean, bertako eta sasoi-ko produktu osasungarriekin. Hainbat ondorio atera ditugu; horien artean, elikadura politika publikoak aldatzeko borondate politikoa ezinbestekoa dela".

## OHARRAK

### Pentekosteetarako kartela eta zapirako leloa

Maiatzaren 8ra arte dago zabalik Pentekoste jaietako egitarauko azala aukeratzeko bozketa. Aurkeztu diren azalaz [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean daude ikusgai. Bestalde, Jardunek antolatzen duen jaietako zapirako lelo lehiaketa ere martxan dago; hilaren 18rako eman behar da izena: [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com).

### Etxebizitzaren gaineko hitzaldia UNEDen

Maiatzaren 10ean izango da saioa, 18:30ean hasita. Honako hau da hitzaldiaren izenburua: *Etxebizitza: bizitza gabeko etxeak*.

### Ekinez jaialdirako beroketa kontzertua

Azken Erromantikoak taldea; gaur, Arrano tabernan (23:00).

### 1942an, 1949an eta 1952an jaiotakoak

1942koak maiatzaren 21ean elkartuko dira, Zumelagan; izena eman behar da hilaren 18rako: ES50 3035 0009 1700 9116 0485 (Laboral Kutxa). 1949koak maiatzaren 22an elkartuko dira, Tartufon; izena eman behar da hilaren 17rako: ES19 3035 0009 1300 9116 0463 (Laboral Kutxa). 1952an jaiotakoak, azkenik, maiatzaren 28an elkartuko dira eta eskatu dute lehenbailehen emateko izena: ES17 3035 009 1800 9009 8783 (Laboral Kutxa).



**Mendekotasun egoeran dauden pertsonen  
arreta egiteko Erdi Mailako Zikloa  
Gizarteratzeko Goi Mailako Heziketa Zikloa**

**ATE IREKIAK**

**Maiatzak 11**

**AURREMATRIKULA**

**Maiatzaren 9tik 27ra**

**Mariaren Lagundia Ikastola  
Espoloia Kalea 1, Bergara  
T: 943762540**

**[mlagundia.org](http://mlagundia.org)  
[koordinatzaileagmhz@mlagundia.org](mailto:koordinatzaileagmhz@mlagundia.org)**



**Mariaren Lagundia Ikastola • Bergara  
MARIAREN LAGUNDIA**



Alai taldeak 50 urteko ibilbideari agur esango dio domekan. ALAI TALDEA

# 50 urte igaro eta gero, agur Alairi

Herria eta inguruko txokoak alaitu ostean, maiatzaren 7an Seminarioan esango dio agur 50 urteko ibilbideari. Hamalau abesti kantatuko dituzte, eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Orfeoia eta Aritzeta abesbatza izango dituzte lagun eszenatokian

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA Musikarekiko eta abestearekiko zaletasunak batu zuen lagun-talde bat 1971n. Musika dute pasio, eta, joan diren tokira joan direla ere, kantuan ibili dira beti. Ondorengorik ez du taldeak, eta, ondorioz, ibilbideari agur esango dio domekan, hamalau kantarekin. Kontzertu bereziaren prestaketa lanetan dabilta Xabier Olabarria, gaur egungo zuzendaria, eta gainerako kideak, 50 urteren ostean eskainiko duten azkena izango baita.

Azken bi urteetako pandemiaren albo-kalteak nabaritu ditu Alai taldeak ere. Olabariaren esanetan, "nahikoa izan da pare bat beldurtuta egotea, jardunari ez ekiteko". Azken kontzertua atzeratu egin behar izan dute, taldekide guztiak oholtzan batera agurtzea baita helburua. Hain zuzen, urte

hauetan guztietan ibilbide oparua izan du Alai taldeak.

## Taldearen sorrera

1971n sortu zen Alai, baina 60ko hamarkadan daude aurrekariak. 1972ra arte, Olabarria ez zen taldera batu. Hala ere, honela gogoratu ditu hastapenak: "Bergaran musika popularra euskaraz lantzen zuen Amezlarriak taldeak, baina desegin egin zen. Gure Ametsa talde parrokiara, berriz, zuzendari gabe geratu zen. Horrenbestez, bateko zuzendariarekin eta beste kideekin sortu zen Alai".

## AZKEN KONTZERTUA MAIATZERA ATZERATU DUTE, TALDEKIDE GUZTIAK OHOLTZA GAINEAN IZATEKO

## Bergarako mugak hausten

Bergarako auzoetako festa askotan aritu dira: "Ia urtero joan izan gara Elorregira, hango San Prudentzio jaietara. Frontoian hasiera ekitaldian abestu dugu, baita mezan ere". San Blas eta Ubera auzoetan eta Bergara bertan ere eskaini dituzte kontzertuak, besteak beste. San Martzialgo erromerian ere hartu dute parte.

Bailarako herrietan ere egon da aukera Alai taldearen doinuak entzuteko. Adibidez, Eskoriatzan eman zuten azkenetariko emaldia, pandemia aurretik.

Euskal Herrikan kanpo ere egin dituzte trukeak. "Esaterako, Asturiasen eta Iparraldean egon izan gara, trukeak egiten eta gonbidatuta. Denbora-pasa joaten gara. Taldekideok irteerak ere antolatzen ditugu, eta leku guztietara joaten gara kantuan".

Urte osoan zehar astero entseazten dutela adierazi du, eta ia dei guztiei eman dietela baiezkua. Ezkontzetan abesteko ere deitu izan diete. Kontzertu kopuruari buruz galdetuta, honela dio: "Gure jarduerak ez ditugu kontzertu bezala hartu".

## Musika estilo zehatzik ez

Beste egile batzuen kantuak abestu dituzte, gehienbat. Gaur egungo zuzendariak aitortu du pare bat kantu sortu dituztela, baina, orokorrean, ez dutela sortzailerik eduki taldean. Sasoian sasoiako abestiak kantatzen dituzten arren, abestiak moldatzen saiatu dira: "Kantu herrikoak, espiritualak nahiz ez-espiritalak apaindu ditugu. Denetarik abestu dugu. Domekan, esaterako, *Deep river* abesti afrikarra entzun ahal izango dute Seminarioa bertaraten direnek: *Deep river, deep river...* [abestuz]".

## Abesbatzen arazoa

Une honetan, hamazazpi lagunek osatzen dute Alai taldea: "Gehiago eta gutxiago ere izan gara, baina hamabostetik ez gara sekula jaitsi. Gainera, hamabi beti mantendu izan gara. Norbait sartzeko prest bazegoen, ongi-ortria izan da".

Abesbatzek, ordea, errelebo arazoa daukate, eta duela urte batzuk Alai taldea desagertzeko egon bazen ere, aurrera egin zuen. Kasu honetan, ordea, agur esango du. Gazteek zergatik ez dute abesbatzetan izena eman nahi? Olabarria argi dauka: "Iniziatibarik ezagatik. Kanturako joera badago ere, errazagoa da kirol-taldea sortzea. Gazteek ez daukate eredurik. Euskal Herrian asko konposatzen da, fama handiko konpositoreak ditugu, baina jendea ez da animatzen. Jendea abesten hasiko balitz, dei-efektua sortuko litzateke. Lau pertsona behar dira lau ahotsetan kantatzeko, eta gero, gehitzen joatea da".

Alairen kasua ez da bakarra. Hain zuzen ere, Bergarako San Joxepe abesbatza ere kideak bilatzeko arazo berarekin dabil. 2019ko urrian eskaini zuen azken

## ZENBAIT KORU DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDE, EZIN DUTELAKO KIDERIK TOPATU

kontzertua, eta, bi urteko etenal-diaren ostean, egoera zailean dago. 45 partaide zituen pandemiaren aurretik, eta "etenaldiak zenbat eta gehiago iraun, orduan eta zailagoa izango da itzulera", zioen Ramon Amasorrainek, taldeko zuzendariak, GOIENAK eginiko elkarrizketa batean. "Abestu edo abesten jarraitu nahiko zukeen erretiratutako pertsona oro animatu nahi dugu. Guztiak izango dira ongi-ortriak, badakigu-eta Bergaran jendea badagoela abestea gustatzen zaiona, baina, bereziki, tenoreak eta sopranoak behar ditugu".

## Agurreko kontzertua

Alai taldearen aroa maiatzaren 7an amaituko da, arratsaldeko zortzietan, Seminarioan. Talde omenduaz gain, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatza igoko dira oholtzara. Guztira, hamalau abesti prestatu dituzte, eta horietatik hiru Alai taldeak bakarrik abestuko ditu. Hala ere, Xabier Olabarria baieztatu du laugarren bat prestatuta daukela, badaezpada. "Ordubete inguruko kontzertua ematea da asmoa, baina ez dugu asko luzatzerik nahi. Entzuleentzat ere ez da batere ederra luzatzea".

Sorpresak sorpresa, zerbaiten jakitun bada Olabarria: "Ustedut 50 urte hauetan zuzendari izan gareno zerbait ematea pentsatu dutela. Horretaz gain, gure historia laburtzen duen ikus-entzunezko piezaren bat proiektatuko da hasieran. Gehiago ez dakit; baldin badago, niretzat ere sorpresa izango da".

## Mende laurdena Alai zuzentzen

Alaik izan duen hirugarren zuzendaria da Xabier Olabarria. 1996-1997 bitartean hartu zuen kargua. Zuzendariak taldea zuzentzeko ardura izaten du, baina, haren esanetan, "ez da ardura taldea zuzentzea. Ondo egiteko ardura daukat soilik. Gustuko gauza bat egiten dut, eta taldekideek ere hala egiten dute. Gustatzen zaigulako gabilta kantuan, eta kirol-talde baten antza daukagu: norbera hobetuz gero, taldea ere hobetu egiten da". Zuzendariaren gustuek ere markatzen dute taldearen estiloa, eta beltz espirituala eta errusiar erritmoa gustatzen zaizkio. Etxean jaso du musikarako pasioa, eta hori nabaritu da elkarrizketan zehar.



# Euskal kantagintzaren atzean dagoena aztergai

Jardun euskara elkarteak eta Bergarako Udalak 'Hitzen ahairea' ikastaroa antolatuta dute; 2019an ere egin zuten euskal kantagintzaren inguruan hausnartzeko ikastaroa Bergaran. Oraingoan ere Gotzon Barandiaranek eta Rafa Ruedak eskainiko dute

**Uxue Igarza Loiola** BERGARA

*Hitzen ahairea* kantagintzari buruzko ikastaroa eskainiko dute Gotzon Barandiaran idazleak eta Rafa Rueda musikariak Bergaran datorren urtean.

Euskal kantagintzan sakontzeko aukera eman nahi dute, eta, horretarako, parte hartzaileekin batera hainbat galderari erantzunak bilatzen ahaleginduko dira, hiru saiotan: *Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herria? Zein eragin izan dute idazle eta musikariren artean sortutako kanteak euskaldunon imajinarioan? Zein alde dago historia liburuetan erakusten digutenaren eta idaz-*



2019an Bergaran egindako saio baten argazkia. GOIENA

*le eta musikariren artean sortutako kanteak kontatzen dutenaren artean? Zein zen kantaren funtzio soziala XX. mendean? Eta zein da gaur egun?*

Galdera horiei erantzuteko hainbat baliabide erabiliko dituzte: batetik, kantariak eta musika taldeek abestietarako erabili dituzten testuak landuko dituzte; bestetik, kantarien eta poeten arteko harremanak aztertuko dituzte. Gainera, kantatu ere egingo dute ikastaroan.

## Hiru saio Zabalotegin

Ikastaroa urtarrilaren 27an, otsailaren 3an eta 10ean egingo da Zabalotegi aretoan. Ordutegiari dagokionez, arratsaldeko seietatik zortzietara izango dira saioak. Bestetik, ikastaroaren prezioa 10 eurokoa izango da –eta 8 eurokoa Jardun elkarteak bazkideentzat–.

Izena eman nahi dutenek Jardun euskara elkartearen egin beharko dute: Errotalde jauregira bertara joanda, 943 76 36 61 edo 605 71 25 69 telefono zenbakietara deituta edo [jardunkultura@topagunea.com](mailto:jardunkultura@topagunea.com) helbide elektronikora idatzita.

## Hilaren 14ra arte eman daiteke izena Musika Eskolan

Begarako Musika Eskolaren 2022-2023ko ikasturterako matrikulazio epea ekainaren 14ra arte dago zabalik. Musika eskolatik diote "musika kultura sustatzea" dela helburu nagusia.

Izena emateko, musika eskolako idazkaritza irekita egongo da 15:30etik 19:30era, eta, bestela, 943 76 57 80 edo 679 15 45 12 zenbakietara dei daiteke.

## San Migel Monte jaiak berreskuratuko dituzte domekan

2020an, pandemiak baldintzatu-tako egoeran, Angiozarko Goidemendi auzokoek ezin izan zuten ospatu ermitaren 200. urteurrena. Domekan, baina, 2022 urteak ospatuko dituzte.

Meza izango dute ermitan, 12:00etan, Durangoko Begi Argiak abesbatzak lagunduta. Eta abesbatzaren emanaldiaren osterako, luntxa antolatu dute.



## Musikarekin hazi, hezi eta bizi

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK maiatzaren 3tik ekainaren 14ra

[www.bergarakomusikaeskola.com](http://www.bergarakomusikaeskola.com)

943 76 57 80 eta 679 15 45 12

[idazkaritza@bme.e.telefonica.net](mailto:idazkaritza@bme.e.telefonica.net)











Antzuolako Olalde Pilota Eskolako entrenamendu-saio batean, haurrak udal pilotalekuan. AITOR AGIRIANO

## 62 haur arituko dira Atzeko Txapelketan

Antzuolako Olalde Pilota Eskolako txapelketako partiduak gaur, egubakoitza, 7 eta 10 urte bitartekoek jokatu dituzte, 17:30etik 20:00etara bitartean; eta, bihar, zapatua, 11 urtetik gorakoek 09:00etatik 20:00etara jokatu dituzte

**Imanol Beloki Unamuno** ANTZUOLA  
Antzuolan bada eskupilotarako zaletasuna, eta horixe demostratu dute asteburuan jokatu duten Antzuolako neska-mutikoen eskupilota txapelketako izen-ematean. Izan ere, 62 gaztetxok eman dute izena Udal Pilotalekuan egingo den torneorako, eta aurreikuspenak gainditu dituzte, antolatzaileek adierazi dutenez.

Olalde Pilota Eskolak antolatutako egitasmoa berritasunekin dator, gainera. Izan ere, izen-emate kopuru handiaren ondorioz, formatu berezian antolatzea erabaki dute: Atzeko Txapelketa gisa izendatu duten txapelketa.

### Formatu berezian

Duela zenbait urte frontoiaren atzeko aldean egiten zen herriko pilota txapelketa, taula barruko mugen barruan, eta aurretik, formatua berritu gura izan dute, eta txapelketa egun bakarera mugatu; hau da, 24 orduko txapelketa gisa. Parte-hartzea

handia izango denez, beste formatu baten aldeko hautua egin dute antolatzaileek, eta bi egunean egingo dute txapelketa: "Gaur, 7 urtetik 10 urtera bitarteko hamazazpi lagun arituko dira herriko eskupilota txapelketan; eta zapatuan, berriz, 11 urtetik gorako berrogeita bost neska-mutiko. Atzeko Txapelketa izena jarri diogu, ez dugulako frontisaren kontra jokatu, ezker pareta errebotte moduan erabiliko dugulako. Izan-emate handiaren ondorioz, frontoiaren aurreko aldean eta atzeko aldean jokatu ditugu partiduak, frontoiko dimentsioak mugatuta", adierazi du Andoitz Aranburuk, Olalde Pilota Eskolako monitorea.

### AURTENGO HERRI PILOTA TXAPELKETA FORMATU BEREZIA ERABILITA ANTOLATU DUTE

### Irabazleak, epaile lanetan

Gaur jokatu dituzten eskupilota partiduetan, lehenengo lau postuetan sailkatzen diren pilotariak zapatuko partiduetarako sailkatuko dira, nagusien aurka jokatzeko, eta Olalde Pilota Eskolako kideak jarraipena egiten, emaitzak apuntatzen eta abar arituko dira, bidelagun. Izan ere, epaimahai gisa partidu bakoitzean irabazle izendatzen diren pilotari gazteak arituko dira. "Partidu bakoitzeko irabazleak izango dira segidan izango den partiduko epaile, hurrenez hurren. Izan ere, partidu asko izango dira, eta guztiak kontrolatzea ez litzateke erraza izango. Herritarrek ilusioz hartu duten txapelketa da, eta, aurreikuspenak gaindituta, giro aparta izango dugulakoan gauden", adierazi du Aranburuk.

Sariei dagokienez, Atzeko Txapelketako irabazleak txapela jasoko duen arren, luntx bat egingo dute parte-hartzaile guztientzat.

## San Isidro jaietako ekintza-sorta gertu dute, bi egunerako

Maiatzaren 13an eta 14an, bertso-saioa, herri bazkaria, pentatloia eta erromeria izango dira, besteak beste

### I.B. ANTZUOLA

Egitarruari hasiera emateko, egubakoitzean, hilaren 13an, bertso saioa izango da Torresoroan, 22:00etan, eta, bertan arituko dira Urko Arregi, Maialen Akizu, Aitor Sarriegi, Andoni Egaña eta Nerea Elustondo bertsolariak, Jon Mata gai-jartzaiaren gidaritzapean. Sarrerak salgai daude dagoeneko zortzi eurotan, *bibe.me* webgunean eta liburutegian.

Maiatzaren 14an, zapatu goizean, berriz, azoka izango da, kukumarro-lehiaketa, umeen-

dako jolasak, txistulari eta trikitilariekin kalejira eta pentatloia. Azken honetan, Karmele Gisasola eta Lucia Orbe eta Xabier Zaldua eta Aratz Mugerza arituko dira.

Eguerdian, bazkaria egingo da patioan, eta txartelak salgai daude liburutegian eta udalategian; helduentzat 20 eurotan eta haurrentzat 12 eurotan. Bazkalostean, berriz, Udazken taldea izango da, eta 19:00etatik 21:00etara eta 22:00etatik 00:00etara Imuntzo eta Beloki arituko dira oholta gainean.



ANTZUOLAKO HERRI IKASTETXEA

## Omenaldia eskolako irakasleei

Antzuolako ikastetxetik pasatako eta dagoeneko erretiratu dauden irakasle guztiek eta garai hartakoak diren baina gaur egun irakasle gisa aritu eta erretiroa hartuko duten azken bi irakasleek —Rosa Agiriano eta Asun Zabalo— omenaldia jaso dute. Antzuolako eskolak gaur egun duen metodologia haiek sortutakoa denez, aitortza egin nahi izan diete.

### Etorkizuneko eredu ekonomikoa: lan-saioa Torresoroan

Antzuolako HAPO garatzeko partaidetza prozesua abian da, eta dagoeneko talde eragilean eta saio irekietan aritu dira lanean zenbait herritar. Hori horrela, Antzuolako Hirigintzaren Plan Orokorra lanketaren barruan, datorren maiatzaren 12rako ekonomiari eta jasagarritasunari buruzko saioa antolatu du Udalak.

Antzuolako ekonomia ereduaz arituko dira, eta jarduera ekonomikoaren inguruko hausnarketa egin nahi du Udalak, energiaren, ingurunearen eta lurzoruen erabilerekin harremana duten hainbat arloren argiuneak eta hobetzekoak identifikatzeko eta etorkizunera begirako erronkak irudikatuzko. Beraz, HAPOren testuinguruaz baliatuta, maiatzaren 12an, datorren egunean, 18:30ean, Torresoroan egingo dute lan-saio irekia.



# Mendizaletasunaren txokoa liburutegian

2024an beteko dira ehun urte Euskal Mendizale Federazioa Elgetan sortu zela. Liburutegian interesgune berezia jartzeko proposamena egin dio Federazioak Udalari, eta prest agertu da liburu dohaintza egiteko. Aho batez onartu du udalbatzak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Elgetako udalbatzak bederatzita puntu izan ditu mahai gainean apirileko osoko bilkuran. Horien artean nabarmendu da, besteak beste, Euskal Mendizale Federazioarekin sinatzeko den hitzarmena. Bi urte barru beteko dira ehun urte Euskal Mendizale Federazioa Elgetan sortu zela. Elgetako liburutegian mendizaletasunari buruzko interesgunea jartzeko proposamena egin dute Federaziotik, eta bikoiztuta dituzten liburuak dohaintzan emango dituzte, txoko bat egon dadin gaiari eskainia. Udalbatzak aho batez onartu du hitzarmena sinatzea.



Elgetako udalbatzako kideak apirileko osoko bilkuran. L.Z.L.

**Euskara ikasteko dirulaguntzak**

Udalbatzak aho batez onartu du, baita ere, euskara ikasteko dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa. Dirulaguntzak "euskara Elgetatik kanpo ikasteko" izango zirela jasotzen zuen ordenantzak, eta, aurrerantzean, herrian egiten diren ikastaroetan parte hartzeagatik ere eska daitezke laguntzak, "betiere, urteko eta ikasleko 800 euroko mugarekin". Horiek dira bi aldaketa nagusiak.

**Diru-lerro berriak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Espainiako Gobernutik jasotako 2022-KALD-2 diru-lerrotik Elgetara bideratutako 38.000 euroak sei inbertsio-lerrotara bideratzea proposatu du EH Bilduk. Oposizioa abstenitu egin da. "Hemen badaude gastu batzuk aurrekontuan aurreikusita egon beharko luketenak. Ikusten duguna da egiten dela aurrekontu bat, baina ez dela erreala; izan ere, diru-sarrera bat dagoenean beste gauza batzuetarako bideratzen da dirua. Ez dugu ikusten benetako norabide bat", esan zuen EAJko Aintzane Oiarbidek. "Kontra gaude, baina Gureak Taldeari dagokion gehikuntza

## LIBURUAK IRITSITAKOAN HASIKO DIRA LIBURUTEGIAN INTERESGUNEAREN PRESTATZEN

babesten dugunez, abstenitu egingo gara", gaineratu zuen.

Gureak Taldearekin Udalak duen kontratuari dagokionez, alkateak jakinarazi du ekainean amaituko dela. Zerbitzua hobetzeko jasotako eskaerari erantzunez, ia 3.000 euroko gehikuntza onartu du udalbatzak, eta baita ere esleipen berria egiteko baldintza plegua. Aurreikuspena da 52.000 euro gehi BEZA izango dela kostu totala lau urterako. Gaiaren inguruan informazio gutxi eta berandu jaso izana salatu zuten jeltzaleek, baina aldeko botoa eman zuten.

Spainiarrekin Udalak duen kontratuari dagokionez, alkateak jakinarazi du ekainean amaituko dela. Zerbitzua hobetzeko jasotako eskaerari erantzunez, ia 3.000 euroko gehikuntza onartu du udalbatzak, eta baita ere esleipen berria egiteko baldintza plegua. Aurreikuspena da 52.000 euro gehi BEZA izango dela kostu totala lau urterako. Gaiaren inguruan informazio gutxi eta berandu jaso izana salatu zuten jeltzaleek, baina aldeko botoa eman zuten.

Spainiarrekin Udalak duen kontratuari dagokionez, alkateak jakinarazi du ekainean amaituko dela. Zerbitzua hobetzeko jasotako eskaerari erantzunez, ia 3.000 euroko gehikuntza onartu du udalbatzak, eta baita ere esleipen berria egiteko baldintza plegua. Aurreikuspena da 52.000 euro gehi BEZA izango dela kostu totala lau urterako. Gaiaren inguruan informazio gutxi eta berandu jaso izana salatu zuten jeltzaleek, baina aldeko botoa eman zuten.

## 38.000 euro sei zereginetarako

- Frontoiko teilatua lan bertikalak egiteko segurtasun linea jartzeko 16.000 euro
- Elizan erloju berria jartzeko 10.000 euro
- Udaletxean galdara berria jartzeko 6.000 euro
- Bizikleten gunea hobetzeko 3.193 euro
- Elizan erloju berria jartzeko 10.000 euro
- Gureak Taldearekin Udalak duen kontraturako gehitzeko 2.848 euro

**OHARRA:** Gipuzkoako Foru Aldundiak Espainiako Gobernutik jasotako '2022-KALD-2' diru-lerrotik Elgetara bideratutako diruarekin egingo diren inbertsioak.

## Azken astea Elgetako frontenis txapelketan izena emateko

Maiatzeko azken asteburuan jokatu dira partidak; gizonetzkoen eta emakumezkoen lehiak izango dira

**L.Z.L.** ELGETA

Elgetan indartsu dabil frontenisa azken boladan, eta herritar talde batek antolatuta txapelketa jokatu da maiatzeko azken aste bukaeran; maiatzaren 28an eta 29an, hain zuzen ere.

Badira aste batzuk izena emateko aukera zabalik dela. Antolatzaileek iragarri zuten nahikoa bikote elkartuz gero asmoa dela bi txapelketa antolatzea: gizonetzkoena eta emakumezkoena. Aste honetan jasotako informazioaren arabera, bost bat bikotek eman dute izena txapelketa bakoitzerako, oraingoz.

Izena emateko epeak zabalik jarraitzen du, hilaren 13ra arte. Hortik aurrera eta txapelketa jokatzeko apuntatu den bikote kopuruaren arabera zehaztuko dituzte partidaren kopurua eta egutegia. Txapelketa Elgetako frontoian jokatu da.



Frontenis txapelketa, 2019an. L.Z.L.

Izen-ematea bikoteko 10 euro da, eta federatu gabeko jendearendako txapelketa da. Argibideak eska daitezke [fronteniselgeta@gmail.com](mailto:fronteniselgeta@gmail.com) helbide elektronikoan. Pandemia tarteko, bi urte eman dituzte Elgetan frontenis txapelketarik gabe.

## Ferixa Nagusiko jaietako kartel lehiaketa

Jai batzordea hasita dago Ferixa Nagusiko jaiak antolatzen. Ekainaren 30etik uztailaren 3ra ospatuko dira jaiak, eta kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Hilaren 13rako aurkeztu behar dira lanak, eta guztiak buztin gelan egongo dira ikusgai hilaren 16tik 22ra. Herritarrek boto bidez aukeratu dute irabazlea. Saria 100 eurokoa da.

## Ozkarbi eguneko bazkarirako izena emateko aukera

Ozkarbi elkarteak zuzendaritzak hilaren 21erako iragarri du Ozkarbi Eguna. Eguerdiko poteoaren emango diote hasiera egitarauari. Trikitilariak eta buruhandiak ere bertaratuko dira. Bazkaria eta erromeria izango dira ondoren. Domekan, hilak 8, amaitzen da bazkarirako izena emateko epea. Prezioa da 30 euro.

## OHARRAK

### Elektrotzaranga

Gaztetxea itxi zenean gelditutako sosak tarteko, Elektrotzarufla elektrotzaranga izango da gaur, 19:30ean, kalez kale Elgetan.

### 'Bost teilatu' lana

Eguaztenean, 18:30ean, *Bost teilatu* lan kolektiboa ikusgai udaletxean. *Geuretik sortuak* egitasmoaren baitan egindako ikus-entzunezkoa da.

### Erretiratuak, Ordiziara

Xalbadorpe elkarteak antolatuta egun osoko irteera, eguaztenean, Ordiziara.

### Irakurketa feministak

Irakurketa talde feministaren lehen saioa liburutegian, eguenean, 18:30ean. Gaia: *Zer da zuretzat feminismoa?*

### Emakumeen Itzulua

Hilaren 14an Itzuliko tropela Elgetatik igaroko da. Etapa 108 kilometrokoa da, eta Mallabirako bidean pasako dira Karabetatik.



# Araozko ostatuarendako oinarriak onartu dituzte

Hileko gutxieneko alokairua 1.500 eurokoa izango da eta bost urterako esleipena izango da, baina hamar urteko proiektua gauzatzeko aukera eskainita; interesa dutenendako bisita gidatu bereziak egingo dituzte hilaren 13an eta 18an

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Araozko ostatua eta lau apartamentuak esleitzeko prozesua martxan dago. Zerbitzuaren oinarriak eta baldintzak jasotzen dituen agiria onartu du udalbatzak, aho batez, apirilko osoko bilkuran. Eskaintzak aurkezteko epea ekainaren leian itxiko da eta instalazioak ikusteko bi bisita egun zehaztu dituzte: maiatzaren 13a eta 18a.

## Udarako martxan egoteko nahia

Oinarrietan jasotzen den moduan, bost urterako hartuko du interesatuak Araozko ostatua eta lau apartamentuak kudeatzeko ardura, eta beste bost luzatzeko bidea zabalik utzi; hamar urterako proiektua gauzatzeko aukera da eskaintza. Diruari dagokionez, 1.500 euroko gutxieneko alokairua izango du zerbitzu osoak. Bertako langileek, bestalde, euskaraz ulertu eta berba egiten jakin beharko dute, erabiltzaileei zuzeneko zerbitzuak ematen badizkiete; B2 maila

egiazatu beharko dute, eta, lizitazioan onartua izateko, eskaera hori beteko duela dioen agiria aurkeztu beharko du interesatuak. Ordutegiari dagokionez, egunero egon beharko dute zabalik apartamentu turistikoek, eta ostatuak eta dendak ordutegi ezberdina izango dute asteko egunetan zein udan edo neguan. Irekitze ordua, esaterako, berbera izango da beti: 10:00etan zabalduko dute eguaztenetik domekara. Itxiera, 21:00etan neguko eguazten eta egunetan eta 23:00etan udakoean. Egubakoitz eta asteburuetan, 00:00etan.

Oñatiko Udalaren helburua da lizitazioa martxan jarrita, jendea aurkeztea eta udarako zerbitzua martxan egotea. "Mar-

txoan auzotarrek antolatutako ate irekietan herritarrek izan ziren ikusten eta zerbitzua hartzeko interesa agertu zuenik ere egon zen. Orain, oinarriak ikusita eta bideragarritasun plana aztertuta, espero dugu norbait aurkeztea", adierazi du Oñatiko Udaleko Landa eta Garapeneko batzordeburu Xabier Igartuak.

Interesdunenendako, instalazioak erakusteko bisitak egingo dituzte hilaren 13an eta 18an, aurrez udaletxera deitu eta txanda hartuta: 943 78 04 11.

## Musika eskolarekin akordioa

Lizitazio hau hasteaz gain, Jose de Azpiazu musika eskolaren eta Udalaren arteko lau urterako hitzarmena eta dirulaguntza zuzena ere aho batez onartu zituen udalbatzak. Baita San Lorentzotik Larraña auzoko Irazola okindegiraino doan bidea zabalteko dirulaguntza ematea ere; diru hori lanak auzolanean egiteko materiala erosteko izango da. Udan egingo dituzte.

## ZABALIK DAGO ESKAINTZAK JASOTZEKO EPEA; EKAINAREN 1A DA AZKEN EGUNA



Araozko ostatua eta lau apartamentu turistiko dituen eraikina, kanpotik. GOIENA

## Dagoeneko eros daitezke udaberriko kanpainako bonuak

%20ko deskontua izango dute bonuek eta plataforma erabilia edo zuzenean dendan eskatuta eros daitezke

### O.E.G. OÑATI

Herriko negozioetan erabiltzeko bonu kanpaina abiarazi du Oñatiko Udalak. Aurten, bi deskontu kanpaina egongo dira: udaberrikan bat eta udazkenean bestea. Urrutia eta Marku arropa jantzieta Asier Gorostiaga eta Arantza Markuleta ondoan zituze eman dute kanpainaren berri udal ordezkariak astean, Izaro Elorza alkateak eta Karmelo Guridik eta Unai Kortabarririk, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia batzordeburuak eta teknikariak.

Guztira, 30.000 euro bideratuko ditu Udalak ekimenera, 15.000 euro sasoi bakoitzera. "Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan kontsumo kontziente eta arduratsua sustatzea du helburu ekimenak", adierazi du alkateak, eta aurrekoek harrera ona izan dutela gaineratu du.

### Bi kanpaina

Oñatin errolatutako 16 urtetik gorakoek eros ditzakete bonuak, *oñati.bonoak.eus* plataforma digitala erabilia edo zuzenean dendara edo dagokion zerbitzura joanda. Deskontua 50 eurori aplikatuko zaio, orain, gehienez, herritar bakoitzari; beste 50 eurori udazkenean. %20ko deskontua izango dute; hori da Udalak diruz lagunduko duena. Adibidez, 50 euroko bonua 40 euro ordainduko da.

Udaberriko deskontu kanpainako txartelak hilaren 18ra arte eros daitezke. Udazkenekoa jaien ostean hasiko da eta azarora arte iraungo du. Bonuak, baina, abenduaren 2ra bitartean erabili ahal daitezke, eta posible da udaberriko bonua udazkenean ere erabiltzea. Egundak, herriko 41 saltoki daude atxikituta *oñati.bonoak.eus* plataformara.

## Udalaren babesa izango du ekaineko Topagune Feministak

Oñatiko Udalak pozik jaso du Topagune Feminista herrian egiteko proposamena. Erraztasunak ematen eta baliabideak eskaintzen ahaleginduko direla esan du Izaro Elortza alkateak, Oñatiko eta Arrasateko Bilgune Feministako kideekin eta Anik Zubizarreta udal ordezkariarekin batera egindako agerraldian. "Oso pozik hartu dugu proposa-

mena. Euskal Herri osotik etorriko da jendea, eta Bilgune Feministak topaketa honekin lortu nahi duen helburuarekin guztiz bat egiten dugu Oñatiko Udaletik. Eguneroko jardunean eta, batez ere, Berdintasun Saitetik bultzatzen ditugun politikak bide horretatik doaz. Gure esku dauden erraztasunak eta baliabideak eskainiko ditugu".

Ekainaren 11n eta 12an izango da. Egitaraua prest dute eta sarrierak, salgai. Oñatin, Arrano tabernan eros daitezke.

## Sinadurak batuko dituzte pentsiodunek Madrileran eramateko

Sinadura bilketa hasi dute pentsiodunek, 2022. urtean eta ondorengoetan pentsioen igoera KPI errealekin parekatzea eskatzeko. Espainiako Kongresuan aurkeztuko dituzte, gero, batutako sinadura guztiak. Oñatin ere mahaiak jarriko dituzte horretarako: bihar, hilak 7, 14an eta 21ean Olakuako urmaelean, Eltzian eta plazan.

## Lodifobiari buruzko hitzaldia egongo da hilaren 13an

Oñatiko Jabetze Eskolak antolatuta, lodifobiari buruzko hitzaldia egingo du Mijo Lizarzarburuk maiatzaren 13an. Zehazki, *Lodifobiaren ikuspegi politikoa feminismo intersektionaletik* da hitzaldiaren izenburua. Kultura etxeko zinema aretoan izango da hitzaldia, 18:00etan. Izena emateko edo informaziorako: *berdintasuna@onati.eus*.



Izaro Elorza alkatea, Onintza Andres Partaidetzako udal teknikaria eta Ainhoa Galdos udal bozeramaile jeltzalea. 'KONTZEJUPETIK'

## 500.000 euro herritarren proposamenak burutzeko

Gaurtik hilaren 27ra bitartean egin ditzakete proposamenak herritarrek, online edo herriko hainbat gunetan jarri dituzten postontziak erabilita. Hilaren 19an, informazio tailer irekia egongo da, zuzeneko informazioa jaso edo zalantzak argitzeko

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Partaidetzako aurrekontu prozesua jarri du martxan Udalak; 500.000 euro bideratu ditu horretara. Herritarrek erabakiko dute kopuru hori zein proiektu egiteko erabiliko den, eta proposamenak egiteko epea zabaldu dute. Gaurtik, maiatzak 6, egubakoitza, hilaren 27ra arte egongo da epea zabalik herritarren ekarpenak jasotzeko.

### Loteslea izango da erabakia

Proposamenak online –udal webgunean sartuta– edo udal eraikinetan eta herriko beste gune batzuetan jarriko dituzten postontzietara etxera bidalitako eskuorriak beteta sartuz egin daitezke, eta herritar bakoitzak gura dituen beste egin ditzake. Udala ordezkariak jasotako proposamen guztiak aztertuko dituzte eta baldintzak betetzen dituzten guztien artean lehen-tasuna zeintzuek duten erabakiko dute herritarren artean. Prozesuak udalbatza osatzen

duten alderdi bien babesa du, EH Bildurena eta EAJrena, eta hartutako erabakia loteslea izango da. Hau da, herritarrek erabakitako proiektu horiek egiteko konpromisoa hartuko du Udalak. Herritarrez osatutako berme talde batek egingo dio, gainera, jarraipena, prozesuari.

Aurten izango da hori. Urtea bukatu aurretik erabakiko dute 500.000 euro horiek zertan erabiliko diren eta proiektuak datozen bi urteetan gauzatuko dira, 2023an eta 2024an.

### Prozesua jarraitu daiteke

Proposamenak egiteko baldintza batzuk dira, adibidez, aurretik planifikatu gabea edo martxan ez egotea, udal eskumenekoa,

### UDALBATZAREN BABESA DU PROZESUAK ETA ERABAKIA LOTESLEA IZANGO DA

interes orokorrekoa, interes publikoa duena eta bi urtean egin ahal izateko modukoa izan behar duela. Diruari lotuta, 200.000 euro baino gehiagoko gasturik gabekoa izatea eskatzen da.

Prozesuari buruzko zalantzak, argibideak edo kezak azaltzeko, baina, informazio tailerra egingo dute hilaren 19an. Euskaldun Berria gelan izango da, 18:00etan, eta, informazioa zuzenean jasotzeaz gain, proposamenak egiteko modua ere izango dute herritarrek. Informazio eguneratua jasotzeko bideak ere zabalduko dituzte sare sozialen bitartez. Horretarako bideak: [partaidetza@onati.eus](mailto:partaidetza@onati.eus) helbidea eta 688 67 94 60 edo 943 78 04 11 telefono zenbakiak.

Aurreko aurrekontu parte-hartzailea 2018-2020 urteen artean egin zen. Herritarrek egindako 38 proposamenetatik hamasei aukeratu zituzten; tartean, bizikleten aparkaleku estaliak, komunak pasealekuetan eta Ugarkaldeko jolasgunea estaltzea.

### Jabier Etxeberria apaiza omenduko dute domekan

Jabier Etxeberria Arrese (Oñati, 1931) apaizak omenaldia jasoko du domekan San Migel parrokian, 12:00etako mezaren ostean, hango batzordearen eskutik. Bertotan laburbildu dute haren ibilbidea, eta horiexek kantatuko dizkiote domekako ekitaldian.

Etxeberriak 22 urte zituela esan zuen lehen meza, Oñatin. Ondoren, hainbat herritan egon da apaiz lanetan: Arrasaten, Ibarra, Donostian eta Zumarragan, besteak beste. Oñatin ere ibili da, parrokian ez ezik Olabarrietan, Zubillagan eta Santxolopeztegin ere. Egun, Donostian bizi da, eta hamar bat egunerako etorri da.

### Nerabeen autolesioen inguruko hitzaldia gurasoendako

Autolesioak eta jokabide suizidak zer diren, arrisku-faktoreak eta alerta seinaleak zelan identifikatu eta zer egin lesioak izanez gero edo hiltzeko ideia hitzez adierazten denean. Puntu horiei buruz hitz egingo dute, besteak beste, Oñatiko Udalak, herriko ikastetxeek eta horietako guraso elkarteek gurasoen formakuntzaz arduratzeko osatutako lan-mahaiak antolatutako *Autolesioaren eta suizidioaren prebentzioa gazteengan eta nerabeengan* izeneko hitzaldian.

Maiatzaren 16an izango da, Isniss proiektuko kideen eskutik. Telematikoa izango da eta izena hilaren 12a aurretik eman behar da [ainhoa@onati.eus](mailto:ainhoa@onati.eus) helbidean.



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA GARAI

### Gora jai herrikoiak!

Azkenean! Bi urte luze pasa dira, baina, azkenean, iritsi dira: auzoetako jaiak hemen daude! Eta, zuek ez dakit, baina ni deseatzten nengoen astebururoko jaien maratonia heltzeko. Olabarta, San Miel Txiki, Errekalde, Olakua, Triana, San Lorentzo... Aurten, gainera, beste bi data garrantzitsurekin: Topagune Feminista eta Antixenaren 10. urteurrena. Lehenagotik ere borobila zen egutegian gehitzeko beste bi marka.

Bi urtez zain egon ostean, berriz izango dugu aukera kaleak umore onez, elektrotxararangaz, txorimaloz, dantzaz, parrandaz (eta ajez), auzo bazkariz, trikipoteoz, (ditxosozko) boletoz, txorixo eta taloz, aldarrikapenez... betetzeko. Eta hau dena, noski, auzo batzordeek eta gainontzeko asanbladek egiten duten lan handiari esker.

Bi urte pasa dira, bai, eta denok daukagu gogo txosnetako edalontzia eskuan parranda egiteko; beraz, egin dezagun topa, elkar zainduz eta gozatuz, jai herrikoia eta parekideen alde!





Aurreko asteburuko partiduan, Eskoriatzako taldearen aurkako lehia. IMANOL SORIANO

# Mailaz igotzeko azken izerdiak botako dituzte

Areto futboleko Ingou Coinbroker Aloña taldeak jardunaldiko azken partidua du asteburuan etxean, Lasarteko taldearen aurka. Sailkapenean hirugarren postuan daude oñatiarrak, bigarrenarengandik puntu bakarrera, eta igoera fasea jokatuko dute gero

## Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Denboraldiko azken jardunaldia jokatuko du Ingou Coinbroker Aloña taldeak zapatuan Zubikoa kiroldegiko kantxa urdinean, 20:00etan. Oñatiarrak denboraldi "oso ona" egiten ari dira, hirugarren daude sailkapenean, bigarrenarengandik puntu bakarrera, eta pozik daude egiten ari diren lanarekin: "Pandemia garaian lortu genuen Gipuzkoako bigarren mailara igoera, eta kontuan hartuta aurtengo denboraldia dela maila honetan jokatzeko ari garen lehena, denboraldi oso-oso ona egiten ari gara. 20 eta 29 urte arteko jokalariek daukagu eta ez dugu lesio larriarik izan. Taldea topera dabil, oso motibatuta, eta giro horrek ere laguntzen du", adierazi du Aloña Mendi taldeko areto futboleko saileko presidente Santi Bernalek.

## Azken partiduak

Joan den asteburuan Eskoriatzako aurka lehiatu ziren eta

azken momentuan lortu zuten txantxikuarrek berdinketa (2-2). Oraingoan, Lasarteko Eguzki Ventanas Isu Leihoak taldea izango dute aurkari –sailkapenean hamaikagarren doaz–, eta irabazteko helburuarekin irten-go direla kantxara azaldu du Bernalek: "Joaneko partiduan 3-4 irabaztea lortu genuen euren kontra, nahiko justu, eta lehiatua egon zen partidu hura. Oraingoan, gu irabaztera joango gara; gainera, euren ez dute lehia ez igoerarik ez jaitsierarik, eta guri komeni zaigu ahalik eta goien gelditzea sailkapenean: ahal dela, bigarren, edo, bestela, hirugarren. Gure egitekoa irabaztea izango da, baina beste talde

**DENBORALDI OSO ONA EGITEN ARI DIRA ETA GIPUZKOAKO LEHEN MAILARA IGOTZEKO AUKERA DAUKATE**

batzuek egiten dutenak ere izango du eragina guregan".

## Igoera fasea

Asteburuko azken jardunaldien ostean jokatuko da igoera fasea. Lehenengo gelditzen diren lau taldeek jokatuko dute: lehenengoak laugarrena izango du etsai eta bigarrenak hirugarrena. Joaneko eta etorriko partiduak egingo dituzte eta final handia maiatzaren 28an izango da, Andoainean.

Bi finalistak zuzenean igoko dira mailaz eta lehenengoa izango da Gipuzkoako bigarren mailako ligako txapelduna. Momentu honetan hauek dira sailkapeneko lehen lau taldeak: Lazkao 57 punturekin lehenengo, bigarren Tolosa 51rekin, Aloñakoak hirugarren 50 punturekin eta laugarren Azkoitia 47rekin.

Biharko partiduaz gain, igoera faseko beste bat ere jokatuko dute etxean, eta Bernalek animatzaera joaten diren zaleak eskertu nahi izan ditu.



Letagineko Iban Idigoras, Julen Agirre, Unai Lete eta Mikel Aginagalde. ASIER EGAÑA

## Askotariko musika eskaintza izango da San Miel Txiki jaietan

Gaur hasiko dira, TTEK elektrotzarangak girotuta, eta gauean herriko Letagin taldea igoko da oholtzara

## A.T.G. OÑATI

Txupinazoarekin ekingo diete San Miel Txiki jaiei, 19:00etan. Ttek elektrotzaranga hasiko da kalea girotzen, eta 22:30ean, Uharteko Arakilgo Mendikoa taldea igoko da taula gainera. Ostean, Letagin taldekoek girotuko dituzte jaiak eta festak jarraituko du Miel eta Txiki DJekin, txosnagunean.

Zapatuan, triki-poteoa egingo dute, eta 22:30ean, Dupla bikoak jarriko du martxa. Ostean, Beasaingo Muxutruk taldearen doinuak entzungo dira. Domekan, 13:00etan, Biren kontzertua

izango da Maiatzaren Bata plazan, eta 18:00etan, Oñatzeko dantzarien saioa izango da. 19:00etan, San Anton plazan musikari oñatiarrak dituen Keia taldearen txanda izango da. Bestelakoak ere izango dira: Hotz elkarteak janari postua jarriko du egubakoitzean; eta zapatuan, Alberto Arregiren omenezko mendiko bizikleta zeharkaldia egingo dute.

Udaleko Berdintasun Departamentutik eraso sexisten arretarako telefono bat jarriko dute martxan egubakoitz eta zapatu gauearako: 688 60 20 89.

## Herriko kaleetan jokatuko da orientazio proba

Gipuzkoako Orientazio Liga herrikoiko bosgarren proba jokatuko da domekan. Bertan parte hartuko dute hurrek eta baita nagusiek ere. Antolatzaileek ez dakite Eskola Kirolaren birtatez zenbat gaztetok eman duten izena, baina dakitena da gutxienez 80 heldu ere apuntatu direla parte hartzeko.

Herriko kaleetan jokatuko da, hiru mailatako ibilbideak egongo dira eta mapak Oñatiko Orientazio Eskolako Asier Osinagak prestatu ditu. Irteerak 10:00etatik 12:00etara egingo dira, eta aurrez txipak hartu beharko dira, San Anton plazan. Irteera lekua txipen harrera lekutik 100 metrora egongo da.

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak badaude

Bihar, zapatua, 17:00etan, Zubikoa kiroldegian eskainiko dute *Kuikui* ikuskizuna Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Txantxiku Ikastolak antolatutako ekitaldia da eta sarrerak oraindik eros daitezke ikastolako idazkaritzan eta Txokolateixan, 9 euroren truke. 2 urtez azpiko hurrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

Aurten, euskararen gaiari eutsi nahi izan diote pailazoek, beste behin, *Kuikui* ikuskizunean. Bertan, txoriak zirela amestuko dute eta munduari "kuikui" esango diote. Ama lurra txoriek bezala ikusten eta hari begiratzen ere lagunduko dute pailazoek, kantuen bidez.





## Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Cadiz partida (maiatzaren 12a, 19:00etan) beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.



Eserlekuak  
Premium gunean



Catering  
zerbitzua



Aldageletako tunelean  
jokalariek ikusteko aukera



Ikus-entzunezko  
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu  
pertsonalizatua



353 metro karratuko  
gunea

**Ezin errazagoa da  
zozketan  
parte hartzea!**



**1.**  
Aplikazioa  
deskargatu.

**2.**  
Zozketak atalean sartu  
eta parte hartu.

**Gertu.**  
Zorte on!

**goiena<sup>”</sup>  
kide**

*Okm: batzen gaituen distantzia*



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)



**Xabier Urtzelai** BERGARA

Txakur krosetan hamarkada bat baino gehiago badarama ere, asteburuan Frantziako Pledran (Bretainia) herrian jokatu duten Munduko Txapelketan lortutako zilarrezko domina da Fernando Cobosek (1959), *Luko* txakurra-ekin batera, orain arte egin duen lorpen handiena. Mimos prestatu du txapelketa hori, eta bidelagun ona izan du horretarako, 2015ean *mushing*-ean munduko txapeldun izan zen Itoitz Armendariz eskoriatzarrarekin batera entrenatu da eta Araban.

**Non gorde duzu zilarrezko domina?**

Kajoi batean dut, dagoeneko beste mordoxka batekin nahastuta; ja, ja, ja.

**Eta *Luko* txakurrak izan zuen aparteko saririk?**

Bapo jan zuen, eta atseden hartu zuen gero. Hori da txakurra-rendako sari onena.

**Espainiako Txapelketan eta Kopako probetan lortu duzu munduko txapelketarako txartela.**

Bai; gurea neguko kirola da, eta Espainian egiten dituzten lauzpabost lasterketetan jokoan egoten diren puntuei esker sailkatzen zara Europako eta munduko txapelketetarako. Hala, Espainiako txapelketan zazpi-garren izan naiz beterrano mailan, eta horri esker izan naiz asteburuan Frantzian, Espainiako selekzioarekin batera. Konfirmazioa falta zait, baina uste dut dagoeneko Europako-rako sailkatu naizela jada.

**Espainiako txapelketan, baina, beterranoen mailan multzo handia batzen zarete.**

Bai; banuen nire adinekoekin lehiatzeko gogoia... Espainiako txapelketan beterrano guztiak gaituzte; alegia, 39 urtez gorako guztiak beterranoak dira, eta ez da bereizketa gehiago egoten. Pentsa, nik 63 urte ditut eta oso lehiakide gazteak izaten ditut ondoan... Eta, hala ere, zazpi-garren sailkatu naiz aurten; hortaz, ezin naiz kexatu. Baina bai, Plrdan Master 3 kategorian lehiatu nintzen; hau da, 59 urtetik gorakoen multzoan izan nintzen. Horrenbestez, lasterketa justuagoa izan zen. Gure kategorian hamar lagun irten ginen, eta lasterkari belgikarrak, txekiarak, italiarrak, frantziarrak eta zeuden tartean.

**Eta nor izan zen, bada, irabazlea?**

60 urte dituen eskoziar bat, orain ez dut izena gozoan. Alpeetan

# "Lasterketan ezinbestekoa da txakurrak ondo tira egitea"

**FERNANDO COBOS** LASTERKARIA

**TXAKUR KROSA** Bergaran bizi den beasaindarra 'Luko' txakurra-ekin batera munduko txapeldunorde izan berri da asteburuan Pledran-en (Frantzia)



Fernando Cobos eta *Luko*, aste barruan Bergaran. XABIER URTZELAI

bizi da eta makina hutsa da, sekulako sasoia daukan tipoa. Hogeitabat segundoko tartea atera zidan eta nik beste hiru segundo atera nizekion hirugarrenari. Egia esan, podiumera igo ginen hiruror artean lasterketa lehiatua egon zen.

**Lasterketarako muntaia galanta egin dute, ala?**

Sekulakoa izan da... Frantziarrak halako gauzetarako besteok baino koska batzuk gorago daude. Guztira, 500 kirolarik hartu

genuen esku, kirol jarduera honetan modalitate asko daude eta: txakur kroza, patinekin, bizikletekin... Eta mila ikusle baino gehiago egongo ziren zirkuituan zehar lasterkariak animatzen. Sekulakoa izan da.

**Zelako lasterketak izan ziren?**

Guk zapatuan eta domekan izan genuen lasterketa. Berez, zazpi kilometroko zirkuituan ibili behar genuen, baina bero egiten zuen eta halako tenperaturekin txakurrek asko sufritzen dute. Hala, araudia oso zorrotza da, txakurren osasuna da lehentasuna, eta ibilbidea 3,7 kilometrorra murriztu zuten. Bada, pentsa, oso lasterketa azkarrak izan ziren, esprintekoak.

**Halako lasterketetan kilometroa ze eritmotara egiten duzue?**

Frantzian kilometroa 3.20ra egingo genuen, baina zirkuitua lokaztuta zegoen. Aurten, Madrilen izandako lasterketa batean kilometroa 3.06ra egin genuen.

**Hori abiadura handia da. Non dago gako txakurra-ekin batera horren azkar korrika egiteko?**

Txakurrak ondo egin behar du tira, eta korrikako eritmoan bat egin behar duzu txakurra-ekin, talde lana da. Bestalde, entrenamendu saio batzuk txakurra-ekin egiten ditut, eta beste batzuetan bakarkako saioak egiten ditut. Alegia, kilometro bateko serieak egiten ibiltzen naiz... Norberak ondo egon behar du, baina txakurra ezinbestekoa da.



Fernando Cobos, ezkerrean, M3 kategoriako podiumean. F.C

## Munduko txapelketako podiuma

Beterranoen M3 kategorian Mark Dunbar eskoziarra izan zen onena, *Obelix* txakurra-ekin. Fernando Cobos eta *Luko* txakurra bigarren sailkatu ziren eta podiumeko hirugarren koskara igo zen Richel Jackes Boyer frantziarra, *Laika* txakurra-ekin.





2021ean egindako Aramaioko MTB sari nagusian parte hartu zuten bi txirrindulari, elkarren arteko lehia. GOIENA

# Aramaion hasiko dira mendiko bizikletako lehiak

**ZIKLISMOA** Mendiko modalitateko Euskadiko Txirrindularitza Federazioko lehen proba bihar izango da Azkoaga eta Barajuen auzoen artean. Ohi bezala, Orixol Mendizale Elkartek antolatuta du hitzordua. Partaideak 11:00etan hasiko dira pedalak astintzen

## Hasier Larrea ARamaio

Dena prest dauka Orixol Mendizale Elkartek zapatu goizean, hilak 7, jokatu den XCO Euskal Kopako proba puntuagarriroko. Aurten, Martin Arriolabengoak Ander Bengoari pasa dio lasterketa antolatzeke ardura nagusia, "belaunaldi aldaketa egiteko beharrragatik". Nolanahi ere, Bengoak adierazi du mendiko lasterketa antolatzen aritu ohi direnek hutsik egin gabe lagundu dutela aurten ere: "Bospasei lagun ibili gara bost kilometroko ibilbidea garbitzen eta markatzen; di-da batean egin dugu denon artean".

## Maila handiagoa, "ziur"

Federatuentzat garaiotan hasten den mendiko bizikleten txapelketak aldaketak izan ditu aurten; Bengoaren esanetan, "onerako". Antolatzaile berriak sartu izanari egozten dio horren arrazoia: "Araudia aldatu dute, kalitatezko ziklistak erakartzeko. Azken urteetan lehiakide onenek beste lasterketa batzuetara joateko hautua egin dute, baina bihar-

koan, esango nuke lasterketa ederraz gozatu ahalko dugula".

Bailarako ordezkariatzagatik galdetuta, aipatu du Iker Eskibel, Viejo anaiak, Liher Unzueta, Jon Ander Gereta eta Julen Ibañe joatekoak direla, besteak beste. Eta publikoaren aldetik ere espero du jendetza agertzea Azkoaga eta Barajuen arteko mendi-bideetan: "Eguraldi ona dago iragarrita; beraz, ziur gaude txirrindulariek animo pilo jasoko dituztela ikusleengandik".

Aurten hamabosgarren aldia izango du Aramaioko BTT sari nagusiak. Guztira, hamasei kategoriatako txirrindulariek hartuko dute parte. Gazteenak kadete mailakoak izan dira; zaharrenak, berriz, Master 60 mailakoak.

**EUSKAL KOPAKO ANTOLATZAILE BERRIEKIN, "MAILA ALTUAGOKO ZIKLISTAK ETORRIKO DIRA"**

## Lasterketen aurtengo egutegia

### XCO Irekiko probak:

- Maiatzaren 29an, Oiartzunen.
- Ekainaren 4an, Ordizian.
- Ekainaren 12an, Irunberrin.
- Ekainaren 19an, Barakaldon.
- Uztailaren 3an, Izkuen.

### DH Irekiko probak:

- Ekainaren 5ean, Larreinetan.
- Uztailaren 9an, Antzuolan.

### XCM Txapelketa:

- Urriaren 2an, Barakaldon.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

#### Bergara-Mondra

Zap. 16:30. Agorrosin.

#### Aretxabaleta-Touring

Dom. 16:30. Ibarra.

#### Oiartzun-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Karla Lekuona.

O. ERREGION. EMAK.

#### Bergara-Urnieta

Zap. 12:30. Ipintza.

#### Lagun Onak-Leintz Arizmendi

Egub. 15:30. Garmendipe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

#### Laudio-Aretxabaleta

Dom. 18:30. Ellakuri.

GOREENGOEN M, IRAUP. F.

#### Antzuola-Usurbil

Zap. 16:30. Eztala

LEHEN ERREG. IGOERA F.

#### Ostadar-Bergara

Zap. 18:30. Michelin.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

#### Eskoriatza-Gernika

Dom. 18:00. M. Muñoz.

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

#### Soloarte-Aretxabaleta

Zap. 16:00. Artunduaga.

GIPUZKOAKO MAILA. GIZ.

#### Mondrate-Martutene

Zap. 17:30. Musakola.

GIPUZKOAKO BIG. MAILA

#### I.C.Aloña-Eguzki

Leihoak

Zap. 20:00. Zubikoa.

#### Lazkao-Eskoriatza

Egub. 21:15. J.M. Barandiaran.

### SASKIBALOA

EUSK. TXAPELKETA. GIZ.

#### MU-Askatuak

Zap. 18:00. Iturripe.

GIZON. BIG. MAILA

#### Mekalki Al.-EASO

Zap. 18:00. Zubikoa.

EMAK. BIG. MAILA

#### MU-Maristas

Dom. 18:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO LEHEN. M

#### Mundarro-Bergara Sora.

Zap. 18:00. Astigarraga.

GIPUZKOAKO BIG. M.

#### Bergara Sora.-Saski Goiena

Zap. 16:00. Labegarai.

### ERRUGBIA

#### ART-Sarako Izarra

Zap. 12:00. Mojategi.

### PILOTA

#### Atzeko txapelketa

Antzuolan, gaur (17:30) 7 eta 10 urte artekoak. Bihar (09:00) 11 urtetik gorakoak.

#### Maila federatua:

Bergaran, gaur (18:45) lau partidu. Zapatuan (16:00) bi partidu.

Aretxabaleta, gaur (19:00) bost partidu.

Oñatin, gaur (18:30) lau partidu. Zapatuan (16:30) bi partidu.

Arrasaten, bihar (16:00) bi partidu.

### TXIRRINDULARITZA

#### Aramaioko MTB sari nagusia

Zap. 11:00. Azkoagatik abiatuta.

#### Musakolako BTT irteera

Dom. 09:00 Legarra plazatik abiatuta.

## FUTBOLA Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute

Arrasatearrek bigarren derbia jarraian kateatuko dute zapatuan, Agorrosinera egingo baitute bisita, Aretxabaletaren aurka jasotako porrota atzean uzteko asmoz. Mahoneroek, baina, ez dizkiete gauzak errez jarriko, azken jardunaldietan lehiatzeko daudela erakusten ari baitira, nahiz eta garaipena lortzea kostatzen ari zaien. Bergara eta

Mondraren artekoak lehia gorrak izan ohi dira; ea zer gertatzen den bihar, zapatua, 16:30ean, Bergararen zelaian jokatu den norgehiagokan. Ohorezko Erregional mailako 32. jardunaldiko partidua izango da, eta horren ostean beste bi neurketa baino ez zaizkie geldituko taldeei.

UDAk, bere aldetik, Touring liderra jasoko du etzi, 16:30ean, igoera fasean sailkatzeko esperantzarekin. Aloña Mendik, berriz, Oiartzunen jokatu du.

### ARETO FUTBOLA

## Eskoriatzak Gernika hartuko du etxean

Hirugarren maila nazionalen hirugarren postuan amaitzeko borrokan murgilduta dago Eskoriatza. Domekan, 18:00etan hasita, lau puntu atzetik daukan Erabil Gernikarekin neurtuko ditu indarrak etxean. Irabazten badu, jardunaldi honetan atsedean hartuko duen Mondrate gaitutuko du sailkapenean; gaur-gaurkoz, 51 puntu ditu Eskoriatzak,

eta 52 Mondratek. Aurreko jardunaldian jipoia eman zioten arrasatearrek Almi Elorrietakori, 7-1 irabazita. Eskoriatzarrek ere hiru puntuak eskuratu zituzten Azpeitian, Lagun Onak taldea 1-3 mendean hartuta.

Bailarako bi ordezkarien arteko norgehiagoka estua izango da azken jardunaldirarte. Ekaineko lehen asteburuan bukatuko da liga, eta ez edozein modutan, Debagoieneko ordezkariak elkarren aurka jokatu baitute Arrasaten.



# "Udalak eta herritarrek asko lagundu digute"

LEIRE EGAÑA ZINEGILEA

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak ekimenaren baitan egin du 'Erlojupekoa' film laburra, eta ekimeneko beste lau film laburrekin batera osatu dute 'Bost teilatu' film luzea

**Aitziber Aranburuzabala OÑATI**

Galdakaon filmatu du Leire Egañaren lantaldeak *Erlojupekoa* film laburra. Maiatzaren 11n, eguaztena, Elgetako udaletxean eskainiko dute, 18:30ean, eta Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, berriz, hurrengo egunean, 19:00etan. Zuzendaria eta lantaldeko kide gehiago Oñatin izango dira.

**Donostian bizi zara aspalditik; pozik jaioterrian lana aurkezteko?**

Urduri baina ilusionatuta nago. Geuretik Sortuak-en parte hartu duten 39 herritan eskainiko dute filma eta lantalde bakoitzak lauzpabost herritan egingo ditu aurkezpenak. Gure kasuan, apirilaren 21ean Villabonan oso ondo hartu gintuzten, datorren astean Oñatin izango gara eta Usurbilen eta Erriberan gero.

**Komedia surrealista; zeri buruzkoa?**

Umore absurdotik asko du. Janaria banatzen duen *rider* bat da protagonista. Misio bat du, pakete bat entregatu behar du, eta horretarako herri bat zeharkatu behar du, eta egoera surrealistekin egingo du topo. Bideo-joko baten barruan balego bezala dago protagonista; gero eta energia eta denbora gutxiago du, eta paketea garai entregatzen ez badu soldata jaitisiko diote; hortik izenburua.

**Galdakaon filmatu duzue. Zelako esperientzia izan da?**

Oso harrera ona egin ziguten. Herriarekin elkarlanean jardutea eskatzen zuten Udalbiltzakoek eta zorrotz hartu genuen proposamena. Hiru asteko egonaldia egin genuen. Lehenengoan, gidoi laborategia egin genuen, herritarrek parte hartzeko deialdia eginda aurretik. Bigarrenean, aurre-ekoizpen lanak: grabatzeko tokiak aurkitu eta aktoreak aukeratu. Ia 70 pertsona etorri ziren *casting*-era. Produkzio arloan lan egiteko deialdia ere egin genuen, baina ez zuten arrakastarik izan. Jende asko agertzen den sekuentzia asko ditugu;

hortaz, ia denak ez dira aktoreak. Protagonista Belako taldeko Lore Nekane Billelabeitia da. Aktore moduan haren lehenengo esperientzia; lantaldean zegoen ekoizpen arloan, probatzeko esan genion eta ederto egin zuen!

**Herritarrekin elkarlana lortu duzue?**

Ikaragarria izan da esperientzia. Udalak eta herriko eragileek asko lagundu digute eta gauzak asko samurtu dizkigute.

**Ze garrantzi ematen diezu halako ekimenei?**

Oso handia. Proiektu baten emaitzaz gainera, sorkuntza prozesuan laguntzen dizuten ekimen gutxi daude, eta sortzaile moduan babestuta sentitzen zara.



Leire Egaña zinemagile oñatiarra. L.E.

**Bost teilatu izeneko film kolektiboa osatu duzue guztien artean.**

Herri ezberdinetan eta bakoitza lantalde batek grabatuta daude. Oso ezberdinak dira, baina Bilboko Adabaki ekoiztetxeak muntaia polita egin du animazioko zatiak txertatuta. Martxoaren 31n Leitzan egin genuen filmaren aurkezpenean ikusi genituen lehenekoz, film luze formatuan, beste egileen lanak.

## 'Bost teilatu' film luze kolektiboa

Amancay Gaztañagak eta Erika Olaizolak zuzendu duten *Krak*, Eneko Sagardoy eta Zorion Egileor aktoreek parte hartzen duten eta Raul Barrerasesk zuzendu duen *Armasa*, Josu Martinezen *Hitzak* eta Eñaut Castagnetek zuzendu duen *Muga* daude Egañaren *Erlojupekoa* film laburrekin batera *Bost teilatu* film luze kolektiboan.



Erlojupekoa film laburraren une bat. LEIRE EGAÑA

## Aramaioko bost bertsolari lehian final laurdenetan

Dulantzin jokatu dute bihar, Zigoitian etzi eta maiatzaren 14an Aramaioko kultura etxean

**A. A ARAMAIO**

Apirilaren 1ean abiatu zuten, Amurrioren XV. Arabako Bertsolari Txapelketa eta Biasterin, Trebiñun, Legution eta Langraitzen jokatu zituzten, gero, final zortzirenetako kanporaketak; bihar, zapatua, abiatuko dituzte final laurdenetako kanporaketak, Dulantziko Micaela Portilla Kultur Etxeko aretoan.

**Aramaion hirugarrena**

Paula Amilburu izango da Aramaioko ordezkari bakarra bihar, Manex Agirrek, Peru Abarrategik eta Xabi Igoak jardungo dute bertsoetan, Zigoitiko kultura etxeko kanporaketan, 17:30ean hasiko da hori ere.

Maiatzaren 14an, berriz, Aramaioko kultura etxean izango da final laurdenetako azken kanporaketa eta herriko bertsolari bakarra igoko da taularen gainera: Andere Arriolabengoa. Maiatzaren 28an abiatuko dituzte finalaurrekoak, Araian, eta Gasteizen jokatu dute finala, ekainaren 11n.

**Sarrerak eskuragarri**

*Bertsosarrerak.eu* atarian eta leihatilan izango dira sarrerak erosgai.

## AITOR ZABALETA

PILOTUA

**GOIENA TELEBISTA, 'GALDEGAZTE' SAIOA**

MAIATZAREN 11N, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

goiena

Zu hemen zaude.





Alex Claverok Amaia antzokian izango da gaur, egubakoitza. A.C.

# Sarrerak agortuta daude Alex Claveroren saiorako

Ordu eta erdiko 'La nueva normalidad' izeneko bakarriketa saioa eskainiko du hogeituroko ibilbidea duen Alex Claverok Amaia antzokian gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita; Arrasate Rugby Taldeko Herensugeak taldeak gonbidatu du Arrasatera

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Orain dela urte asko izan zen Arrasaten ikuskizuna egiten, oroitzen politak ditu eta "gogoz" dago berriz ere Arrasatera itzultzeko; izan ere, senideak ditu bertan. "Valladolideko herri txiki batekoa naiz ni, eta Zamorako Morales de Toro herrikoa da ama, eta zuen eskuldean bizi dira hango sustraiak dituzten asko. Nik, esaterako, harreman handia dudan lehen-gusina batzuk ditut Arrasaten", azaldu du Claverok.

25 urte bete dituen ARTren Herensugeak beteran taldeak antolatu du ikuskizuna eta horrek ere ilusio berezia egiten diola azaldu du Claverok: "Nire aitak herriko errugbi taldean jokatzeko zuten eta txikia nintzenen nik ere aitarekin jokatzeko nuen; beraz, maitasun berezia diot kirol horri, nahiz eta ez naizen nik gura besteko trebea kirol kontuetan. Oso pozik eta eskertuta hartu dut Herensugeak-en proposamena, buruan nuen-eta

Arrasatera ikuskizun berriarekin joateko asmoa".

## 2001eko Gabonetan hasita

Bakarriketari lanetan nahiko kasualitatez hasi zela kontatu du: "Lagunen artean istorioak kontatzeko ohitura izan dut beti, eta, halako batean, 2001eko Gabonetan, lagun batek taberna baten egin behar zuten lehiaketa batean eman zuen nire izena. Lehiaketa hori irabazi egin nuen, handik beste batera joan nintzen gero eta hura ere irabazi egin nuen, hurrengoan beste batzuetara aurkeztu nintzen eta, poli-ki-poliki, ikuskizunak egiten hasi nintzen".

Aretoetako ikuskizunet gain, teledibetan eta irratiaren ere

**PANDEMIA OSTEKO ASKOTARIKOAK KONTATUKO DITU CLAVEROK GAUR AMAIA ANTZOKIAN**

jarduten du. 2017an hasita, egu-nero, 08:00etan egiten du *El Pirata y su banda* saioan *El Francotirador* bakarriketa saioa. "Ia 1.000 saio izango dira laster. Denetariko gaie buruzkoak dira, egunerokotasunarekin lotutakoak, alaiagoak batzuetan, serioagoak beste hainbatetan".

## Pandemia "ez ahazteko"

Iazko azaroan "arrakastaz" estreinatua zuten *La nueva normalidad* ikuskizuna eskainiko du gaur Amaia antzokian. "Oso nostalgikoa naiz, garai bateko kontuak kontatzea dut gustuko eta normaltasun berriak hori egiteko bidea eman dit. Konfinamenduari buruz ere jarduten dut, nola ez, ez dut-eta ahaztu nahi hiru hilabete etxean egon ginela. Baina hori guztia umoretik kontatzen dut, egiatik eta nire bizipenetatik abiatuta. Ez dut estilo zehatzik, naturala naiz, ordu eta erdi pasa isildu barik jarduten dut, ikusleek ondo pasatzea da nire helburua".

## Goienakideen txokoa

### APIRILEKO IRABAZLEAK

#### KOBO CLARA LIBURU IRAKURGAILUA

Jose Luis Aizpurua Galarraga (Bergara)

#### HARREMAN DENDA KO OTARREA

Eguzkiñe Alegria Romarate zabala (Eskoriatza)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Inazio Arriaran Larrañaga (Oñati)

Juan Jose Pagaldai Uribe (Arrasate)

Begoña Ugarte Iñurrieta (Arrasate)

#### ERREKI JATETXERAKO BI

#### PERTSONARENDAKO OTORDUA

Iban Fernandez Fernandez (Aramaio)

#### MAUXKA JATETXERAKO BI

#### PERTSONARENDAKO OTORDUA

Ainhoa Velez Azkarretazabal (Aretxabaleta)

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena Klubeko txokoa eskaintza bina sarrera izango dituzte Arrikrutzeko txokotik. Sarrerak hiru hilabeteko epemuga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK.** Arazteko sarrak, OÑATI 943 25 05 05. Oñatiko sarrerak, egunero 10:00 - 17:00 (aurreko delako hitzartu egiteko). Harreman dendako otarrea. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide bartzelaren, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Liburu irakurgailua,** zator GOIENAKEN egitaraua. Saria jasotzeko, **BAZKIDETZA KONTAKU** edota **BAZKIDE ZENBAKIA** adierazten duen behar du GOIENA Oñatiko Lorentzaduna 31, Arrasate 943 25 05 05. Oñatiko sarrerak, egunero 09:00 - 18:00. Egubakoitzaren: 09:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko udalari esker

'Lof. Ladies on fight' dantzaldirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Maiatzak 15 | 19:30

#### PARTE HARTZEKO:

**E-postaz:** goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "dantzaldia"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**'goiena app'-a / zozketa atalean.** Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 15/05/2022 lehenengo jakinarazteko zuzenean Goiena Klubeko txokotik zuzenean irabazlearen izena jakinarazteko delako. Datu-bazkidearen helbura jakinarazteko zuzenean goienakide@goiena.eus. Eskubidea izango du zozketaren ondoren, baina zozketaren ondoren helbura jakinarazteko zuzenean goienakide@goiena.eus.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### SORALUZE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 10



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE

Jatetxea

[bazkidearen zenbakia]

688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



**BAZKIDETZA KUOTA: 60 €**  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia.





HILDAKOAK

**Martina Calleja Temprano.**

Arrasaten, apirilaren 19an.  
94 urte.

**Dario Margusino Blanco.**

Arrasaten, apirilaren 19an.  
78 urte.

**Ines Del Pozo Murillo.**

Eskoriatzan, apirilaren 19an.  
63 urte.

**Maria Angeles Azkuenaga Rekena.**

Oñatin, apirilaren 19an.  
85 urte.

**Francisco Elejalde Plazaola.**

Aramaion, apirilaren 20an.  
91 urte.

**Pilar Valdezate Salvador.**

Aretxabaletan, apirilaren 20an.  
93 urte.

**Martin Aranburu Telleria.**

Bergaran, apirilaren 20an.  
82 urte.

**Francisco Javier Bengoa Etxebarria.**

Aretxabaletan, apirilaren 21ean.  
84 urte.

**Iban Rodriguez Alonso.**

Arrasaten, apirilaren 21ean.  
51 urte.

**Jose Julian Garitano Irazabal.**

Antzuolan, apirilaren 22an.  
85 urte.

**Maria Jesus Manzidor Agirre.**

Bergaran, apirilaren 24an.  
73 urte.

**Jesusa Aristegi Letamendi.**

Oñatin, apirilak 24. 84 urte.

**Ramon Gabilondo Luarizaristi.**

Bergaran, apirilaren 25ean.  
81 urte.

**Arantza Aretxaga Azkarate.**

Elgetan, apirilaren 25ean.  
75 urte.

**Juana Uribetxeberria Maiztegi.**

Oñatin, apirilaren 28an.

**Miguel Ariznabarreta Garcia.**

Arrasaten, apirilaren 28an.  
66 urte.

**Jesus Maria Madina Alzola.**

Oñatin, apirilaren 29an.  
82 urte.

**Antoliano Jara Arroyo.**

Eskoriatzan, apirilaren 30ean.  
84 urte.

**Maria del Carmen Fernandez Valero.**

Bergaran, apirilaren 29an.  
91 urte.

**Milagros Crespo Gondoncillo.**

Arrasaten, maiatzaren 2an.  
90 urte.

**Basili Sagasta Agirre.**

Arrasaten, maiatzaren 2an.  
89 urte.

**Maria Carmen Urizar Larrañaga.**

Bergaran, maiatzaren 2an.  
76 urte.

**Maria Gonzalez Jimenez.**

Bergaran, maiatzaren 2an.  
97 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

<b>ARRASATE EGUNEZ</b> Egubakoitza, 6 ESPANOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 Zapatua, 7 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 Domeka, 8 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30 Astelehena, 9 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15 Martitzena, 10 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 Eguaztena, 11 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26 Eguena, 12 IRIZAR: ERGUIN 11 / 943 79 12 39	<b>ARRASATE GAUEZ EGUNERO</b> (22:00etatik 09:00etara) 2022ko abuztuaren 15era arte: AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
<b>BERGARA EGUNEZ</b> Egubakoitza, 6 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 Zapatua, 7 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74 Domeka, 8 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74 Astelehena, 9 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 Martitzena, 10 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 Eguaztena, 11 ESTELLA: Matxitegi 5 / 943 76 19 63 Eguena, 12 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15	<b>BERGARA GAUEZ EGUNERO</b> (22:00etatik 09:00etara) 2022 osoan: URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
<b>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</b> Egubakoitza, 6 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 Zapatua, 7 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 Domeka, 8 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 Astelehena, 9 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16 Martitzena, 10 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16 Eguaztena, 11 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 Eguena, 12 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22	<b>Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:</b> COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

**Maria Carmen Urizar Larrañaga**



2022ko maiatzaren 2an hil zen, 76 urte zituela.

*Ez zaitugu sekula ahaztuko.*

Uribesalgo-Bikuña familia.  
Bergaran, 2022ko maiatzaren 6an.

OROIGARRIA

**Maria Carmen Urizar Larrañaga**



*Zure alaitasunak,  
zure ontasunak  
eta zure apaitasunak  
argituko dute gure bidea.  
Eskerrik asko eman diguzun  
guztiagatik, ama+ma.*

Bergaran, 2022ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Maria Luisa Gallastegui Gabilondo**



2021eko maiatzaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da,  
maiatzaren 8an, 12:00etan,  
Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2022ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Rosario Lombide Ezpeleta**



'Kattalin'  
Jose Erdabideren alarguna  
2021eko maiatzaren 6an hil zen, 93 urte zituela.

*Pozik oroitzu gure bihotzetan  
ohore handiz zaitugu gurekin beti.  
Zuri esker gara izango garena,  
ta zu, gure barruan biziko zarena.*

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 8an,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2022ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Jesusa Basauri Unamuno**



2021eko maiatzaren 8an hil zen, 95 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da,  
maiatzaren 7an, 19:00etan,  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2022ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Jose Luis Arrate Riaño**



2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 87 urte zituela.

Emaztea: Jacinta Bengoa.  
Alaba: Beatriz, eta Javier Rodriguez.  
Eta gainerako senideak.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 8an,  
12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2022ko maiatzaren 6an.

ESKER ONA

**Ramon Gabilondo Luarizaristi**



2022ko apirilaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko maiatzaren 6an.

**Oroilore**

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako  
guztiei euren bidea aurkitzen  
lagundu diegu, orain arte  
bezala, eta guztiok izango  
dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerririk beroenak guran  
izan duzun konfiantzagatik  
eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Galiziara bidaia**

Ederto ibili dira Arrasateko Musakolako erretiratuak. Galizia aldean egon dira astebetez, hango altxorak ezagutzen. Erretratua Cambadosen (Pontevedra) egin zuten. Pozik eta gogotsu ibili ziren han, eta indarberrituta etorri dira, auzoko San Isidro jaiak ekarriko duten guztiari aurre egiteko. Gainera, kamisetak estreinatuko dituzte.

**2. Mendi buelta Elorregin**

San Prudentzio jaiak ospatu zituzten aurreko astean Elorregiko auzotarrek. Eguetik domekara askotariko hitzorduak izan zituzten: bertso afaria, jolasak, meza eta abar. Eta, jaiak borobiltzeko, mendi buelta egin zuten domekan 30 bat lagunek auzoan zehar. Mokadutxoak egitekoa tarteak ere hartu zuten.

**3. Kuadrillak elkarrekin**

Eskoriatzako hainbat kuadrillatako kideek elkarrekin pasatu zuten aurreko zapatua. Guztira, 50 bat lagunek. Astigarragan poteoa, Iparragirre sagardotegian bazkaria eta han bertan dantzaldia egin zituzten, etxetik eramandako soinuarekin eta panderoarekin. Eguna borobiltzeko, Hernanira joan ziren, parranda egitera.

**4. Pilota txapelkunak**

Oñatiko Olabarieta auzoan jaietan ibili ziren aurrekoan. Eta, egin zituzten ekitaldien artean, pilota txapelketa egon zen. Umeen eta nagusien txapelketak jokatu zituzten. Helduen mailan Peru Etxegarai eta Asier Igartua izan ziren txapelkunak. Urdaiazpiko eder bat, gazta bat eta botila bi txakolin jaso zituzten sari modura.

**5. Ziklismo eskolako lana**

Bergarako Lokatza ziklismo eskolako kideek lan ederra egin zuten asteburuko probetan. Garaipenik ez zuten erdietsi, baina maila ona erakutsi zuten errepidean. Maddi Alonso Berezibar antzuolarra hirugarren izan zen eskolarteko proban; eta Beñat Iñarra aramaioarra eta Itsaso Plaza arrasatearra bigarren, Seguran.

**6. Leixargaraten ospakizunetan**

Zapatuan, apirilaren 30ean, ospatu zuten Leixargarate aterpetxearen 50. urteurrena UDAk eta Besaidek elkarrekin. 1971n martxan jarri zutenetan presidente zirenak –Javier San Miguel eta Alvaro Arregi, hurrenez hurren–, kirol elkarteko gaur egungo zuzendaritzako kideak eta herritarrek elkartu ziren, giro ederrean, eta eguraldia lagun.



## ZORION AGURRAK

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI  
**Elena Arrazola Aranburu**  
Maiatzaren 9an, 4 urte. Gaur egun berezia da eta alkarrekin ospatuko dogu. Zorionak, Elena! Patxo handi bat, maitte zaitugunon partetik.



OÑATI  
**Helene Erle Agirre**  
Maiatzaren 9an, 7 urte. Zorionak, potxoli! Primeran zelebratu zure zazpigarren urtebetetzia! Patxo potolo bat etxeko danon, baina bereziki, Peruren partetik!



BERGARA  
**Erik Gartzia Perez**  
Maiatzaren 8an, 11 urte. Zorionak urte askotarako, Erik! Ondo-ondo ospatu eguna! Belarritik 11 tirakada eta patxo handi bat, familia guztiaren partetik.



OÑATI  
**Aiantze Arregi Orueta**  
Maiatzaren 7an, 12 urte. Zorionak, guapa! Ondo pasatu zure egunian ta patxo pillia etxekuen partetik. Mua!



BERGARA  
**Erik Beistegi Alvarez**  
Maiatzaren 7an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, Erik! Asko maitte zaitugu eta segi zaren modukua izaten! Patxo bero bat familixakoen eta laguntxoeren partetik!



BERGARA  
**Garazi Lonbide Retegi**  
Maiatzaren 7an, 9 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko guztion partetik!



ARRASATE  
**Itxaso Ginart Velez de Mendizabal**  
Maiatzaren 6an, 5 urte. Zorionak, lazтана eta egun on-ona pasatu! Segi horren zorotxo izaten! Muxu potolo bat!



ARRASATE  
**Andde Leibar Belinchon**  
Maiatzaren 5an, Andde, maitzaren 5an, 8 urte. Zorionak. Muxu potolo bat familiako guztion partetik.



BERGARA  
**Egoitz Uribesalgo Uzin**  
Maiatzaren 4an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Lau urtetxo jada, ze handi zaren. Ondo-ondo pasatuko dugu zure urtebetetze egunean. Asko maite zaitugu. Familia guztiaren, eta batez ere, aitatxoren, amatxoren eta zure anaia Ametsen partetik. Patxo erraldoia.




ARRASATE  
**June Andres Lopez**  
Maiatzaren 4an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Gure etxeko printzesa handitzen doa. Oso ondo pasatu zure egunean. Besarkada eta muxu handi-handi bat zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu.



BERGARA  
**Elene Gabilondo Muguruza**  
Maiatzaren 4an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Primeran pasatu zure egunian. Besarkada handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA  
**Hodei Bolibar Sanchez**  
Maiatzaren 3an, 8 urte. Zorionak, Hodei! Egun politxa pasatu. Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE  
**Unai Uribeetxeberria Errasti**  
Apirilaren 30ean, 3 urte. Zorionak, Unai! Heldu da azkenian hainbeste esperotako eguna! Patxo handi bat familixako danon partetik. Asko maite zaitugu!



ARETXABALETA  
**Inder Arando Iturbe**  
Apirilaren 29an, 12 urte. Zorionak, Inder! Etxeko guztien partetik. Egun ederra pasau!



OÑATI  
**Gari Letamendi Mugarza**  
Apirilaren 29an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat familixako eta laguntxo danan partetik.




OÑATI  
**Ihabar Agirrezabal Maiztegi**  
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak, Ihabar! Ondo pasatu zure eguna eta jarraitu zaren bezalako txapelduna izaten. Asko maite zaitugu!



ELGETA  
**Haizea Agirre Osa**  
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak, pitxintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Pilo bat maixe zaitxugu. Txokomarrubizko patxo mordo bat, familixa danaren partetik.



ARETXABALETA  
**Laia Rodriguez Alberdi**  
Maiatzaren 7an, 6 urte. Zorionak, printsesa! Ondo ospatu zure eguna eta mila patxo etxeko guztien partetik!



BERGARA  
**Intza Goiti Zubia**  
Maiatzaren 3an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat Egoitzen, amatxoren eta aitatxoren partetik!



# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 6

### ESKORIATZA Askotariko kirol lehiaketak

Lehen Hezkuntzako maila guztietako ikasleendako. Ludotekan elkartu, eta Olaetan jokatu dituzte txapelketak.

*Ludotekan, 16:45ean.*

### ARAMAIO Arabako eskolarteko bertsolari txapelketa

Iraide Onaindia, Ane Arexolaleiba, Txomin Abarrategi, Gari Arexolaleiba eta Maddi Agirre bertsotan.

*Osoko bilkuren aretoan, 18:00etan.*

### ARRASATE 'Tertulixan, Belunen'

*Autoestimuaeren zazpi zutabeak.*

Entrena zaitez saioa, Maitane Ormazabal psikologoarekin.

*Belun dendan, 18:00etan.*

### ARRASATE Rap tailerra

Lehenengo saioa, Peru Magdalenarekin eta Saroa Bikandirekin.

*Kulturaten, 18:30ean.*

### OÑATI San Miel Txikixak

19:00etan, txorimaloen eta buruhandien kalejira; 19:15ean, ardo eta gazta dastatzea; 19:30ean, presoen aldeko ekimena eta Ttek elektrotzaranga; 20:00etan, Hotz elkartekoan janari salmenta; eta 22:30ean, Mendiko eta Letagin taldeak.

*Kale Zaharrean.*

### ELGETA Elektrotxufila elektrotzaranga

Kalejira egingo du.

*Elgetan, 19:30ean.*

### ARRASATE Alex Claveroren bakarriketa

Arrasate Rugby Taldearen eskutik. Oraindik badaude sarrerak (20 euro) salgai, udal webgunean.

*Amaia antzokian, 19:30ean.*

### ESKORIATZA Musika eskolako bandaren udaberriko kontzertua

Musika eskolako bandaren eskutik. Besteak beste, *Aitzorrotx* eta *Esko aurrera* piezak estreinatuko dituzte.

*Zaldibar antzokian, 20:00etan.*



ALAI TALDEA

**BERGARA Alai taldearen agurra**  
Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatzaren eta Orkestra Sinfonikoaren laguntza izango dute 50. urteurrenko azken emanaldian. Debalde, edukiera bete arte.  
*Bihar, zapatua, Seminarixoan, 20:00etan.*

## ZAPATUA 7

### LEINTZ GATZAGA Makilakorta Fest

10:00etan, binakako pilota goxo txapelketa; 14:30ean, herri bazkaria; 17:30ean, pilotako finalak; 19:30ean, Kontralde eta Unidad Alavesa taldeak.

*Leintz Gatzagan.*

### ARAMAIO Autodefentsa feminista ikastaroa

15 urtetik gorakoendako.

*Osoko bilkuren aretoan, 10:00etan.*

### ANTZUOLA Akinabei errotan bisita gidatua

Jose Mari Iturberen eskutik, 10:00etatik 13:00etara, orduro.

*Akinabei errotan, 10:00etan.*

### OÑATI Ludoteka ibiltaria

Jolasak.

*San Anton plazatxoan, 10:30etik 13:30era.*

### ARAMAIO Aramaioko BTT sari nagusia

Euskal koparako puntuagarria izango da, eta hainbat mailatako ziklistak egongo dira.

*Barajuena eta Azkoagan, 11:00etan.*

### BERGARA Narbaiza-Bolu eta Elorza-Bolu errota ezagutzeko bisitak

Izen-ematea eta informazioa:

*Bergara.eus ataria.*

*San Juan auzoan, 11:00etan.*

### OÑATI San Miel Txikixak

11:00etan, auzoko elkartean txorizo-pintxoak eta salda; 13:30ean, marianito-poteoa; 15:30ean, mendi bizikleta irteera; 16:30ean, mahai-futbol txapelketa; 18:30ean, talo, txorizo eta sagardo dastatzea; 19:30ean, triki-poteoa; eta 22:30ean, Dupla eta Muxutruk.

*Kale Zaharrean.*

### ARAMAIO Andramariko eskailerak txukuntzeko auzolana

Lorabari Astearen baitan.

*Aramaion, 11:00etan.*

### ARAMAIO Gazte Eguna

11:30ean, hitzaldia; 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, pilota partiduak; eta 22:00etan, kontzertuak.

*Herriko kaleetan.*

### ESKORIATZA Atxorrotx Kultura Elkarteen eguna

11:30ean, txistulariekin kalejira; 12:00etan, puzgarriak eta talo salmenta; 14:30ean, herri bazkaria; 18:00etan, buruhandiak; 19:30ean, Motxila 21 taldea; eta 23:00etan, DJ Elvis Kaino, Inkernun.

*Fernando Eskoriatza plazan.*

### ARRASATE Ludoteka ibiltaria Erguinen

3 eta 12 urte artekoendako.

*Gazte txokoan, 11:30etan.*

### BERGARA Boulder txapelketa

Pol-Polen Mendi Astearen baitan.

*Labegarrietan, 10:00etan.*

### LEINTZ GATZAGA Gipuzkoako hiru-txirlo bola-joko txapelketa

Lehen aldiz hartuko dute parte gatzagarrek.

*Bolatokian, 17:00etan.*

### OÑATI Pirritx, Porrotx eta Marimotots

*Kuikui* ikuskizuna egingo dute.

*Zubikoan, 17:00etan.*

### ARRASATE 'Slack linea'-rekin jolasean

Gaztetxoendako.

*Erguingo gazte txokoan, 17:30ean.*

### ARRASATE 'Soinuaren bidaia' emanaldia

Alberto Urretxoren emanaldia, XVIII. Musikaldiaren baitan.

*Kulturaten, 19:30ean.*

### ARAMAIO 'Peregrino modernoan oporrak' dokumentalaren aurkezpena

Aimar Uribesalgo egilearekin, Lorabari Astearen baitan.

*Kultura etxean, 20:00etan.*

### BERGARA Alai taldearen agurra

50. urteurrenko ospakizunean, Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatzaren eta Orkestra Sinfonikoaren laguntza izango dute.

*Seminarixoan, 20:00etan.*

## DOMEKA 8

### OÑATI San Miel Txikixak

09:00etan, txistulariak; 11:00etan, herriko artisauen azoka; 12:30ean,

auzoko hildakoen aldeko meza; ostean, auzoko emakumeen bazkaria; 13:00etan, Biren taldearen emanaldia; 16:30ean, mus txapelketa; 18:00etan, Oñatzekoan erakustaldia; 18:30ean, txorimaloak; 19:00etan, Keia taldea; ostean, afari-merienda; eta 22:00etan, karaokea.

*Kale Zaharrean, 10:00etan.*

### OÑATI Eskolarteko Orientazio Lehiaketa

Laugarren proba da Oñatikoa.

*Oñatin, 10:00etan.*

### BERGARA Angiozarko bailaran ibilaldi zirkularra

Izen-ematea eta informazioa:

*Bergara.eus ataria.*

*Angiozarren, 10:00etan.*

### ANTZUOLA Akinabei errotan bisita gidatua

Jose Mari Iturberen eskutik, 10:00etatik 13:00etara, orduro.

*Akinabei errotan, 10:00etan.*

### ARAMAIO 'Basalandare jangarriak' ekimena

Horiek ezagutzeko eta biltzeko aukera, Lorabari Astearen baitan. Ostean, kozinatu egingo dira Clara Gutierrezekin, eta bukatzeko, dastatu.

*Azkoaga auzoan, 10:30ean.*

### ARETXABALETA Genuine Adeitasun Torneoa

Reala, Eibar, Alaves eta Athletic gonbidatu ditu UDAK.

*Ibarra futbol zelaian, 11:00etan.*



**ESKORIATZA Elorretako errotara bisita gidatua**

12:00etatik 14:00etara, esku-errotak erabili eta ogi-orea egiteko tailerra egingo da; eta 12:30ean (euskaraz) eta 13:00etan (gaztelera), bisita gidatuak. **Errotan, 12:00etan.**

**BERGARA San Miguel Monte jaiak**

Meza Angiozarko Goimendiko ermitan, Durangoko Begi Argiak abesbatzarekin; eta ostean, abesbatzaren emanaldia eta luntxa. **Angiozarko Goimendin, 12:00etan.**

**ARETXABALETA 'Pin Paraiso' ikuskizuna**

Malabarrak eta magia bateratzen dituen ikuskizuna, Xabi Larrearekin. Sarrerak, hiru euro. **Arkupen, 17:00etan.**

**ESKORIATZA 'eRRe' ikuskizuna**

Bertoak eta askotariko arte-diziplinak batzen dituen lana, Haizea eta Oihana Arana ahizpa eskoriatzarrekin, Leire Vargasekin eta Aner Peritzekin. Sarrerak, bost euro. **Zaldibar antzokian, 19:00etan.**

**ARRASATE Andra Mari Abesbatza**

XVIII. Musikaldiaren baitan. **San Frantzisko elizan, 19:30ean.**

**ASTELEHENA 9****ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. **Herriko Plazan, 12:00etan.**

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. **Herriko Plazan, 12:00etan.**

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. **Foruen plazan, 12:00etan.**

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko elkartuko dira. **Foruen plazan, 12:00etan.**

**ARAMAIO Irakurle klub feminista**

Kultura etxean elkartuko dira. **Kultura etxean, 18:00etan.**

**ESKORIATZA Ikastaroa: larrain dantza**

Lehen entsegua. **Pilotalekuan, 20:00etan.**

**MARTITZENA 10****ARAMAIO Odola ateratzea**

Autobusa egongo da. **Kultura etxean, 16:45ean.**

**BERGARA 'Etxebizitza: bizitza gabeko etxeak' hitzaldia**

Irekia. **UNEDen, 18:30ean.**

**ARETXABALETA 'Hi' erakusketa**

Maria Lasaren pirografiak ikusteko aukera, hilaren 31ra arte. Aitarekin ikasi zuen egurra lantzen. **Arkupen, 18:30ean.**

**ARETXABALETA Leintz Bailarako Ekiola Kooperatibaren aurkezpena**

Zer den, nola funtzionatzen duen eta proiektuari buruzko xehetasun guztiak azalduko dituzte. **Arkupen, 18:30ean.**

**ARAMAIO 'Gure etxeko faktura eta sistema elektrikoaren oinarriak' hitzaldia**

Jon Toñak eta Iraia Jauregik egingo dute berba, Lorabarri Astean. **Sastiñan, 18:30ean.**

**BERGARA 'Hitzen ahairea' euskal kantagintzari buruzko ikastaroa**

Gotzon Barandiaranekin eta Rafa Ruedarekin. **Musika eskolan, 19:00etan.**

**ARRASATE Mendi Tour emanaldia**

Hainbat zuzendariren lanak ikusteko aukera. **Amaia antzokian, 19:30ean.**

**EGUAZTENA 11****ELGETA Erretiratuen irteera**

Egun osoko irteera, Ordiziara. **Mendizaleen plazan, 08:00etan.**

**BERGARA Kafekonpon**

Etxeko tresna txikiak konpontzeko. **San Joxepen, 16:00etan.**

**ARAMAIO 'Lixiba garbigarri likidoa eta ontzi-garbigailurako pastillak' tailerra**

Izpiiliku Kosmetika Naturaleko kideekin, Lorabarri Astearen baitan. **Erretiratuen elkartean, 17:30ean.**

**ELGETA 'Bost teilatu' ikus-entzunezkoa**

Debalde. **Udaletxean, 18:30ean.**

**ARRASATE 'Amaiur. 1522-2022' hitzaldia**

Aitor Pescadorrek egingo du berba. **Kulturaten, 19:00etan.**

**OÑATI 'Urak aske' dokumentala**

Gipuzkoako Aldundiko ingurumen saileko Gnat Zinema egitasmoaren barruan. Debalde, edukiera bete arte. **Zinema aretoan, 19:30ean.**

**EGUENA 12****ANTZUOLA Landatxoperen urteko batzar orokorra**

Bazkideendako. **Olaran etxean, 17:30ean.**

**ARRASATE Sasoibide**

Arrasateri bira egingo diote. **Biteri plazan, 10:00etan.**

**ARAMAIO 'Hazien ugalketa: nola aukeratu landa egokienak haziak lortzeko' tailerra**

Alekako Marc Badalen eskutik, Lorabarri Astearen baitan. **Sastiña, Aramaio 18:30etan**

**ESKORIATZA Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba: aurkezpen-hitzaldia**

Zer den, nola funtzionatzen duen eta proiektuari buruzko xehetasun guztiak azalduko dituzte. **Zaldibar antzokian, 18:30ean.**

**ELGETA Irakurketa talde feminista**

Solasaldia. **Liburutegian, Elgeta 18:30ean.**

**ARETXABALETA 'Segundo bat bizitza da!' dokumentala**

UDAko areto futboleko kideek egindako lana. Bi emanaldi: 18:45ean eta 20:00etan. Debalde. **Arkupen.**

**OÑATI 'Bost teilatu' filma**

*Krak, Hitzak, Erijupekoa, Muga* eta *Arnasa* lanak ikusteko aukera. Amaieran, solasaldia Leire Egaña zuzendariarekin. Debalde, edukiera bete arte. **Zinema aretoan, 19:00etan.**

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Gailu taldea**

Bi hamarkada isilik egon ostean, power doinuak lantzen dituen hirukotea zuzenean ikusteko aukera. Sarrerak, zazpi euro. **Gaztetxean, 22:00etan.**

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

**Alcarrás**  
Zapatutik astelehenera: 19:30.

**El secreto de Vicky**  
Zapatuta eta domeka: 17:00.

**BERGARA****SEMINARIXOA**

**Coda**  
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

**Los tipos malos**  
Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**Alcarrás**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

**GASTEIZ****BOULEVARD**

**Doctor Strange en el multiverso de la locura**  
Egubakoitza eta domeka: 16:45,

17:45, 19:30, 20:30, 22:15. Astelehenera eguenera: 17:00, 19:40, 22:20. Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 16:15, 19:00, 21:45.

**El juego de las llaves**  
Egubakoitza eta domeka: 22:45.

**Downton Abbey**  
Egunero, martitzena izan ezik: 19:10, 21:45. Martitzena: 21:45.

**Un viaje salvaje**  
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 15:50.

**Los tipos malos**  
Egunero: 17:00. Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 16:10, 19:10, 22:10.

**X**  
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 21:00. Astelehena, martitzena eta eguena: 19:50, 22:10.

**Sonic 2**  
Astelehenera eguenera: 17:20. Egubakoitzetik domekara: 15:50, 18:20.

**El hombre del norte**  
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:40, 22:20. Martitzena: 17:00, 22:20.

**El juego de las llaves**  
Egubakoitza eta domeka: 22:45.

**Downton Abbey**  
Egunero, martitzena izan ezik: 19:10, 21:45. Martitzena: 21:45.

**Un viaje salvaje**  
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 15:50.

**Los tipos malos**  
Egunero: 17:00. Egubakoitzetik domekara: 20:00.

**Las aventuras de Pili**  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**El secreto de Vicky**  
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 15:55. Astelehena, martitzena eta eguaztana: 17:00.

**La ciudad perdida**  
Egunero: 17:50, 20:10, 22:30.

**GORBEIA**

**Los tipos malos**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

**Sonic 2**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20. Domeka: 11:45, 17:20. Astelehenera eguenera: 17:30. Animales fantásticos Egunero: 17:10.

**Las aventuras de Pili**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

**La ciudad perdida**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

**Astelehenera eguenera: 20:00. Veneciafrenia**  
Egubakoitza eta zapatua: 21:40. Domeka: 19:10. Astelehenera eguenera: 17:20.

**El hombre del norte**  
Egubakoitza eta zapatua: 18:55, 21:40.

Domeka: 11:30, 18:55. Astelehenera eguenera: 19:50.

**X**  
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:10.

**Domekatik eguenera: 20:00. El secreto de Vicky**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:10. Domeka: 12:00. Astelehenera eguenera: 17:30.

**Doctor Strange en el multiverso de la locura**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 17:25, 19:20, 19:35, 20:30, 21:00, 21:50, 22:20.

**Domeka: 17:00, 17:05, 19:10, 19:20, 19:35, 20:10. Astelehenera eguenera: 17:05, 19:15, 20:10.**

**Alcarrás**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:50, 19:10. Domeka: 12:00, 16:50.

**FLORIDA**

**Los tipos malos**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Sonic 2**  
Zapatua eta domeka: 11:45.

**La ciudad perdida**  
Egubakoitza: 17:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00. Astelehena, eguaztana eta eguena: 17:30. Martitzena: 17:15.

**El hombre del norte**  
Egubakoitza: 19:15, 21:55. Zapatua: 11:30, 19:15, 21:55. Domeka: 11:30, 17:30, 19:55, 22:15. Astelehena, eguaztana eta eguena: 19:45.

**Alcarrás**  
Egubakoitza: 17:30, 19:55, 22:15. Zapatua: 11:30, 17:30, 19:55, 22:15. Domeka: 11:30, 17:30, 19:55. Astelehenera eguenera: 17:30, 20:10.



AZKEN BERBA

ANE ZUAZUBISKAR

## Kasnarajak igandeetan

25 urtetik gorako zenbat neska-kuadrilla ikusten dituzu osorik asteburuko poteoetan? Zenbat mutil-kuadrilla? Zer egiten duzue opor-garaian bikote gabeek? Zergatik gaude kuadrillako bi bakarrik igande arratsalde kasnarajak hartzeko? Zergatik ikusten ditut ni baino helduagoak diren gero eta emakume gutxiago parrandan? Zergatik gara gaztetzeko zaharrenak 25 urte baino ez baditugu? Kezkutzen hasi behar dut ahizpa gazteagoaren kuadrillak hartu nauelako adopzioan? Zenbat neska ikusten dituzu haien bikote mutilen kuadrillekin? Eta alderantziz? Zenbat urterekin hasi zarete lekuz kanpo sentitzen kontzertuetan, tabernetan, kalean?

Ez da kexa partikularra, asko maite ditut lagunak, lagunen bikotekideak eta ni bezain zintzilik gelditzen diren bidaia-lagunak. Ez da kexa partikularra, egiturazko duda da. Ez ote genukeen problematizatu behar kuadrillakeria eta bikotekeria, ez ote genukeen pentsatu behar guretzako denbora gero eta estuago delako gertatzen zaizkigula halakoak. Ez dakit. Galdera erretorikoak egiten ditugu erantzunak emateko koldarregiak garenok, pertsona zorrotzak gara eta sinestarazi nahi dizuegunean.

GOIENA OKM GIDA

# "Bezeroa ikusita dakigu ze auto erosi nahi duen"

**ENEKO URIBE** AUTOS RIBELOGAKO ARDURADUNA

Afizioa ofizioa du Uribek, izugarri maite baitu automobilen mundua. Rallyetan parte hartu izan du, eta lanean, jendearekin harreman zuzena izatea baloratzen du

**Idoia Aranbarri** ESKORIATZA

Autoekiko zaletasuna dela eta, 2013an ireki zuten Erle Motors, Oñatin, Eneko Uribek eta Gorka Idigorasek. Bost urteren ostean, negozioa handitzea erabaki zuten, eta Eskoriatzako pabiloia hartu zuten. Duela gutxi, berriz, Lucas Cruz gehitu zaie taldera. **Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?** Tailerraz gain, garbiketa nahiz karrozeria zerbitzuak dauzkagu. Bigarren eskuko autoen salerosketa ere egiten dugu.

**Hainbat krisi bizi dituzue, ezta?**

Denetik tokatu zaigu. Eskoriatzan lanean hasi bezain laster, dieselaren krisia egokitu zitzaigun, adibidez. Gero, koronabirusarekin, bi hilabete itxita. Buelta ematen ari gara ikusten dugu, baina galdutako dena lortzeko denbora asko beharko da.

**Orokorrean, bigarren eskuko autoen salmenta igo egin da. Nabaritu duzue hori?**

Orain, igarri dugu gehiago saltzen direla, auto berrien entrega-data asko atzeratzen baita. Aldi berean, ordea, prezioak asko igo dira, bai erosteko orduan, baita saltzerakoan ere. Gaur egun, jendeak itxaron egiten du ibilgailu zaharra erretiratzeke.



Eneko Uribe, auto eskusibo batekin, Eskoriatzako kontzesionarioan. I.A.

## Diesela, duda barik

"Ibilbidearen arabera da, baina ni, duda barik, dieselaren aldekoa naiz. Bidaia luzeak egiteko gogorragoa da. Azeleragailua zapaltzen ez baduzu, diesela apurtu egiten da, baina, gaur egun, gasolina duten motorrak ere erraz matxuratzen dira. Guk gehiago saltzen dugu diesela, bezeroek ez dute-eta gasolinazkorik nahi. Beldur asko daudela uste dut. Tebistan ikusten denarekin jendea izutu egiten da. Albisteen arabera igartzen da hemen mugimendua."

**Zein motatako bezeroak dituzue?** Gehienak auto berria ez erosteko datoz. Atetik sartzen diren unetik argi daukagu zein auto nahi duten. Hala ere, auto eskusiboak ere saltzen ditugu, eta kanpora bidaltzen ditugu bildumagileentzat. Modelo zehatzak eskatzen dizkigute, eta horiek lortzen saiatzen gara. Bezeroen auto zaharrak ere hartzen ditugu.

**Zein gomendio emango zenioke une honetan autoa erostekotan dabilen bati?**

Gustukoa erosteko. Dena da produktu ona, denak dira fidagarriak. Mantentzeko orduan, ez dago ezberdintasun handirik markei dagokienez, antzeko gastuak baitituzte.

**Zein da zure lanaren alderik onena?** Zaletasun handia diegu autoei, pila bat gustatzen zaizkigu. Gainera, beti daukagu zerbait ezberdina egiteko, jendearekin egoten zara eta autoak probatzen dituzu. Zortea da zaletasuna norberaren lana izatea.

**Eta okerrenea?**

Ordutegia, egun osoan hemen baikaude. Neguan gauez sartu eta gauez ateratzen gara. Buzari buelta asko ematen dizkigu. Lan eritimoa moteltzen denean, zergatia aurkitzen saiatzen gara.

**Sektore maskulinizatua izaten jarraitzen du?**

Mekanikariak bilatzerakoan ikusi dugu ez dela emakumerik aurkeztu. Administrazio lan eskaintzen kasuan, aldiz, alderantzizkoa gertatu da.

Goiena OKM  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

## LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATE IREKIAK

Etorkizuna  
zure esku

Fp ikasLAN  
Gipuzkoa

### ARETXABALETAN:

Ikastetxea ezagutzeko, hitzordua eskatu

**ALE**  
ARETXABALETA  
Lanbide Eskola  
Lanbide Heziketa  
www.ale-aretxabaleta.eus

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola  
Etxebarri auzoa, 21g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA  
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489  
la@aretxabaleta.com

### BERGARAN:

Ikastetxea ezagutzeko, hitzordua eskatu

**MIGUEL ALTUNA**  
Lanbide Heziketa  
www.maltuna.eus

Miguel Altuna LHII Bergara  
Agimibidea, 2 • 20570 BERGARA  
☎ 943 899 270 / 943 899 271  
info@maltuna.eus

### OÑATIN:

Maiatzaren 10ean, 18:00etan  
Maiatzaren 14an, 11:00etan

**ONATI**  
Institutua  
Lanbide Heziketa  
www.onati.net

Oñati Institutua  
Lamaña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 899 300  
info@onati.net

2022 - 2023 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZAREN 9TIK 27RA